HERRI MUGIMENDUA(K) Eraginkorra(k) ote?

Gogoeta-Ekintza prozesuaren ondorioak



Gure memorian dagoen Zesar maiteari,
liburu hau zurea ere bada.
Euskal Herriko
Herri Mugimenduetatik,
Herri Mugimenduekin eta
Herri Mugimenduentzat jarduten irakatsi zenigun,
eta zuk irekitako bidean jarraituko dugu.

Argitaratzailea:
Joxemi Zumalabe Fundazioa

Koordinazioa:
Joxemi Zumalabe Fundazioa

Testuen edizioa eta zuzenketak:
Igone Mariezkurrena

Irudia eta maketazioa:
Nagore Koch Elizegi

Inprimategia:
Antza S.A.L.

Lege Gordailua:
D 1052-2026

Liburu hau nazioarteko Creative Commons 4.0 lizentziapean argitaratu da. Egilearen izena aipatu behar da, ezin da diru-irabaziak lortzeko erabili eta ezin da lana aldatu edo moldatu.

Joxemi Zumalabe Fundazioa

Bizilur
Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea
Asociación para la Cooperación y el Desarrollo de los Pueblos

Bizilur erakundeak eta Joxemi Zumalabe Fundazioak honako erakundeen babesa jaso dute:

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI

MUGIMENDUA(K)

Eraginkorra(k) ote?


Gogoeta-Ekintza prozesuaren ondorioak




NORI EGINGO DIOGU ELKARRIZKETA?
kidearen izena
herria
eragilea




Euskal Herria
PAYS BASQUE
BASQUE COUNTRY
PAIS VASCO
DISTANTZIA KILOMETRIKOAK
DISTANCIAS KILOMÉTRICAS
CANTABRIA
ASTURIAS
BURGOS
SORIA
LA RIOJA
BIZKAIA
GOLFO
MAR CANTÁBRICO


EUSKAL HERRIKO ERREPIDE MAPA
MAPA DE CARRETERAS Y TURÍSTICO DE EUSKAL HERRIA
ZARAGOZA
ARAGOI
HUESCA
NAVARRA
LABURD
BIZKAIA



Aurkibidea

1. **SARRERA** 11
2. **GOGOETA-EKINTZA PROZESUAREN BULTZATZAILEAK** 12
   - 2.1. Joxemi Zumalabe Fundazioa 12
   - 2.2. Bizilur elkartea 13
3. **PROIEKTUAREN KOKAPENA** 14
4. **METODOLOGIA** 15
   - 4.1. Diagnosirako eztabaida kolektiboa 16
     - 4.1.1. Jarraipen Batzorde Zabala 18
     - 4.1.2. Oinarri Teorikoaren eraikuntza 19
   - 4.2. Irekiera fasea 25
   - 4.3. Itxiera fasea 26
5. **OINARRI TEORIKOA** 27
   - 5.1. Herri Mugimenduen izaera 28
   - 5.2. Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa eta horren neurketa 28
     - 5.2.1. Dimentsio pertsonala 30
     - 5.2.2. Dimentsio soziala 30
     - 5.2.3. Mugimenduaren birsortze-dimentsioa 31
     - 5.2.4. Dimentsio komunikatiboa 31
     - 5.2.5. Dimentsio politiko-instituzionala 32
   - 5.3. Testuinguru politiko berria Euskal Herrian 33
     - 5.3.1. Faktore globalak 33
     - 5.3.2. Tokiko faktoreak 35
   - 5.4. Herri Mugimenduen ekimena eta eraginkortasuna baldintzatzen dituzten faktoreak 36
   - 5.5. Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa ziklo berrian 37
6. **HERRI MUGIMENDUEN ERAGINKORTASUN POLITIKOA MUGATZEN DUTEN KORAPILOAK** 40
   - 6.1 Formakuntza falta 42
     - 6.1.1. Formakuntza era integralean ulertzeko ezintasunak 43
     - 6.1.2. Denbora falta eta bestelako lehentasunak 43
     - 6.1.3. Eztabaida kritikoa sustatzen duten espazioen falta 43
     - 6.1.4. Gehiegizko informazioa 44
     - 6.1.5. Formakuntzarako bitartekoen saretze eza 44
   - 6.2. Zuritasuna 44
   - 6.3. Militantzia ereduen bilakaera eta autoestimu iraultzailearen galera 45
     - 6.3.1. ‘Ni’-a lehentasun gisa eta konpromiso maila ezberdinen uztartzea 46
     - 6.3.2. Gure gaitasunekiko konfiantza galtzea 47
   - 6.4. Komunikazio gabeziak 48
   - 6.5. Plangintza errealisten beharra eta borroken uztartzea 49

7. **TRESNAK** 50
7.1. Formakuntza integrala 51
7.1.1. Euskal Herriko militanteen formakuntzarako Tresna-Kutxa 52
7.1.2. FormaZIO! Formakuntza Politikorako Joxemi Zumalabe Fundazioaren aholkularitza zerbitzua 53
7.2. Euskal Herriko Herri Mugimenduen zuritasunari buruzko eztabaida-prozesu zabal eta parte-hartzailea 54
7.2.1. Euskal Herriko militantziaren zuritasunaren arrazoiei buruz 56
7.2.2. Topaguneei buruz 57
7.2.3. Euskarari, harrerari eta lehentasunei buruz 58
7.2.4. Aukerei, gaitasunei eta erritmoei buruz 59
7.3. Militantzia eredu bizigarria eta autoestimuaren berreskurapena 61
7.3.1. Eragileen bizigarritasunaren lorea 62
7.3.2. Aurrerapausoak emateko tresnak 64
7.4. Komunikazioa 69
7.4.1. Berezko espazioa Fedibertsoan 70
7.4.2. Eztabaidarako espazioak 71
7.4.3. Irizpide gehiago 71
7.5. Plangintza errealistak eta borroken uztartzea 73
7.5.1. Plangintza errealistak gauzatzeko jarraibideak 74
7.5.2. Proiektuak erabakitzeko protokoloa (Amillubi taldea) 76
7.5.3. Borrokak uztartzeko jarraibideak 79
7.5.4. Bost urrats elkarlanerako 80
8. **ELKARTRUKEA ARGENTINAN** 82
8.1. Hegoalde Globalaren begirada 82
8.2. Delegazioko hainbat kideren balorazioak 85
9. **AGURRA** 109
ERANSKINA 117

1. SARRERA

2024. urtearen azken hondarretan bidaia bat hasi genuen. Artean ez genekien zein izango zen helmuga. Baina bagenuen iparrorratza: Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari buruzko hausnarketa kolektibo eta parte-hartzailea bideratzea; horizontala, askotarikoa eta aberatsa.

Ilusioak, jakinminak eta Herri Mugimenduekin dugun konpromiso zintzoak jarri gintuzten martxan. Ardura eta grina, urduritasuna eta indarra sentitu ditugu neurri berean. Baina euskal militanteengan konfiantza itsua dugu, gaitasun paregabea dutelako edozein erronkari aurre egiteko, ez zaigu bidaide hoberik otutzen, eta euren eskutik aritzeak zalantza eta beldur oro uxatu du bi urteko prozesu honetan.

Joxemi Zumalabe Fundazioko kideok eta Bizilur elkarteko lagunek eskuz esku egin genituen Gogoeta-Ekintza zabal eta luze honen lehen urratsak. Baina balioan jarri nahi dugu fasez fase, saioz saio, hiriz hiri eta herriz herri, hamarnaka eta hamarnaka pertsonek hartu dutela parte askotariko eragileen ordezkari gisa. Eta orain, bidaiaren amaierara iritsi garen honetan, eztabaidek emandako guztia zabaltzen dugularik, are herritar, militante eta mugimendu gehiagorekin partekatzen ari gara ideia, iritzi eta arrazoiketa horiek guztiak. Hausnarketaren oihartzunak luzez iraungo ahal du!

Pertsona guztiek eskubide guztiak edukiko dituztela bermatuko duen bidezko jendarte batekin amesten dugunok, amestu ez ezik, horren alde egin eta eragiten dugu. Eta hain justu horregatik kezkatzen gaitu gaur egungo abagunean Herri Mugimenduek gizartea eraldatzeko duten gaitasunak. Egoeraren irakurketa teorikoa egiteaz gain, eraginkortasun politiko hori mugatzen duten korapiloak identifikatzeko misioari ere heldu diogu, eta baita korapilo horiek askatzeko tresnak irudikatzeko saiakerari ere.

Pauso bakoitza mimoz zaindu dugu; tailer, batzar, elkarrizketa bakoitza tentuz diseinatu dugu. Puzzle ahalik eta anitzena, sarerik albait konplexuena osatzen saiatu gara. Barrura so egiteko ariketa izan da lehenik, aurrera begirakoa gero. Eta orain, liburu honen irakurraldi bakoitzarekin, gogoetaren lekukoak batetik bestera bizirik segituko duelakoan gaude.

2. GOGOETA-EKINTZA PROZESUAREN BULTZATZAILEAK

2.1. Joxemi Zumalabe Fundazioa

1996an Donostiako Egia auzoan jaiotako eragilea da Joxemi Zumalabe Fundazioa. Euskal Herri osoan dihardugu, bestelako jendarte eredu baten alde lanean ari diren Herri Mugimenduetatik, Herri Mugimenduekin eta Herri Mugimenduentzat ekarpena eginez. Patriarkatuan, naturaren suntsiketan eta gizartearen desartikulazioan oinarritzen den modernitate kapitalistaren aurrean, bestelako bizitzak, duinak, birsortzea posible delako: elkar zaintza eta inguruneare kiko nahiz elkarrenganako begirunea erdigunean jarrita.

Sorrerako bokazioari eutsiz, sinergiak eta ahalduntzea bilatuz, Herri Mugimenduei laguntzen diegu euren dinamika politikoen baitako askotariko prozesuak abiatzen, garatzen eta burutzen. Izan ere, herritarrek euren burua antolatzea ezinbesteko baldintza da herriak beren historiaren protagonista bilakatzeko. Herrigintzaren funtsa, beraz, herritarrak elkar konektatzea eta saretzea da, eta sortzen diren espazio nahiz esperientzia horietan bidelagun izan nahi dugu. Urte hauetan guztietan, honakoak izan dira gure jardunaren iparrorratzak:

- Herri Jakintzen Filosofia Euskal Herriratu eta lurreratzea
- Apaltasunetik, Herri Mugimenduei ekarpena egitea
- Topagune herrikoiak bultzatuz, jendarte eraldaketarako eztabaida zabaltzea
- Gure eta gainerako kolektiboen barne funtzionamendua sendotzeko tresnak lantzea
- Kolektiboen arteko ezagutza eta elkarlan estrategikoak sustatzea
- Aktibismo politikoa indartzeko jabekuntza eta transmisioa bermatzea

1998. urtean, Espainiako Auzitegi Nazionalak Joxemi Zumalabe Fundazioa inputatu zuen, beste eragile askorekin batera, 18/98+ auzian. Makrosumario haren kontrako protesta-dinamiken bultzatzaile nagusienetako bat izan ginen eta errepresioak eragindako abagune hura inflexio-puntu garrantzitsua izan zen gure ibilbidean,

protesta fasea itxi ostean Fundazioaren birrasmatze fasea abiatu baikenuen.

Orduz geroztik, eta bereziki azken hamarkadan, lau lan lerro bilakatu dira guretzat lehentasunezko:

- Formakuntza politikoa
- Dinamizazioa: Euskal Herriko Herri Mugimenduek dituzten dinamizazio politikoko beharrei erantzuten diegu fazilitazio zerbitzua emanez, baita horretan ahalduntzeko bideak urratuz ere, kontraprestazio ekonomikorik gabe
- Gogoeta: Euskal Herriko Herri Mugimenduentzat interesezkoak diren gaiei buruzko hausnarketa kolektiboak bideratzen ditugu
- Barne bizitzaren zaintza: Herri Mugimenduen baitako erabaki parte-hartzaile eta horizontaletan, kideen eta prozesuen zaintzan eta, oro har, bidearen garrantzian sinesten dugun heinean, garrantzi berezia ematen diogu gure Fundazioaren barne prozesuei

Gogoeta ildo horren baitan burutu genuen, esaterako, militantzia ereduen bilakaerari buruzko hausnarketa prozesua, baita liburu honen mamia den Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoaren inguruko Gogoeta-Ekintza prozesua ere.

2.2. Bizilur elkartea

2022. urtean Urduñan sortu zen Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Elkartea da Bizilur. Egitura eta funtzionamendu asanblearioa dugu eta oinarri-oinarrizko premisa batetik abiatuta aritzen gara: pertsonok eta herriok nozitzen ditugun pobretzearen, desberdinkeriaren eta zapalkuntzen kausa bizi garen sistema menderatzaile anizkoitza da; alegia, sistema neoliberala, inperialista eta heteropatriarkala.

Herri Mugimenduak jendarte eredu hegemonikoari aurre egiteko eta alternatibak eraikitzeko gai direla sinesten dugu, baita horretarako zilegitasun osoa dutela ere. Horregatik, proposamen antikapitalistak, errespetuzkoak eta burujabeak gauzatzen dituzten bertako zein nazioarteko Herri Mugimenduei laguntzen diegu bizitza eta iraunkortasuna erdigunean dituzten proiektuak gauzatzen.

Elikadura burujabetza da gure ardatzetako bat. Elikagaien ekoizpena merkatuen espekulaziotik aldentzea eta ondasun komunen nahiz naturaren zaintza bermatzea azken helburutzat ditugu, baina eraldaketa sakoneranzko bidea ere horixe bera da. Horregatik, mundu mailan nekazal kulturarekin lotutako formakuntza politikoa eta komunitateetan eragiteko estrategiak garatzeko tresnak jorratzen ditugu munduko Nekazal Mugimenduarekin batera.

Begirada transfeministatik definitzen dugu zer eta nola eraldatu. Hala, beste kolektibo transfeministekin aliantzan egiten dugu lan, tartean, zainketen eta adierazgarritasunen eremuan hobera egiteko.

Esparru internazionalistan dihardugu, Euskal Herriko eta Hegoalde Globaleko herrialdeetako herritarrok jasaten ditugun zapalkuntzen iturburua sistema berbera delako. Horren aurrean, kolonialismoa nahiz Iparralde-Hegoalde menderakuntzak hausteko eta herrien burujabetzaren alde egiten dugu lan, elkartasunez.

Hiru zutabe horiek ez ezik, lurraldetasunak eta tokikotasunak ezaugarritzen gaituzte, horiexek baitira justizia globalaren alde ekiteko eremu estrategikoak.

3. PROIEKTUAREN KOKAPENA

Mundu mailako aldaketek eta, Euskal Herriko gatazkari dagokionez, alde batek borroka armatua etetea erabaki ostean zabaldu zen ziklo berriak asko eta askotariko aspektutan aldatu dute bertako errealitate sozial zein politikoa, gatazkak bere horretan badirau ere. Ondorioz, gaur egungo testuinguruan Herri Mugimenduek errealitate sozial zein politikoan eragiteko duten gaitasuna eta eragin horren izaera ere ez dira lehengo berberak.

Joxemi Zumalabe Fundazioak, Herri Mugimendu horiekin harreman zuzena eta jarraia duen eragilea denez gero eta Herri Mugimenduaren parte den heinean, egoki eta beharrezkotzat jotzen du aldaketaren neurriari eta nolakotasunari buruz hausnartzea, betiere jakintza hori partekatzeko eta Herri Mugimenduen beraien mesedetan baliatzeko.

Horrenbestez, kezka nagusi bat izan zen orain esku artean duzun liburuak jasotzen duen hausnarketa kolektiboaren lehen-lehen

pizgarria: zenbat eta nola baldintzatu du abagune berriak Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa? Eta bigarren galdera etorri zen segidan, kasu honetan aurrera begirakoa: zein dira eraginkortasuna mugatzen duten korapiloak eta nola gainditu ditzakegu?

Bi itaun horien bueltan eta aurrekari modura, tailerrak antolatu genituen 2022. urtean Eibarren, eta 2023an Iraultza Txikien Akanpadan (ITA) Izarran nahiz Euskal Herria Zuzenean Festibalean (EHZ) Irisarrin. Militanteen harrera bikainak eta gaiaz eztabaidatzeko premiak zein gogo orokortuak sakontzen segitzeko hauspoa eman ziguten. Eta, hala, *'Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote?'* izeneko Gogoeta-Ekintza prozesua abiatu genuen 2024an. Bi urte baino gehiagoren buruan, analisi, iritzi eta ondorio nagusiak partekatzeko moduan gaude.

Hilabete hauetan guztietan, lehenagoko beste hausnarketa ariketa batzuetan bezalaxe, Bizilur elkartea izan dugu bidelagun. Eta, bestalde, prozesua benetan kolektiboa izan zedin bermatzeko, Jarraipen Batzorde Zabala talde irekia osatu genuen, Herri Mugimenduen ordezkaritza anitza izan duena eta urtean bizpahiru bilera eginda ibilbide osoaren, fase ezberdinen eta eztabaida estrategikoen gertuko jarraipena egin duena. Zabalpenean ere lagundu dute, eta ekarpen kualitatibo nahiz kuantitatibo handia egin dute Gogoeta-Ekintza gorpuztu duten ekimenak proposatuz edota ideiak eztabaidatuz.

4. METODOLOGIA

Herri Jakintzen Filosofian oinarrituta aritu gara, eta ahalik eta eragile zein militante gehien, eta askotarikoak gainera, hausnarketara batu daitezen saiatu gara. Eztabaida horizontalak bideratu ditugu eta ikuspegi aberastasuna bilatu dugu. Gogoetan aritu diren lagunen generoa, adina, jatorria eta bizitokia, ideologia, militantzia esparrua, biografia politikoa, errealitate sozial zein ekonomikoa eta maila guztietako identitateak Euskal Herriko Herri Mugimenduetako militanteen aniztasunaren isla izan daitezen ahalegindu gara.



Eduki mamitsuak, ondorio konplexuak eta ertz asko duten ideiak izan dira emaitza, ezinbestean. Konpromiso sendoa dugu moduak eta prozesuak zaintzearekin, eta, horrek esfortzu gehigarria galdatzen duen arren, merezi duelakoan gaude.

Bi urteko ibilbide honek hiru fase izan ditu. Edo, beste era batera esanda, hiru pausotan gauzatu dugu Gogoeta-Ekintza osoa.

- Diagnosia: proiektua zehaztu eta Oinarri Teorikoa eraiki
- Irekiera fasea: Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa baldintzatzen duten korapiloak identifikatu
- Itxiera fasea: korapilo horiek askatzeko tresna praktikoak sortu

4.1. Diagnosirako eztabaida kolektiboa

Joxemi Zumalabe Fundazioko eta Bizilur elkarteko kideok osatutako Talde Motoreak bideratu du prozesua. Oinarri-oinarrizko zenbait galderari erantzunez hasi ginen proiektua bera zehazten:

- Zein dira abiatu nahi dugun gogoeta prozesuaren helburuak?
- Zeri buruz egin nahi dugu hausnarketa?

2024	4. hiruhilekoa	**diagnosi fasea**	• Proiektuaren zehaztapena. • Jarraipen Batzorde Zabalaren osaketa. • Barne-eztabaida kolektiboaren garapena: Oinarri Teorikoaren eraikuntza. • Elkarrizketen planteamendua garatu.
2025	1. hiruhilekoa	**diagnosi fasea**	• Barne-eztabaida kolektiboaren garapena: Oinarri Teorikoaren eraikuntza. • Jarraipen Batzorde Zabalaren lehenengo bilera: proiektuaren logika eta egitura azaldu, elkarrizketen planteamenduaren inguruko ekarpenak jaso. • Elkarrizketen planteamendua garatu. • Elkarrizketak egin eta sistematizatu.
	2. hiruhilekoa	**diagnosi fasea**	• Barne-eztabaida kolektiboaren garapena: Oinarri Teorikoaren eraikuntza. • Elkarrizketak egin eta sistematizatu. • Barne-eztabaida kolektiboa borobildu. • Tailerren planteamendua zehaztu.
	2. hiruhilekoa	**irekiera fasea**	• Jarraipen Batzorde Zabalaren bigarren bilera: elkarrizketen eta barne-eztabaida kolektiboaren ondorioak aurkeztu, eta tailerren planteamenduaren inguruko ekarpenak jaso. • Tailerren lehenengo erronda egin eta sistematizatu.
	3. hiruhilekoa	**irekiera fasea**	• Tailerren lehenengo erronda egin eta sistematizatu.
	4. hiruhilekoa	**irekiera fasea**	• Tailerren lehenengo erronda egin eta sistematizatu. • Jarraipen Batzorde Zabalaren hirugarren bilera: tailerren lehenengo errondaren ondorioak aurkeztu eta bigarren errondako tailerrei begira ekarpenak jaso. • Urgenci sarearen Herri Mugimenduen nazioarteko topaketak Frantzian.
	4. hiruhilekoa	**itxiera fasea**	• Tailerren bigarren erronda egin eta sistematizatu.
2026	1. hiruhilekoa	**itxiera fasea**	• Tailerren bigarren erronda egin eta sistematizatu. • Argentinara bidaia: nazioarteko elkartrukea Herri Mugimenduen eraginkortasuna areagotzeko tresnak partekatzeko helburuarekin. • Prozesuaren emaitzen zabalpen komunikatiborako edukien (liburua, liburuxka, ikus-entzunezko erreportajea) ekoizpena.
	2. hiruhilekoa	**itxiera fasea**	• Jarraipen Batzorde Zabalaren laugarren bilera: Argentinako elkartrukearen ondorioak partekatu eta zabalpen-planaren inguruko ekarpenak jaso. • Prozesuaren emaitzen zabalpen komunikatiborako edukien (liburua, liburuxka, ikus-entzunezko erreportajea) ekoizpena.
	3. hiruhilekoa	**itxiera fasea**	• Prozesuaren emaitzen zabalpen komunikatiborako edukien (liburua, liburuxka, ikus-entzunezko erreportajea) ekoizpena.
	4. hiruhilekoa	**itxiera fasea**	• Prozesuaren emaitzen zabalpen komunikatiboa. • Jarraipen Batzorde Zabalaren bosgarren bilera: azken balorazioak.

– Zergatik eta zertarako da egokia abagune honetan galdera horiek planteatzea?
– Nor ekarriko dugu gogoetara?
– Nola kudeatuko dugu eta zein bitarteko baliatuta gauzatuko dugu prozesua?
– Nola sistematizatu eta zabalduko dugu jasotako informazioa?

Hastapeneko batzar haietan, besteak beste, bi premia nabarmen identifikatu genituen:

– Jarraipen Batzorde Zabala eratzeko beharra
– Oinarri Teorikoa eraikitzeko beharra

4.1.1. Jarraipen Batzorde Zabala

Euskal Herriko Herri Mugimenduen ordezkaritza zabala izan da, askotariko eragiletako lagunek osatu baitute. Hala ere, zintzoak izateko, ez dugu lortu bilatzen genuen adinako aniztasunik, horretarako ahalegina egin badugu ere. Talde Motoreak prozesuaren pauso bakoitza kontrastatu du Jarraipen Batzorde Zabalarekin, bost bilera izan dira orotara. Hala, alde batetik, Gogoeta-Ekintza irekia eta gardena bermatu dugu. Eta, bestetik, arian-arian sortu diren ideiak, zalantzak eta esperientziak mahai gainera ekarrita, prozesuaren beraren norabidea eta metodologia berrikusi ditugu etengabe. Parte-hartze ahalik eta biziena, dinamikoena eta anitzena etengabe ziurtatzeko ariketa kontzientea izan da, eta izugarri aberastu du prozesua.



4.1.2. Oinarri Teorikoaren eraikuntza

'Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote?' hausnarketa egiteko proposamena jendarteratu aurretik, Talde Motoreak ezinbestekotzat jo zuen gogoeta hori kokatzeko Oinarri Teoriko bat sortzea. Alegia:

- Nolako errealitatea ezagutu dute Euskal Herriko Herri Mugimenduek iraganean?
- Nolakoa izan zen herrigintza-militanteen jarduna aurreko hamarkadetan?
- Zein faktorek baldintzatu dute iraganeko eta gaur egungo testuinguru politiko zein sozialen arteko aldea?
- Ziklo politiko berriak nola aldatu du Herri Mugimenduen eragiteko gaitasuna?
- Eraginkortasun politiko handiagoa dute orain? Ala lehen?
- Nolakoa da orain Herri Mugimenduen eta pertsona militanteen jarduna?
- Ze abantaila, erronka eta arrisku dakartza garai berriak?

Talde Motorea eta Jarraipen Batzorde Zabala arduratu ziren, lehen fasean eta eztabaida kolektiboaren bitartez, Oinarri Teoriko hori eraikitzeaz.

Halaber, hori aberasteko, Euskal Herriko 19 militanteri elkarrizketak egin genizkien eta horiek ekarpen baliotsua izan ziren aurrerantzeko urratsak irudikatzeko. Prozesuaren beste gune eta une guztietan bezalaxe, honetan ere aniztasuna izan zen solaskideak aukeratzeko irizpide nagusia: korronte politiko eta ideologikoak, lurraldetasuna, adina, generoa, mugimenduaren eragin esparrua... albait anitzenak izan zitezen ahalegindu ginen.

Hizketaldi haien mamia, edo sintesi bat bederen, *'Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote? Hausnarketarako Elkarrizketak'* liburuxkan bildu dugu. Ondorengo pertsonek hartu zuten parte:

- Aitziber Romero (Auzoan Bizi Etxebizitza Sindikatua, Mugimendu Feminista)
- Anna Gabriel (CUP-CC Candidatura d'Unitat Popular-Crida Constituent)
- Beinat Aginagalde (EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboa)

– Beñat Irasuegi Ibarra (Talaios Koop, Olatukoop ekonomia sozial eraldatzailerako sarea)
– Boubacar Diouf (Mbolo Moye Dole manteroen eskubideen aldeko elkartea)
– Edurne Elizondo (NOR Euskal Herria Antiespezista taldea)
– El Houssine Yagoubi Oudkhis (LAB Langile Abertzaleen Batzordeak)
– Eñaut Elosegi Onandia (Arberoa Lurra eta Etxebizitza kolektiboa)
– Izar Mendiguren Cosgaya (Aiaraldea Ekintzen Faktoria)
– Jeanine Beyrie (OSTIA Okupazio Sare Tematsua Irabazi Arte kolektiboa, Senideak)
– Joseba Alvarez Forcada (Ezker Abertzalearen Mahai Nazionaleko kide ohia)
– Luis Fuentes Perez (CNT Confederación Nacional del Trabajo, Bilboko Konpartsak)
– Mari Carmen Moreno Martínez (EMK Euskadiko Mugimendu Komunista, Ongi Etorri Errefuxiatuak)
– Oihana Etxebarrieta Legrand (Euskal Herria Bildu alderdiaren legebiltzarkidea)
– Josefina *Txefi* Roco Sanfilippo (Trabajadoras No Domesticadas kolektiboa)
– Txomin Poveda (EHZ Euskal Herria Zuzenean Festibala, Iratzar Fundazioa, Batera plataforma)
– Ulises Domech (AZ Sare Komunitarioa, Koadro Eskola)
– Unai Isasi (Ernai Gazte Antolakundea, SOS Aiaraldea)
– Zigor Merodio Larraona (Bilbo-Palestina Herri Ekimena)

QR kodea irakurriz zabalduko den estekan irakurgai daude elkarrizketa guztiak.

Hala ere, pasarte esanguratsu bana ekarri dugu orriotara.

Aitziber Romero

"Militantzia espazio guztietan sortu diren harremanak eta loturak, pertsonalak ere bai, dira niretzat garrantzitsuena. Eta, hain justu, hori izan daiteke modua etorkizunari begira Herri Mugimenduetako kide askok dugun nekeari buelta emateko. Alegia, lortu behar dugu jendeak ulertzea militantziak babes-sare bat ematen dizula, komunitate bat ematen dizula, arazo jakin eta zehatz batetik harago hortxe segituko duena".

Anna Gabriel

"Udalerria da lehen eskala humano eta militantea. Gure bizilagunak dira, gure kaleak, gure saltokiak, gure lantokiak; aurreneko elkarbizitza esparrua da. Horregatik, eskuhartze politikorako leku pribilegiatua da udalerria, eta eraginkortasun handiko jarduna munizipalismoa, zure eragin eremua den hori zure bizilekua ere badelako".

Beinat Aginagalde Ibarra

"Askotan, porrotez porrot iristen gara helburuetara eta, horregatik, nik subjektu eraldatzaileen fede onean eta ahaleginean dut jarria konfiantza, eta ez ustezko arrakastaren fetitxean. Izan ere, borroka bat eraginkorra da helburu orokorreranzko bidean baldintza egokiak sortzeko balio badu".

Boubacar Diouf

"Gure helburu behinena, eskubide berdintasuna, ez dugu lortu gaur-gaurkoz. Eta bidean finkatu ditugun beste xede batzuk ere ez dira gauzatu oraindik (...) Baina, zorionez, ideiak eta ilusioa ez zaizkigu agortzen eta, manteroen kolektiboaren egoera eta bizi-baldintzak zeinen zailak diren kontuan izanda, aurrera segitzeko gogo hori bada bere horretan lorpen handi bat".

Edurne Elizondo

"Ikaragarria da komunikazioaren teknologiek izan duten eragina. Egia da mezuak zabaltzeko erabilgarriak izan daitezkeela, baina sare sozialen zurrunbilo horretan ere kapitalismoak fagotizatu egiten ditu

mugimenduak, hitzak edukiz husten ditu etekina ateratzeko eta, hala, aldarrikapen politiko ziren horiek eslogan apolitiko bilakatzen dira".

El Houssine Yagoubi Oudkhis

"Plantillaren gehiengoa pertsona etorkinak ziren enpresa hartako —Huerta de Peralta– jabeak gure ezjakintasunaz aprobetxatzen ziren mota guztietako gehiegikeriatarako (...) Horregatik, bereziki baloratzen dut langileen jabekuntzarako eta ahalduntzerako egin genuen formakuntza-lana, lorpen iraunkorra izan delako: gaurko langileek badakitelako zein diren euren eskubideak, eta iristen diren berriei azalduko dizkietelako".

Eñaut Elosegi Onandia

"Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoak ez du zerikusirik garaipenarekin. Izan ere, abiatzen ez dugun borroka oro galtzen dugu eta, alderantziz ere, egiten dugun borroka orok uzten du nolabaiteko aztarna, nahiz eta ez irabazi"

Izar Mendiguren

"Garai berriak dira: mundua aldatuz doa, mugimendua da gure egoera naturala edo berezkoa eta, ez badugu hori onartu nahi, gu geu gara arazoa. Alda ditzagun, beraz, praktikak eta estrategiak ere eta, lan horretan, has gaitezen gure burua eta gure helburuak berrikustetik. Nor gara? Nolako subjektua gara? Zer, nor eta nolakoak izan nahi dugu?"

Jeanine Beyrie

"Mundu bortitz batean bizi gara, baina ezin dugu militante tristeak izan! Nire bizitzan behintzat, momentu gogorrenetan ere, beti ukan dut irria, besteei esker; hor izan direlako, denok elkarrekin izan garelako. Eta guk gure seme-alabei ere babes hori eman behar diegu, maite ditugulako: umorea".

Joseba Alvarez Forcada

"Desobedientzia, konfrontazioa eta erresistentzia dira Herri Mugimenduen bitarteko nagusiak. Bistakoa da borroka

instituzionalak, berez, ez garamatzala inora. Ezinezkoa da gaurko markoa errespetuz gainditzea, mugak onartuz eta aldarrikapen zein eraldaketa puntual eta minimoak jarriz. Herri Mugimenduek ezin dute izan instituzioen zerbitzura dauden palankak".

Luis Fuentes Perez

"Mugimenduak benetan herrikoiak dira baldin eta askotariko filosofiatako kideen eta askotariko estrategien bilgune badira, berdinzaleak, eta baldin eta horiek guztiak behar eta helburu bakar baten bidean batzen badira: pertsonen bizi-baldintzak hobetzea. Herri Mugimenduek ezin dute ildo politikoei jarraiki jardun, eta ezin dute ideologia bakar batekin bat egin".

Mari Carmen Moreno Martínez

"Eskuin muturraren goraldia ukaezina da. Nolabait, tunel batean sartu gara eta, euren goraldiak iraun bitarte, eutsi egin behar dugu. Eta, batez ere, tuneletik atera bitarteko denbora aprobetxatu behar dugu hausnarketa egiteko. Nola eta nolako baloreekin atera nahi dugu garai ilun honetatik? Nola lortu dute eurek zu eta ni bezalako jendearekin konektatzea?"

Oihana Etxebarrieta Legrand

"Urte luzez aritu ginen proiektuari zeharo emanda. Gero talde-dinamikei aitortu genien garrantzia. Eta orain nor bere zilborrari begira ari gara (...) Autozaintzarako eta hausnarketarako beharrizan handia egon da, batez ere bisagra-belaunaldia garenon artean, baina gogoratu behar dugu eraldaketa soziala ez datorrela norbanakotik, baizik eta elkarrekikotasuna eskatzen duela".

Josefina *Txefi* Roco Sanfilippo

"Taldea zainduko duten mugimenduak behar ditugu, baina kolektibotasun hori homogeneizatu gabe (...) Konfiantza politikoa lortzeko gai diren bideak dira eraldatzaileenak. Egoak, mesfidantzak eta bentajismoak alde batera utzita, beste borroka batzuetan diharduten pertsonengan zure burua islatuta ikusten duzunean gertatzen da hori".

Txomin Poveda

“Ez dugu borrokatu behar borrokatze hutsagatik, baizik eta irabazteko. Eta ez dugu behar jendea denaren alde eta etengabe borrokan, baizik eta momentu jakin batzuetan borroka jakin batzuetara lotzen den jendea”.

Ulises Domech

“Sistemak birproduzitzen duen jendarte ereduaren kontra, metabolismo sozial berri bat eraikitzen ari gara Herri Mugimendutik: bizitzaren erreprodukzioan, komunitatean eta ongizatean oinarritutako jendartea. Horregatik, bizitzaren dimentsio ezberdinetan hedatu behar dugu kontrakultura; ohitura eta errutina berriak asmatzen segitu behar dugu”.


Unai Isasi

“Ezinbestekoa da ilusioa. Gauzak gogoz egin behar ditugu, eta ez bizi militantzia zama bezala. Hobe da inplikazio maila jaistea baina egiten duzun horretan gustura aritzea. Porrotak erlatibizatzen ikasi behar dugu, oso kristauak gara-eta, gure burua gehiegi zigortzen dugu”.

Zigor Merodio Larraona

“Gaur egun, batez ere, presiorako mekanismo gisa funtziona dezakete Herri Mugimenduek, hori da daukaten ahalmen garrantzitsuenetako bat. Kontraboterea izan daitezke, interes ekonomiko zehatzetatik datozen presioen aurrean kontrapisua egiteko: instituzioak estutzea, herrien interesen alde jardun dezaten”.

Horrenbestez eta laburbilduz, batetik, Talde Motorearen eta Jarraipen Batzordearen arteko eztabaidek nahiz horien ekarpenek eta, bestetik, militanteekin izandako elkarrizketek elikatu zuten liburu honetan aurrerago azalduko dugun Oinarri Teorikoa, Gogoeta-Ekintza prozesu osoaren abiapuntua.



4.2. Irekiera fasea

Oinarri Teorikoa sortuta, gaia Herri Mugimenduetako kideekin zuzenean jorratzeko unea iritsi zen. Militanteekin eduki dugun hartuemanaren aurreneko fasearen edo irekiera fasearen helburu behinena Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa baldintzatzen duten korapiloak identifikatzea izan zen. Eta, horretarako, beste behin, ahalik eta militante gehienen parte-hartze horizontala sustatu genuen apropos diseinaturiko eta horretara bideraturiko tailerren bitartez.

Tailerrak bost une/gunetan egin genituen eta, orotara, hainbat Herri Mugimendutako 90 bat kidek parte hartu zuten:

- 2025eko Euskal Herria Zuzenean Festibalaren muntaketan (Arberatze, ekainak 24)
- 2025eko Euskal Herria Zuzenean Festibalean (Arberatze, ekainak 29)
- 2025eko Hatortxu Rock Jaialdian (Lakuntza, uztailak 29)
- Zirika! Herri Gunean (Bilbon, 2025eko azaroaren 6an): tailer hau berezia izan zen, Argentinako Somos Tierra mugimenduko Caro Llorens kideak parte hartu zuelako eta hango testuinguruarekin lotuz egin genuelako
- Koadro Eskolan (Iruñean, 2025eko azaroaren 22an)

Kasu guztietan antzeko metodologia proposatu genuen. Saio bakoitzean taldekako dinamikak nahiz osokoak edo partekatzeak txandakatuta, honako pausoak jarraitu genituen:

- Herri Mugimenduen eraginkortasuna baldintzatzen duten makrofaktoreak eta eskala txikiagoko faktore neurgarriagoak ere identifikatu
- Kezka handiena eragiten duten horiek zerrendatu
- Lehenetsitako korapiloen definizioan sakondu: kausak, ezaugarriak eta konponbide posibleak

Irekiera fase horrek emandakoa, 41 korapilo garrantzitsuenen zerrenda eta horien definizioa alegia, Talde Motoreak sistematizatu zuen eta itxiera fasera pasatu zen hausnarketa egiten segitzeko lehengai gisa.

4.3. Itxiera fasea

Herri Mugimenduen eraginkortasuna baldintzatzen duten korapiloak desegingo dituzten tresna egokiak diseinatzea, edo behintzat irudikatzea, izan zen itxiera fasearen xedea.

Horretarako, lehenik eta behin, Talde Motoreak eta Jarraipen Batzorde Zabalak galbahe-lana egin zuten: irekiera fasetik sistematizatutako 41 korapiloetatik, bost lehenetsi zituzten.

Talde Motorearen zein Jarraipen Batzorde Zabalaren ordezkaritza batek 2026ko apirilean Argentinara egin zuen bidaia ere itxiera fasearen parte da. Gure ikuspegia Hegoalde Globalaren begiradarekin kontrastatzea eta hangoa gurera ekartzea zen helburua. Euskal Herrian eta bertako Herri Mugimenduetako kideen parte-hartze aktiboarekin identifikatutako korapiloen berri azaldu zuen hemengo ordezkaritzak Argentinan. Eta, beste norabidean, hango Herri Mugimenduetako kideak hango erronkez aritu ziren eta arazoei aurre egiteko darabiltzaten tresnak ere partekatu zituzten euskal ordezkaritzarekin.

Hala, Talde Motoreak eta Jarraipen Batzorde Zabalak lehenetsitako bost korapiloen zerrenda, Hegoalde Globaleko begiradarekin aberastuta, prest zegoen tailerren bigarren errondarako.

Orotara, bost gune eta unetan egin genituen itxiera faseko tailerrak:

- Hazparneko Xuriatea tabernan, 2026ko maiatzaren 12an
- Gernikako Astra espazioan, 2026ko ekainaren 4an

– Zumaiako Emakumeen Etxean, 2026ko uztailaren 7an
– Gasteizko Eva Forest Liburutopian, 2026ko uztailaren 10ean
– Bilboko AnHitza espazioan, 2026ko uztailaren 21ean

Saio horietan guztietan proposamen berdintsua luzatu genien parte-hartzaileei:

– Ideia-ekaitza: korapiloak askatzeko ideia praktiko eta errealista bila
– Ideia horietatik abiatuta, korapiloak askatzeko tresnak diseinatu: helburuak, nor eta nola jardun, tempoak

Itxiera fase honen baitan kokatzen dugu, baita ere, Gogoeta-Ekintza osoaren berri zabaltzea eta, batez ere, modu bateko zein besteko ekarpena egin duten Herri Mugimenduetako kideei bueltan itzultzea prozesuak emandako emaitza nagusiak. Hain zuzen hori da liburu honen helburua, baita Diagnosi Fasean eta Oinarri Teorikoa aberasteko asmoz egindako 19 elkarrizketen mamia biltzen duen liburuxkarena eta ikus-entzunezko erreportajearena ere. Azken hori Ahotsa.info-ko lagunekin egin dugu, ordubete inguruko iraupena du, lau kapituluk osatzen dute (Sarrera, Oinarri Teorikoa, Argentinako elkartrukea, eta Korapiloak eta Ondorioak) eta Creative Commons lizentziarekin zabaldu dugu.

5. OINARRI TEORIKOA

Gogoeta-Ekintza prozesu osorako lanketa-gai bateratuak adostea zen Oinarri Teorikoa sortzearen helburua. Horrenbestez, ez zen izan teorizazio ariketa bat, baizik eta aurrerantzeko pausoak ardazteko oinarriak ezartzeko ahalegina.

Eztabaida kolektibo horren garapenean, Talde Motoreak uneoro izan zuen oso gogoan kideen aniztasuna bermatzearen aldeko apustua, nahiz eta ez dugun beti lortu. Sozializazio eta ikuskera politikoari dagokionez, ibilbide militanteari dagokionez, adinari, generoari zein bizitokiari dagokionez... ezberdintasunak daude gure artean eta, ondorioz, zenbait gairen inguruan askotariko iritziak, batzuetan kontrajarriak, dauzkagu. Oinarri Teoriko hau, beraz, Euskal Herriko Herri Mugimenduen baitan existitzen diren eztabaida batzuen lekukotza, bateko zein besteko iritziak, jasotzeko saiakera ere bada.

5.1. Herri Mugimenduen izaera

Zapalkuntza-sistemen aurkako antolaketa eredu bat dira Herri Mugimenduak. Errealitate sozial eta politikoaren parte dira, baina instituzioetatik kanpo jarduten dute helburu eta praktika eraldatzaile nahiz emantzipatzaileekin, kontraboterea izateko anbizioa baitute.

Izaera herrikoia dute eta askotariko baliabide nahiz estrategiak darabiltzate euren iritziak, aldarrikapenak nahiz alternatibak zabaltzeko, betiere militantzian eta lan boluntarioan oinarrituta. Izan ere, auzolanean aritzen dira, hain justu pertsona burujabez osaturiko sarea eta komunitatea sendotzea delako Herri Mugimenduen xede garrantzitsuenetako bat. Partaide izatearen sentimendu indartsua sortu ohi dute kideengan.

Funtzionamendu autonomoa dute, horizontala eta asanblearioa, formalitate-maila baxukoa eta, kasu batzuetan, aldakor samarra. Baina badituzte printzipio eta balio komunak ere, tartean, elkarrenganako begirunea eta elkar zaintza, jakintzen kolektibizazioa, ingururumenaren babesa, inklusioa... eta abar.

Dena dela, definizio zurruna egitea, zaila ez ezik, desegokia izan daiteke, badirelako oso gertuko beste zenbait antolaketa eredu ere.

5.2. Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa eta horren neurketa

Herri Mugimenduek gizartean eragiteko duten gaitasunari esaten diogu eraginkortasun politikoa. Zapalkuntza-sistemak gainditu eta jendartea eraldatzea da Herri Mugimenduen azken helburua, baina bide horretan sortzen duten inpaktuak forma asko har ditzake, era askotan egin daiteke, beste horrenbeste esparrutan eta, beraz, modu askotan neur daiteke edo alde askotatik begira dakioke.

Continuum gisara uler dezakegu eraginkortasuna, baina une jakin bateko gertaera erradikal batek ere eragin dezake aldaketa. Proaktiboa edo ekimen handikoa izan daiteke, ala erreaktiboa. Hau da, Herri Mugimenduen beraien proposamenetatik sor daiteke eragin hori, ala testuinguru edo giro jakin bati erantzunez. Bestalde, aukeratutako borroka moldeek nabarmen baldintza dezakete eraginkortasuna eta, era berean, estrategia horrek Herri Mugimenduaren beraren izaerari, bere buruari ezarritako xedeei eta eragin eremu motari erantzun ohi dio.

Gainera, hori guztia ezin daiteke era isolatuan ulertu, besteak beste, testuinguru sozio-politikoaren araberakoa delako.

Gauzak horrela, ez da komeni eraginkortasun politikoa neurtzeko irizpide homogeneizatzaileak erabiltzea, ezta soilik helburuak erdiestearekin lotzea ere.

Aitzitik, dimentsio sorta baten elkarreraginak baldintzatzen du Herri Mugimenduek zapalkuntza-sistemak gainditzeko daukaten gaitasuna. Dimentsio horietan guztietan, ordea, botere faktikoek dute erabateko eragina. Horiek Herri Mugimenduek sustatu nahi dituzten aldaketen aurka eta statu quoa bere horretan mantentzearen alde eragiten aritzen dira, askotariko instituzioak euren mesedetan baliatuz.



5.2.1. Dimentsio pertsonala

Ez da oso ohikoa analisi politikoetan dimentsio politiko-biografikoari edo pertsonalari erreparatzea, baina oso garrantzitsua da. Herri Mugimenduek asko landu dute eta oso barneratuta dute "pertsonala den hori politikoa da" dioen ideia; norberaren bizipenak eta emozioak ere plano politikoaren parte dira. Are, seguru aski, emozioz egina dago pertsona bat militatzen hastera daraman bulkada indartsua; eraldatu nahi dugun sistemaren konplize garela konturatzeak dakarren uzkurdura eta ondoko autokritika ariketa, adibidez. Era berean, Herri Mugimenduetan militatzeak militanteen bizitzak eta subjektibitatea eralda ditzakete. Eta baita ere, noski, bestelako emozioak izan daitezke militantzia alboratzeko arrazoia: nekea, frustrazioa, haserrea. Horregatik guztiagatik, hasieraren zein amaieraren kausa izan daitezkeelako eta bien bitartean biografia politiko oso bat gorpuzten dutelako, Herri Mugimenduek eta horietan jarduteak sortzen dituzten sentsazioak eta bizipenak oso kontuan hartzekoak dira.

Dimentsio hau neurtzeko, mugimenduen ondorengo aspektuetan jar dezakegu arreta:

- Atxikimendua sortzeko gaitasuna
- Bizitza ereduak eta kontsumo ereduak aldatzeko gaitasuna
- Militanteak hezteko eta euren gaitasun kritikoak garatzeko gaitasuna

5.2.2. Dimentsio soziala

Herri Mugimenduen jardunak jendartearen pentsaeran ere eragin ditzake aldaketak, eta gizartean hegemonikoak diren ideia, balio zein praktika sozialak gainditzeko bidean ekarpena egin dezakete. Hori maila kuantitatiboan nahiz kualitatiboan neur daiteke: zenbat jendek egiten ditu bere Herri Mugimenduen ideia eta aldarrikapenak? Gizarteko zein sektoretakoek? Nola eragiten dute Herri Mugimenduek pertsona zaurgarrienengan? Eta elitearengan?

Edonola ere, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa maila sozialean gauzatzen ari denaren adierazleak ondorengoak izan daitezke:

- Mentalitatearen eta kontsumo ohituren aldaketa
- Mobilizazio kopuruaren eta horietara batzen den jende kopuruaren gorakada

– Hezkuntza ereduen aldaketa
– Komunitatearen eta atxikimenduaren sendotzea
– Bestelako mugimenduekin aliantzak sortzeko erraztasuna

Dimentsio sozialaz ari garelarik, ezin dugu ahaztu botere faktikoek jendartean duten zuzeneko inpaktua, eta zenbait ideia eta sinesmen zabaltzeko eta errotzeko dituzten baliabideak.

5.2.3. Mugimenduaren birsortze-dimentsioa

Herri Mugimenduek beren burua birsortzea ezinbesteko gaitasuna da mugimenduen beraien garapenerako eta, ondorioz, baita horien eraginkortasun politikoaren garapenerako ere. Indartzea, jendea erakartzea eta babesa jasotzea eraginkortasunaren edo arrakastaren seinale izan daitezke.

Dimentsio hau nagusiki adierazle kuantitatiboen bitartez neur daiteke:

– Kolektiboek duten militante kopurua
– Kolektiboek duten oinarri sozialaren tamaina
– Kopuru horien beheranzko edo goranzko joerak
– Kide berriak lortzeko gaitasuna, dauden kideak gehiago inplikatzeko gaitasuna

5.2.4. Dimentsio komunikatiboa

Dimentsio honek berebiziko garrantzia hartu du teknologiek gaur egun jendartearen pentsamoldeetan duten baldintzapen-gaitasun handiaren ondorioz. Komunikatzeko bitarteko nagusiak digitalak dira, hedabide digitalak eta sare sozialak barne, eta gainontzeko dimentsioetan eragin handia dute.

Teknokraziak bere mesedetan diseinatzen eta garatzen ditu plataforma, baliabide eta lanabes digital berriak, eta horietan bolo-bolo dabiltza, hain zuzen, sareak kontrolatzen dituzten botere faktikoen diskurtsoak. Azken batean, eskuinak mundu mailan duen gaitasun ekonomikoa baliatzen du era horretan jendearen beharrak eta pentsamendua birmoldatzeko, adibidez, herrialde bateko hauteskunde orokorren emaitza baldintzatzeraino.

Herri Mugimenduei dagokionez, batzuek sare sozialak erabiltzeari uko egin diote. Beste batzuk, aldiz, neurrian eta/edo era kontzientean

erabiltzearen aldeko dira, nahiz eta kasu gehienetan zailtasun handiak dituzten sare horietan beren lekua egiteko eta zabalpen maila egokia lortzeko.

Ondorengo aldagaiak har ditzakegu kontuan Herri Mugimenduek maila komunikatiboan duten eragina neurtzeko:

- Zenbat agertzen dira hedabideetan, plataformetan eta sare sozialetan
- Nolako euskarrietan agertzen dira: hegemonikoetan ala alternatiboetan
- Nola agertzen dira edo nolako tratamendua ematen diete batzuek eta besteek
- Berezko edo bestelako hedabideak sortzeko duten gaitasuna
- Edukiekin duten interakzio maila
- Mezua zabaltzeko gaitasuna
- Gizarteak Herri Mugimenduen proposamenei aitortzen dien sinesgarritasuna

5.2.5. Dimentsio politiko-instituzionala

Herri Mugimenduek sistema politikoaren instituzioen eta euren jardunaren gainean eduki dezakete eragina, azken horiek hartzen dituzten erabakiak edota jorratzen dituzten gaiak baldintzatzeko gaitasuna izan dezakete, alegia.

Hurrengo adierazleak baliagarriak izan daitezke Herri Mugimenduek dimentsio politiko-instituzionalean duten eraginkortasuna neurtzeko. Herri Mugimenduen aldarrikapenekin bat egiten badute, edo hurbiltzen badira behintzat, eraginkortasun-seinale izan daitezke:

- Agenda: instituzioek eta alderdi politikoek zein gai aipatzen eta lantzen duten, eta zenbateko maiztasunarekin
- Aurrekontuak, legeak, politika publikoak eta horien koherentzia
- Alderdi politikoen programak eta diskurtsoak, adierazpen instituzionalak
- Alderdi politikoen emaitza elektoralak, herritarren bozken norabidea
- Abstentzio aktiboaren bilakaera

– Enpresa eta lobbyen indarra nahiz posizioa
– Herritarren partaidetza

Bestalde, kontuan hartu behar da badirela instituzioetan parte hartu nahi ez duten Herri Mugimenduak, horietan eragiteko asmorik ez dutenak, eta baita instituzioen boterea apaldu edota erakundeak desagerrarazi nahi dituztenak ere.

Edozein kasutan, gaur egungo estatu gehienetan, botere instituzionala duten alderdien gainetik, egiazko erabakigarritasuna duten aktoreak bestelakoak dira: botere faktikoak. Banketxe eta enpresa handiek, Elizak, indar militarrek... botereguneetan duten eragina ikaragarria da eta gobernuen edota gobernu-kideen erabakiak baldintza ditzakete.

5.3. Testuinguru politiko berria Euskal Herrian

Tokiko nahiz mundu mailako sakoneko zenbait aldaketek testuinguru soziopolitiko berria marraztu dute Euskal Herrian.

5.3.1. Faktore globalak

Geurean antzematen ari garen aldaketak mundu mailako errealitate berrien oihartzunak dira neurri handi batean.

Globalizazioa sendotzen ari den neurri berean indartzen ari da egitura supranazionalen boterea eta, aldiz, geroz eta mugatuagoa da nazio-estatuen autonomia; azken horiek elkarren artean geroz eta mendekoagoak dira gainera. Sistema politiko demokratikoek zilegitasuna galdu dute, demokrazia galera nabarmena bizitzen ari gara. Bestalde, globalizazioak homogeneizazio kulturala ere ekarri du eta tokiko ohiturak ahuldu dira. Botere ekonomikoak hiri handietan metatzeko joera gora doa eta baita nazioarteko migrazio fluxuak zein Euskal Herri barrukoak ere.

Teknologien hedapenak eszenatoki berriak sortu ditu baina, batez ere, horien hegemonizazioaren lekuko izaten ari gara: ezinbesteko bihurtu dira gure bizitzetan. Ageriko abantailak dakartzate baina arazo-iturri ere badira. Esate baterako, kontrol sozialerako tresna berriak ekarri dituzte eta, nolabait, errepresio moldeak aldatu dira.

Sare sozialen fenomenoaren eskutik iritsi da gehiegizko informazioa ere. Lehen hedabide bakan batzuk genituen informazio-iturri gisa,

boterearen menpekoak. Orain, aldiz, nolabaiteko demokratizazioa eman da, hedabide alternatibo gehiago dago... ala, begitazioa sinetsi dugu? Ustezko demokratizazio hori ez al da izango teknokraziak gu askeago sentiarazteko zabaltzen duen zirrikitu neurtu eta mugatua? Algoritmoak boteredunen kontrolpeko profilak eta edukiak nabarmentzen ditu. Sasi-demokratizazio horrek badu beste arrisku bat: edonor izan daiteke informatzaile, hartzailegoak edonori aitor diezaioke gaitasun hori. Infoxikazioa eta desinformazioa bermatuta daude.

Neoliberalismoak bere hegemonia indartu du eta, hala, geroz eta nabariagoa da kapitalismoari aurre egiteko alternatiba indartsuen falta. Indibidualismoa nagusitzen ari da, kolektiboen atomizazioa eta baita prekarizazio- eta proletarizazio-prozesuak ere. Turbokapitalismoak munduko hiritarren bizitza erritmoak azeleratu ditu eta, tempoekin batera, ohiturak ere aldarazi ditu. Covid-19aren pandemiak, bestalde, areagotu egin zituen jendarte molde berri honen ezaugarrietako asko.

Ordena geopolitikoari dagokionez, geroz eta mundu multipolarrago baterantz goazela diote adierazle guztiek. Amerikako Estatu Batuak eta Europar Batasuna buru zituen mendebaldeko blokearen krisialdia batetik, eta Errusiaren nahiz Txinaren aurrerapausoak bestetik, ezagutzen genituen botere harremanak errotik aldatzen ari dira.

Bloke sozialistaren porrotaren eta klase-gatazkaren lausotzearen ondorioz, nazioarteko ezkerraren sektore batek paradigma berri bati zabaldu dizkio ateak eta, iraultzaren bidea alboratuta, erreformaren aldeko apustua nagusitu da haien artean. Aldiz, teoria askatzaileek krisi anizkoitzean eta intersekzionalitatean ipini dute fokua, eta horrek borroka anitzen loratzea ahalbidetu du. Sare sozialek, gainera, nazioarteko aliantzak indartu dituzte eta, hala, 'nazioarteko ezker berria' sortu da.

Aurrez aurre, ordea, eskuin muturraren oldarraldi berria ere zabaltzen ari da. Sare sozialak ideia erreakzionarioen hedapenerako kanal ezin hobea dira eta, besteak beste, segurtasunaren paradigma berria gizarteratzeko eta militarizazioaren onespen sozialerako tresna izan dira. Ez da makala, bestalde, mainstream kultur sorkuntzak, bereziki musikak, balio hegemonikoen zabalpenean izan duen papera.

5.3.2. Tokiko faktoreak

Gure herriari ere eragiten dioten faktore globalei gehitu behar zaizkie tokikoak, bertako aldagaiak. Euskadi Ta Askatasunak 2011. urtean jarduera armatua baztertu eta 2018an disoluzioa iragarri zuenetik, ziklo berria zabaldu zen eta egunerokotasun politikoa zeharo aldatu da kalean nahiz instituzioetan. Orokorrean, tentsio maila jaitsi da eta lehen bigarren mailan zeuden borrokak, aldarrikapenak eta militatzeko moduak lekua hartzen ari dira.

Ziklo politiko berriak nazio gatazkaren lausotzea eta errepresio moldeen bilakaera ekarri du, eta horrek Herri Mugimenduen eta askotariko borroken intentsitatea apaldu du, baita herritarrek horietan zuten parte-hartze maila ere. Masa militantea orain lehen baino txikiagoa da. Izan ere, errepresioa murriztearekin batera apaldu egin da horren kontrako erantzuna eta, gainera, zenbait borroka moldek jada ez dute lehen zuten babesa edo ez dute eragiten lehengo atxikimendu sentimendua. Baina, aldi berean, talde berriak agertu eta indartu dira, eta polarizazio maila areagotu egin da Euskal Herriko Herri Mugimenduen ekosisteman. Zenbait kolektibo, esate baterako, Ezker Abertzale instituzionalarekiko kritikoak dira eta eszisioak ere izan dira. Honek guztiak gure herriko panorama politikoa aberastu du, anitzagoa da.

Aldagai demografikoari erreferentzia egitea garrantzitsua da. Izan ere, piramide demografikoan izaten ari diren aldaketak tarteko, militanteen batez besteko adinak gora egin du azken hamarkadetan.

Eraginkortasunari dagokionez, azpimarragarria da zenbat eta nola indartu den Mugimendu (Trans)Feminista. Mobilizazio masiboak lortzen ditu eta, beste mugimendu batzuek ez bezala, kontzientziazioan eta militantzian aurrera egin du.

Paraleloan, eskuin muturraren edo olatu erreakzionarioaren gorakada nabaritzen ari gara: euskararen aurkako oldarraldia, eraso transfoboak eta poliziaren jokaera arrazistak, kasu. Bestalde, euskal herritar gehienen ahalmen ekonomikoak gora egin duen heinean eta desindustrializazioa gauzatu ahala, apaldu egin da klase-kontzientzia, langileborroka eta, oro har, politikaren eta borrokaren inguruko sentimendu erromantikoa. Hala ere, gaur-gaurkoz eta Europako errealitatearekin alderatuta, Euskal Herriko Herri Mugimenduek badute berezko izaera.

Lehia elektoralean, ezker independentista ahaldundu egin da. Hori bereziki agerikoa izan zen Euskal Autonomi Erkidegoko azken udalzein foru-hauteskundeetan, baita Eusko Legebiltzarrerako bozketan ere. Euskal Herria Bildu alderdiak geroz eta babes handiagoa du, Eusko Alderdi Jeltzalearen kaltetan. Azken hau, baina, Alderdi Sozialistarekin koalizioak osatuz (Jaurlaritzan, hiru Foru Aldundietan, hiru hiriburuetako Udaletan) bere agintea blindatzeko ahaleginean dabil.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Euskal Herria Bai ezkerreko mugimendu abertzaleak garaipen esanguratsuak lortu ditu hautetsontzietan, eta aurten Euskal Hiri Elkargoaren lehendakaritza eskuratu dute. Izaera bereziko lurralde kolektibitate bat da Elkargoa, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeen perimetroa biltzen duen instituzio bakarra. Esparru elektoraletik at, oso garrantzitsua da Laborantza Ganbarak Ipar Euskal Herriaren burujabetzaren bidean duen papera. Tokiko laborantza herrikoi eta iraunkorraren alde lan egiten du, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa hartuta eragin eremutzat, laborantza eta laborarien zainketan oinarrituta.

Nafarroa Garaian, Unión del Pueblo Navarro alderdiaren urteetako hegemoniaren ostean, 'aldaketaren blokea' deritzon alderdien multzoak agintea eskuratu zuen 2015ean. Uxue Barkos (Geroa Bai) buru zuen gobernua izan zen ziko berri horren lehendabizikoa, Euskal Herria Bildu eta Podemos nahiz Izquierda-Ezkerra alderdien babesarekin. 2019az geroztik, ordea, María Chivite (Alderdi Sozialista) da gobernuburua, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin alderdien bozkei esker. Aitzitik, lehenengo indar munizipalista Euskal Herria Bildu da Nafarroa Garaian.

5.4. Herri Mugimenduen ekimena eta eraginkortasuna baldintzatzen dituzten faktoreak

Deskribatu dugun panorama soziopolitiko berriak Euskal Herriko Herri Mugimenduen ekiteko gaitasuna eta eraginkortasun politikoa zenbat eta nola baldintzatzen duen arakatu aurretik, komeni da argi izatea zertan ipini behar dugun arreta. Hau da, faktore baldintzatzaileak identifikatu behar ditugu.

Herri Mugimenduen ekimena aktibatu edo desaktibatu dezaketen faktoreak ondorengoak dira, besteak beste:

- Klase politikoarekiko haserrea eta bestelako emozioak
- Egoera ekonomikoa
- Jazarpen, gatazka eta diktadura testuinguruak
- Tentsio eta kontzientzia soziopolitikoa
- Ideia zehatz zenbaiten hedapena, adibidez: euskal independentismoa
- Atxikimendua
- Aniztasuna
- Bidegabekeria sozialak
- Lurrarekiko kontzientzia
- Globalizazio eza / Globalizazioa
- Muturreko egoerak

Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa baldintzatzen duten faktoreek, bestalde, zerikusi handiagoa dute mugimenduaren beraren izaerarekin:

- Konfrontazioa du helburu (erreaktiboa) ala bere kabuz eratu da (proaktiboa)
- Gizartetik beretik eragiten du ala komunitate alternatiboetatik
- Instituzioetan eragin nahi du, horiek alde batera utzita ala horiek erauzteko
- Nolako harremana du alderdi politikoekin
- Nolako harremana du beste mugimenduekin
- Misto da ala ez-mistoa, askotariko alorretan: hizkuntza, generoa, sexualitatea, arraza...
- Zein dira bere lehentasunak: mobilizazioak, auzo/herrien eraldaketa, helburu zehatz txikiak, moldeak, zintzotasuna, apaltasuna, koherentzia, jendartea heztea, sistema iraultzea...
- Sare sozialetan aritzen da ala ez, zeinetan, nola eta zertarako

5.5. Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa ziklo berrian

Euskal Herrian azken hamarkadetan zabaldu den ziklo berriak eta mundu mailako eszenatokia aldarazi duten faktoreek eragina dute esparru politiko eta sozial gehienetan. Eta, Herri Mugimenduak

horien isla direnez, mugimenduen izaera, eragiteko moduak eta gaitasunak ere aldatu dira. Baina, nola?

Zaila eta, ziur aski, desegokia da galdera horri modu kategorikoan erantzutea. Izan ere, ziklo berriak ekarri dituen berritasunen artean, badira Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa areagotzeko onuragarriak izan daitezkeenak, baina baita eragileen ekimen ahalmena zapuztu dezaketenak ere. Aukeren irakurketa egin dezakegu, ala mehatxuena. Ala, akaso, zirkunstantzia berri guztiak dira aldebiko txanponak eta, beraz, begirada zorroztea, aldeko haizeak probestea eta kontrakoetatik ahalik eta gehien aldentzea izango da giltza, gure esentzia zein den inoiz ahaztu gabe.

Gogoeta-Ekintza prozesu honek iraun duen bi urteetan, hainbatetan izan ditugu aukera eta arrisku berriak hizpide. Eta konturatu gara desadostasuna edo aldebiko irakurketa bereziki markatua dela gai jakin batzuen bueltan. Begira:

Intersekzionalitatea

Batzuen aburuz, askotariko zapalkuntzen kontzientzia izateak, horien kausak eta ondorioak ezagutzeak eta pertsona edo kolektibo bakar baten errealitatean zapalkuntza geruza horiek guztiak nola gurutzatzen diren ulertzeak asko aberasten du Herri Mugimenduen markoa. Eta marko aberatsago horrek, aldi berean, indartu egiten du Herri Mugimenduek jendartea interpelatzeko eta aldaketa eragiteko duten gaitasuna.

Beste batzuek, aldiz, Herri Mugimendu trinkoagoak aldarrikatzen dituzte. Horien iritziz, borroka zentral bat edukitzea (nazioa, klase-borroka...) lagungarria da subjektuaren izaera definitzeko eta ekimenak kanalizatzeko. Aitzitik, indefinizioak edo kausa askoren alde aritzeak Herri Mugimenduen eraginkortasuna kaltetu dezake.

Teknologia eta sare sozialak

Mehatxu gisa ikusten dituztenentzat, teknologia eta sare sozialak errepresiorako eta kontrol sozialerako tresna berriak dira. Eragileen arteko saretzea eten eta mikromunduak sortzen dituzte, indibidualismoa hauspotzen dute eta jarrera pasiboak sustatzen dituzte. Jendartean duten pisua jada kaltegarria da zenbaiten iritziz, eta

militanteen jardunean edo borroka moldeetan txertatuz gero, Herri Mugimenduei gaitz egingo liekete.

Beste batzuen iritziz, Herri Mugimenduek ezin dute aurrera egin teknologiei eta sare sozialei ezikusia eginez. Errealitate berriaren parte dira, orain arte ezagutzen ez genituen bitartekoak eskaintzen dituzte eta militanteei dagokie horiek Herri Mugimenduen interesen alde erabiltzen asmatzea.

Mobilizazioen agenda internazionala

Maila globaleko deialdiek Herri Mugimenduen saretzea elikatzen dutela uste dute batzuek, eta agenda internazional horrek nolabaiteko babesa ematen diela eragin esparru mugatuagoa duten ekimenei, azken horien eraginkortasuna areagotuz.

Beste batzuek, haatik, pentsatzen dute horrek guztiak izaera lokala ahultzen duela, eta dagokion tokian ongi sustraitu gabeko Herri Mugimenduak ez direla eraginkorrak.

Instituzionalizazioa

Orain arte instituzioetatik kanpo egon diren mugimenduetako kideek ziklo politiko berri honetan erakundeetan parte hartzeak mugimendu horien aldarriak egikaritzeko atea zabal dezakeela irizten diote batzuek. Instituzioetan sartzeak, beraz, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa indartu dezake.

Baina beste batzuek justu kontrako aburua dute: instituzioei begira eta horietan boterea irabaztearekin arduratuta jarduteak gizarte eraldaketatik urrundu gaitzake. Alegia, aldaketa Herri Mugimenduetatik, jendartea aktibatzetik, behetik, herritik eta kaletik helduko dela sinesten dute, eta ez alderdi politikoen arteko itunetatik.

Tentsio maila

Gatazkaren lausotzearekin batera, tentsioa eta erresistentziak apaltzearekin batera eta, batez ere, borroka molde bigunagoen agerpena tarteko, Herri Mugimenduak orain gizartearen sektore zabalagoengana iristen direla eta anitzagoak direla uste dute batzuek. Bada, beraz, erradikaltasunaren galeran aukera berriak ikusten dituenik.

Beste batzuentzat, ordea, erradikaltasunik gabe ez da posible sistema errotik eraldatzea eta, beraz, horri uko egiteak sistemaren jokoan sartzea inplikatzen du. Horrez gain, errealitate berriak militanteen konpromisoa itzali duela eta Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa kaltetu duela sinesten dute. Erradikaltasun falta, beraz, horien aburuz, oztopoa da iraultzaren bidean.

6. HERRI MUGIMENDUEN ERAGINKORTASUN POLITIKOA MUGATZEN DUTEN KORAPILOAK

Gogoeta-Ekintza prozesuaren Oinarri Teorikoa finkatuta, hurrengo urratsa pragmatikoagoa izan zen: abagune soziopolitiko berrian Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa mugatzen eta oztopatzen duten korapiloak identifikatzea. Hain justu horixe izan zen irekiera faseko tailerren helburua.

Euskal Herriko lau herritan 90 bat militanterekin egindako bost saioetatik 41 korapilo biltzen dituen zerrenda osatu genuen. Ohartarazpen bat egin nahi dugu jarraian datozen esaldiei buruz. Jakin badakigu batzuk orokor samarrak direla beharbada, edo kontzeptu asko zaku bakar batean sartzen dituztela akaso, beste batzuek agian erreferentzia zuzenagoa egiten diete korapiloen kausei korapiloei beraiei baino... baina irekiera faseko tailerretan parte hartu zuten lagunek esandakoa bere horretan jasotzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu genuen, eta horixe bera egingo dugu. Hara:

- Herri Mugimenduentzako espazio (fisiko) eroso eta erakargarrien falta
- Jende berri edota ez-politizatua erakartzeko estrategia eraginkorren falta
- Autoestimu iraultzailearen falta: konfiantza eza eta nork bere burua zigortzea
- Zaintza kolektiboa erdigunean jartzeko ezintasuna
- Desadostasuna(k) kudeatzeko zailtasuna
- Herri Mugimenduaren subjektuaren inguruko kontzientzia falta
- Askotariko militantzia eredu berriak kudeatzeko zailtasuna
- Gazteengana heltzeko zailtasuna

- Alderdi edo ildo politiko zehatzekiko autonomia falta
- Burujabetza ekonomiko falta
- Eraldaketa politikorako indarra instituzioetan zentratzearen ondorioak
- Sektarismoa
- Militanteen koherentzia falta
- Koherentziaren fiskalizazioa
- Maitasuna erdigunean jartzeko zailtasuna
- Herri Mugimenduaren estrategia orokor baten falta
- Formakuntza politikoaren eta horretarako espazioen falta
- Iraganeko formulak errepikatzeko joera: sorkuntza edo irudimen falta
- Erakargarritasun falta
- Herri Mugimenduaren beharraren eta garrantziaren gaineko kontzientzia falta
- Autokritika militantearen falta: norberarena eta kolektiboena
- Errepresioari aurre egiteko tresnen eta eragileen falta
- Gorroto eta/edo haserrearen narratibaren falta
- Mistikaren, emozioak lantzearen, errelatoaren, epikaren, identitatearen... falta
- aiak bai, borroka ez? Aisialditik haragoko gaietan engaiatzeko zailtasuna
- Adin ezberdinen arteko oreka edo uztartze falta
- Memoria, kultura eta identitate borrokalariaren falta
- Komunikazio proiektu erakargarriak sortzeko eta sustengatzeko ezintasuna
- Sareetan era eraginkor batean jarduteko ezintasuna
- Ahoz ahoko komunikaziorako zailtasuna
- Ilusioa kutsatzeko ezintasuna
- Intersekzionalitatea eta disidentziak kudeatzeko zailtasuna
- Egitura hierarkikoen ondorio negatiboak
- Egitura sendo eta eraginkorrak mantentzeko ezintasuna
- Arduren banaketa orekatuaren falta
- Herri Mugimenduaren agenda partekatuaren falta
- Lehentasunak markatzeko zailtasuna
- Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko arrakala

– Plangintza errealistak egiteko zailtasuna
– Militantzia ereduen bilakaeraren ondorio negatiboak
– Herrien eta hirien arteko arrakala

41 horietatik, alta, tailerren beraien metodologiaren baitako ariketa gisara, lehentasunezkoak edo premiazkoenak eta, baita ere, egingarrienak nabarmendu zituzten parte-hartzaileek. Talde Motoreak zein Jarraipen Batzorde Zabalak galbahe-lana egin ostean eta Argentinako elkartruketik ekarritako Hegoalde Globalaren begirada ere txertatuta,bada, *'Herri Mugimendua(k), eraginkorrak ote?'* hausnarketa-prozesu kolektiboak bost korapilo nagusi identifikatu zituen. Puntu honetan beste ohartarazpen bat egin nahi dugu. Izan ere, bada gogoetetan behin eta berriz agertu den seigarren elementu garrantzitsu bat: sormen falta edo sormen beharra. Hasiera batean korapilo gisa hauteman bagenuen ere, uste dugu beste bostak zeharkatzen dituen afera dela, arazo zein aterabide modura gainera, eta, horrenbestez, izaera transbertsala aitortzea erabaki dugu, bere horretan korapilo gisara jorratu ordez.

6.1. Formakuntza falta

Herri Mugimendu bat koherentea eta eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da militanteak heztea. Herri Mugimenduek ahalik eta gaitasun gehien (autokritikarako gaitasuna barne) dauzkaten kideak behar dituzte. Militantzia eredua nabarmen aldatu da azken urteetan baina, formakuntzari dagokionez, iraganeko bitartekoak eta manerak mantentzen dira oraindik. Horretan badago, beraz, konpas galtze bat.

Baina, zertaz ari gara formakuntza politikoa aipatzen dugunean? Bizi dugun errealitatea eta testuinguru politikoa begirada kritikotik aztertu eta bertan eragitea ahalbidetzen duen jakintza teoriko eta praktikoen multzoa da formakuntza politikoa. Baina, horretarako espazioez, edukiez, eragileez, formula berriak bilatzeko sormenaz, tresnez eta zabalpenerako komunikazio estrategiez ere ari gara, horiek guztiak ere beharrezkoak baitira.

Korapilo honetan sakonduz, formakuntza politiko eraginkorraren faltaren atzean dauden faktoreak edo kausak, batzuk bederen, aletu ditugu.

6.1.1. Formakuntza era integralean ulertzeko ezintasunak

Formakuntza prozesuak hausnarketa-saio trinkoekin lotzeko joera nagusitzen da oraindik Herri Mugimenduen artean. Formakuntzak, baina, prozesu integrala eta zeharkakoa behar du izan, eragileen eguneroko praktikan txertatua. Ulerkera mugatu horrek kolektibo eta ekintzaile asko urruntzen ditu formakuntza politikoaren aldeko apustutik. Aldiz, heziketa hori askoz aberatsagoa izango da zerbait bizia eta hibridoa bezala irudikatuz gero: anitza, elkartrukean eta jakintza kolektiboan oinarritua, teorikoa baina batez ere praktikoa, sortzailea, eraikitzailea, berritzailea, transfeminista, dekoloniala, antiarrazista, burujabea, jakinmin osasuntsuaren grinak bultzatua eta, batez ere, kritikoa, nork bere burua eta bere teoriak berrikustera gonbidatzen duena.

6.1.2. Denbora falta eta bestelako lehentasunak

Maiz, zaintzen aferarekin edota metodologia parte-hartzaileekin gertatu ohi den bezalaxe, premiazkoa den horrek lekua eta indarra kentzen dio garrantzitsua den beste horri. Heziketa aproposak planifikazioa eta denbora galdatzen ditu, noski. Eta eragileen ohiko dinamika horretarako geldiaraztea denbora-galtze bezala interpretatzen dute zenbaitek, praktika politikoa eteten duen ariketa antzua bezala ikusten dute, eta alboratu egiten dute. Autoformakuntzarekin ere antzeko zerbait gertatzen da: indibidualismoa eta berehalakotasuna nagusi diren garai honetan, militanteek geroz eta gutxiagotan egiten dute heziketa politikoaren aldeko hautu kontzientea. Bizitzen prekarizazioak ere badu honetan zerikusia: denbora libre apurra horretan inbertitzea sekulako erronka da.

6.1.3. Eztabaida kritikoa sustatzen duten espazioen falta

Euskal Herriko Herri Mugimenduez ari garenean, ildo politikoen araberako zatiketak joko-zelaia zeharo baldintzatzen du, baita militanteen formakuntza politikorako prozesuak mugatu ere. Oinarrizko premisak kritikotasunak eta berrikuspenak beharko lukete izan, baina, sarri, autoberrespenerako eta doktrinamendurako baino ez da erabiltzen formakuntza. Hau da, maiz, nork bere ildo politikoa berresteko eta besteen aurkako ofentsiba hanpatzeko erabiltzen dira (g)une hauek, eta ez ikasketarako.

6.1.4. Gehiegizko informazioa

Formakuntzarako bitartekoen bila Internetera eta sare sozialetara jotzen dutenean, Herri Mugimenduek edukiz beteriko ozeano infinitu bat topatzen dute. Galbaherik gabe, horretarako tresna egokirik gabe, oso zaila edo ezinezkoa da bakoitzaren beharretara egokitzen den materiala topatzea. Algoritmoak, gainera, beste edukien itzalpean uzten ditu Herri Mugimenduek eta euskaraz sorturiko edukiak eta, ondorioz, nekez agertzen dira bilaketa-emaitzen artean.

6.1.5. Formakuntzarako bitartekoen saretze eza

Beste kolektiboek ekoitzitako materialetara iristea eta, hala, Herri Mugimenduen artean ezagutza elkartrukea egitea oso zaila da bitarteko horiek denak oso barreiatuta daudelako Sarean eta sare sozialetan, eragileka atomizatuta. Alegia, ez dago mugimendu askatzaileek sorturiko baliabideen artean bilaketa egiteko erreferentziazko gune bateraturik.

6.2. Zuritasuna

Askotariko izaera aldarrikatu arren, Euskal Herriko Herri Mugimendu askotan militatzen duten pertsonak zuriak, dokumentudunak eta ahalmen ekonomiko ertain edo altukoak dira nagusiki. Badira bestelako jatorria duten eta bestelako egoerak bizi dituzten herritar zaurgarriagoz osaturiko eragileak ere baina, oro har, ez dago elkarlan handirik batzuen eta besteen artean.

Tarteka, kuoten logikari jarraiki, Herri Mugimendu zurietatik pertsona arrazializatuei parte-hartze zehatzak eskatzen zaizkie baina, gainerakoan, nekez galdetzen zaie euren beharrez, nahiez, gogoez, eta ez zaie laguntzarik eskaintzen ezta elkarlana proposatzen ere. Hitz batez, Euskal Herriko Herri Mugimenduen ekimenetan pertsona arrazializatuek eta euren aldarrikapenek ez dute presentziarik.

Hutsune horren atzeko arrazoiak identifikatzea lehentasunezkoa da. Zerikusia ote dute Herri Mugimenduetan nagusi diren erritmoek, hizkuntzek eta parte-hartze moldeek, adibidez?

Justizia sozialaren aldeko eragileak direnez gero, Herri Mugimenduek pertsona zaurgarrienen inklusioa bilatu eta ahalbidetu beharko lukete. Baina, egungo errealitatea zein den kontuan izanda,

zuritasuna iraultzea ez da nolanahiko prozesua izango eta zalantzak hasiera-hasieratik sor daitezke. Izan ere, alde batetik, kontraesankorra liteke gai honi buruz soilik zurien artean hitz egitea eta eztabaidatzea. Baina, era berean, arrazakeriarekin bukatzeko ardura pertsona zuriena da. Bestalde, bada oraindik behar bezala landu gabeko dikotomia bat: Euskal Herriko Herri Mugimenduetan diharduten pertsonak zapaldutako herri bateko kide dira baina, aldi berean, mendebaldeko Europakoak eta zuriak. Zapaltzaile rol hori onartzea kosta egiten da, ordea, eta asko dago oraindik hausnartzeko pribilegio zuriei buruz.

Azkenik, eta jasota gera dadin: gai honi buruzko eztabaidetan, terminologia bera gatazkatsua da eta ez dago erabateko batasunik 'arrazializatu' hitza erabiltzearen inguruan. Batzuen aburuz egokia da, hain justu 'arrazializatu' kontzeptuak inplizituki adierazten duelako pertsona zuriek beste guztiei arraza jakin bat ezarri izanaren kritika, naturala edo normala, normatiboa litekeen horretatik (zuritik) beste guztia, bestetasuna, bereizteko. Beste batzuek, aldiz, ez dute ontzat ematen eta proposatzen dute beste herrialde batzuetan darabiltzaten kontzeptuak aintzat hartu eta/edo geureak asmatu behar ditugula Europan eta Euskal Herrian. Adibidez, Amerikako Estatu Batuetan BIPOC berba erabiltzen dute: Black, Indigenous and People of Colour.

6.3. Militantzia ereduen bilakaera eta autoestimu iraultzailearen galera


Azken urteotan jendartea eta testuinguru soziopolitikoa moldatu duten faktore berberek aldarazi dute militatzeko modua edo eredua ere. Neoliberalismoa hegemonizatu eta indibidualismoa nagusitzen ari den honetan, gatazka armatua lausotu eta teknologiek bizitza-esparru guztietan presentzia duten garaiotan, iraganeko logika militanteek ez dute lehen bezala funtzionatzen.

Gauza askotan onera egin du Herri Mugimenduen funtzionamenduak: feminismoak luzaroan aldarrikatu duen zaintza eta beste kontzeptu batzuk, esaterako, barneratzen eta erdigunean jartzen hasi dira; protokolo zenbait zehaztu dira, eta parte-hartze maila ezberdinak onartu dira baita ere.

6.3.1. ‘Ni’-a lehentasun gisa eta konpromiso maila ezberdinen uztartzea

Bilakaera horretan, baina, hainbat alde negatibo identifikatu dituzte Herri Mugimenduetako kideek. Nabarmenetako bat da, beharbada, militantziarako prestutasuna apaldu dela, konpromisoa likidoagoa dela eta ‘ni’-a jarri dela proiektuaren zein kolektiboaren gainetik. Horrek haustura handia ekarri du hamarkadetan Euskal Herriko eragileen baitan nagusitu izan den ’24 orduko’ militantzia ereduaren aurrean. Testuinguru politikoaren fase hartan, tentsio maila altuak eta errepresio bortitzak eraman zuten jende asko konpromiso militantera.

Ziklo politikoa aldatu eta urte gutxira, mundu mailako eta Euskal Herri mailako zenbait faktore tarteko, zaintza hirukoitzaren kontzeptua agertu zen. Horren arabera, proiektu militante jasangarri batek ‘Ni’-a, ‘Taldea’ eta ‘Proiektua’ modu parekatuan zaindu behar ditu arrakasta lortzeko.



Teorizazio horrek militantzia ulertzeko modu berri bat zabaldu zuen eta ekarpen handia egin zion Herri Mugimenduetako militantziaren egunerokoari, bizigarriagoa bilakatu zuelako. Urteetan, azken hamarkadan nagusiki, eskema horrek orekari eusteko balio izan du; militantzia, konpromisoa eta zaintza era egokian uztartzeko baliabide inportantea izan da.

Gaur egun, ordea, Herri Mugimenduetan diharduten kideek, edo gehiengoak bederen, ez dute borroka ulertzen, ezta bizitzen ere, baldintzarik gabeko lehentasun gisa. Baina, ‘Ni-Taldea-Proiektua’ erako planteamendu orekatuei atxiki ordez, badirudi norbanakoaren

nagusitasunerantz iragaten ari garela, 'ni' erpina pisu handiagoa hartzen ari dela edo hori dela behintzat gailentzen ari den teoria: norbere buruaren zaintza lehenengo.

Nolabait, borroka armatuaren amaierak eta, horrekin batera, tentsio mailaren nahiz errepresioaren apaltzeak ekarri du joera globalen aurrean Euskal Herrian genuen euste-horma eraistea. Hala, gaur egun, munduko beste tokietan nagusitzen diren korronteen eragina nabari dugu geurean ere.

Norberaren ongizatearen aldeko argudioak geroz eta ohikoagoak dira proiektuari eta taldeari nolabaiteko kaltea eragin arren hartzen diren erabakiak edo jarrerak justifikatzeko: azken orduko huts egiteak, ardurak ez betetzea, konpromisoak nekez hartzea... 'Ni'-a zaintzeko beharra argudiatuta, beraz, proiektuaren eta taldearen zaintza alboratzen dira. Bada hor nonbait zainketaren ulerkera partziala?

Tresna teknologikoen hedapenak, gainera, desoreka hori areagotu du. Aktibismoa etxetik eta kanal digitalen bitartez egiteko aukerak, bileretan parte hartu gabe iritzia emateak eta halakoek, sarri, arrakalak irekitzen dituzte kideen arteko harremanean. Sare sozialak eta baliabide telematikoak erreminta interesgarriak izan daitezkeen arren, eragin negatiboa eduki dezakete taldearen eta proiektuaren zaintzan.

Ziklo politiko berriaren irekierak konpromiso maila ezberdinen onarpena ekarri du kolektibo militante gehienetara. Aldaketa hori positiboa da bere horretan, baina ukaezina da prestasun ezberdin horiek guztiak kudeatzea ez dela samurra eta arazoak agertu direla talde-kohesioan nahiz barne-bizitzan. Militanteak azkar erretzen direla ere antzeman dute Herri Mugimendu gehienek; soilik jai herrikoietara edo bestelako ekimen gozagarri eta dibertigarrietara batzen den militante tipoa ugaritzen ari dela ere sumatu dute; baita balore hegemonikoak iragazten eta sartzen ari direla ere.

6.3.2. Gure gaitasunekiko konfiantza galtzea

Horri guztiari autoestimu iraultzailearen galera gehitu behar zaio. Pertsona ezkertiarrek konfiantza galdu dute bere gaitasunean, borrokaren bidez aldarri eta helburuak bete daitezkeenaren sinesmena galdu dute. Borrokaren epika berreskuratzeko beharra sentitzen du

komunitate militanteak: militantziaren apologia eta erakargarritasuna landu, baita militatzeko arrazoiak eta motibazioak ere.

Konponbidea bilatzeko lehen urratsa egoera ongi ulertzea da: autoestimua ez da bat-batean galtzen, prozesu bat da. Pertsona bat militatzen hasten denean, zerbaitek borrokara bultzatzen duelako egiten du, kolektiboaren indarrez errealitatea aldatzea posible dela sinesten duelako. Baina, denboraren poderioz, gazi-gozoen eta porroten ondorioz, espektatibak betetzen ez direla ikusita, hasierako grina hori higatu daiteke.

Hori ekiditeko formulen bila, garrantzitsua dirudi militantziak militanteei egiten dizkien ekarpen positiboetan azpimarra jartzea. Izan ere, joera dago sakrifizioaz, inbertitutako denboraz edota ardurez pentsatzeko, eta ez hainbeste militantziak dakartzan kontu positibo eta aberasgarriez: ikasketa, pertsona paregabeak ezagutzea, mundua eraldatzeak ematen duen plazera, garaipenen indarra eta abar. Horrenbestez, monotoniazko militantzia gainditu eta ilusioa pizten duten ekimen gozagarriak eta motibagarriak irudikatzea izan daiteke erronka: sormena.

6.4. Komunikazio gabeziak

Barne komunikazioa garrantzitsua bada ere, batez ere kanporanzko proiekzioan identifikatu dugu Herri Mugimenduen eraginkortasuna mugatzen duen korapilo edo gabezia hau.

Komunikazioa ezinbestekoa da borrokarako, eta oso arma eraginkorra da egoki egiten denean. Gaur egungo munduan, hedabide eta sare digitalak dira jaun eta jabe, eta horiek ere ezkerreko mugimenduen aliatu ala etsai gisa ikus daitezke. Izan ere, tresna boteretsu eta efikazak dira baina, eskuinarekin alderatuta eta horren botere nahiz baliabide ekonomikoak kontuan hartuta, ezkerreko mugimenduek zailtasunak dituzte sare horietan beren mezuak txertatu, zabaldu eta nabarmentzeko. Sare alternatiboak badaude noski, baina horien oihartzuna mugatua da momentuz behintzat.

Herri Mugimenduetako kideen artean ezbaian dago komunikazio plan eraginkorrak diseinatzeko gaitasuna ote duten eta behar bezainbeste denbora bideratzen ote duten horretara. Hartzailearen arabera

mezua moldatzearen beharra eta betiko ereduak errepikatzearen inguruko kezkak ere azaleratu dira. Lehengo formatu eta euskarriek balio al dute orain? Beste behin, sormena izan daiteke antidotoa.

Formakuntza eta bitarteko falta berriro mahaigaineratu dira komunikazioaz aritzerakoan. Maiz, esperientzia falta dela-eta, adituak kontratatzera jotzen dute mugimendu batzuek, esate baterako, bideoak editatzeko, webguneak diseinatzeko... eta abar. Horrek barneeztabaidak eragin ditu, besteak beste, ordaintzen diren eta ordaintzen ez diren lanei buruz, edota militantzia eremu baten baitan ekarpen jakin bat ordaintzeak inplikatzen duen kontraesanari buruz.

Azkenik, dimentsio digitalean egote horrek kaleko presentzian eta kaleko borrokan duen eraginak ere badakartza buruhausteak. Alegia, sare sozialetan eraginkor izaten tematzeak ez al ditu ahuldu zuzeneko harremanak militanteen artean? Eta horrek berak ez al du apaldu kaleen astintzea?

6.5. Plangintza errealisten beharra eta borroken uztartzea

Herri Mugimenduek zailtasunak dituzte euren beharren eta aukeren araberako helburuak zehazteko, eta baita euren gaitasunetara eta tempoetara doitutako plangintzak diseinatzeko ere. Horren ordez, askotan, euren gaitasunak eta ahalmenak (ekonomikoa, humanoa) gainditzen dituzten xedeak finkatzen dituzte eta, gainera, ez dute asmatzen ikasturte bateko epean egingarriak diren proiektu errealistak planteatzen.

Arazoa oharkabean pasa badaiteke ere, ondorioak eduki badauzka, eta zuzen-zuzenean eragiten diete eragileen estrategiei eta militanteen bizipenei: nekea, frustrazioa eta gogaitzea ager daitezke. Norbanakoaren motibazio falta taldean kutsatzea ere gerta daiteke gainera.

Plangintza errealista bat idazteko hainbat faktore hartu behar dira kontuan: motibazioa, prestutasuna, kideen egoera pertsonalak, baliabideak, beste deialdiak eta agenda nazionala, plurimilitantzia, kontziliazioa, eragilearen gaitasunen definizioa... Horregatik, diseinu itxi eta zurruna itogarria suerta daiteke. Aldiz, bat-batekotasunak ekimenen jariakortasunari lagun diezaioke eta malgutasuna erakargarria izan daiteke. Beste behin, oreka aurkitzea da erronka.

Edozein delarik ere Herri Mugimenduen agenda eta ekintza-programa, borroken uztartzea aintzat hartu eta bere egin behar dute. Baina ez da nahikoa, ezta helburua ere, beste borroka horien mezuak nork bere diskurtsora gehitzea, are gutxiago besteak erakarri nahian batuketa horren erabilera interesatua egiten bada. Ez. Borroken uztartzea beste zerbait da: zapalkuntzak lotuta doazela ulertu eta abiapuntu horretatik ekitea inplikatzen du; aliantzak egin eta indartu, sareak landu, elkarlana antolatu, elkar zaindu...

Horrek guztiak, jakina, planifikazioa eta indar inbertsioa galdatzen du. Eta, beharbada horrexegatik, "Herri Mugimenduon borrokak uztartuta gure eragina biderkatzen dugu" dioen diskurtsoa nahiko hedatuta dagoen arren, ez dugu hori era egokian egiten asmatzen. Horrenbestez, hitzetatik ekintzetaranzko pausoan dago benetako korapiloa, eta borroken uztartze hori praktikan nola gauzatu daitekeen pentsatzea da erronka.

7. TRESNAK

Gogoeta-Ekintza prozesu honen itxiera fasean aurrera begira jarri ginen. Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasuna mugatzen duten bost korapilo nagusiak ongi identifikatu eta deskribatu ostean, horiek askatzeko, aurrera egiteko eta, beraz, eragileen eraginkortasun politikoa emendatzeko aterabideak pentsatzeko erronka genuen.

Horretarako, prozesuak parte-hartzailea izaten jarraituko zuela bermatzeko, bigarren tailer-erronda bat burutu genuen. Euskal Herriko bost herritan 70 bat militanterekin egindako bost saiotatik ateratako emaitzak aletuko ditugu jarraian.

Baina autokritikarako tartea zabalduko dugu lehenik. Aitortu behar dugu batzuetan aurreikuspenak ez zirela bete eta tailerrek ez zutela balio izan kasu guztietan eta korapilo guztiak askatzeko moduko erreminta integralak diseinatzeko. Helburu handia jarri genion gure buruari eta, batzuetan, alor jakin batean dugun formakuntza eta ezagutza gabeziak mugatu gintuen. Beste batzuetan, ondorioztatu genuen korapiloaren beraren inguruko eztabaida oraindik biziegi dagoela eta hori osatu behar dugula konponbide zehatzetan pentsatzen hasi aurretik; egin duguna baino bide luzeagoa eskatzen dute.

Datozen orriotan jaso ditugun edukiak, ondorioz, askotarikoak dira. Tartean badira tresna oso-osoen deskribapenak eta azalpenak; baina baita behin behineko proposamenak eta gogoeta-prozesu luzeago baterako abiapuntua izan daitezkeen ideia zein galdera berriak ere.

7.1. Formakuntza integrala

Herri Mugimenduetako kideek formakuntzaren alorrean dituzten hutsuneak asetzeko tresnen bila egindako gogoetetatik lehen-lehen ideia bat atera zen abiapuntu gisa: formakuntza politikoaren goraipamena, eta ikasketa prozesu horiek modu transbertsalagoan pentsatu eta definitzeko beharra. Euskal Herriko militanteek norabide horretan pedagogia egitea ere interesgarritzat jotzen dugu eta horretarako deialdia zabaldu nahi dugu Gogoeta-Ekintza prozesu honen bultzatzaileok.

Itxiera faseko saioei esker, bi tresna posible identifikatu ditugu formakuntzaren erronkari heltzeko. Elkarren artean oso ezberdinak dira. Lehenengoak epe luzerako proiekzioa du: Euskal Herriko militanteen formakuntzarako Tresna-Kutxa. Bigarrena, aldiz, behin behineko konponbide bat ematera dator: FormaZIO! Formakuntza Politikorako Joxemi Zumalabe Fundazioaren bidelaguntza zerbitzua.

Dena dela, horien xehetasunak azaldu aurretik, formakuntza egokia zernolakoa ote den eztabaidatzeko eginiko tailerretatik hainbat burutapen ekarriko ditugu.

Gogoetan parte hartu zutenen aburuz, Herri Hezkuntza Askea eredu ona izan daiteke. Izan ere, hezkuntza sistema eraldatzea aldarrikatzen badugu, kontraesankorra da Herri Mugimenduen ekosisteman formakuntza eredu estatikoari, magistralari eta aukera bakarrekoari eustea. Hezkuntza eredu askatzailearen gakoa norbanakoen jakinminetik abiatzen da eta zeharkakotasuna du ardatz. Ez dago historia bakarra, kontakizun ugari baizik, korronte politiko franko eta informazio gaindosia sareetan. Horrenbestez, edukiak irensteko joera alboratu eta, horren ordez, intersekzionalitatea ulertu, praktikan ikasi eta kolektiboaren zaintzatik nork bere iritzia eraikitzeko gaitasunak landu behar ditu. Arrazoi berberagatik, gune autogestionatuak, praktika oneko azokak eta Periferien Eskola bezalako esperientziak ere izan daitezke ikasketa-iturri.

7.1.1. Euskal Herriko militanteen formakuntzarako Tresna-Kutxa

Formakuntza politikorako materialak sistematizatzea eta antolatzea da Tresna-Kutxaren helburua, eta jakintzak saretzea ahalbidetuko du gainera.

Izan ere, gaur egun Euskal Herriko Herri Mugimenduetan diharduten militanteentzat zaila da formakuntza politikorako materiala gorde, antolatu eta eskuragarri jartzeaz arduratzen den baliabide edo zerbitzu egokirik topatzea, ugariak badira ere. Hain justu ugaritasun hori edo, beste era batera esanda, informazio gaindosia izaten da, maiz, arazoa: hainbeste erreferentziaren artean kosta egiten da aukeraketa egokia edo optimoa egitea, eragile bakoitzaren beharrei zuzen erantzungo dien hori topatzea.

Bestalde, baliabide horietako batzuk nahiko partzialak dira nola gaiei hala joera politikoari dagokionez. Horren ondorioz, herri eragileek beraiek egin behar izaten dute bilaketa Internet sarean, beharretara egokitzen diren edukiak topatzeko. Bilaketa horretan, baina, euskarak beste hizkuntza batzuen aldean duen presentzia mugatua desabantaila handia da, eta eduki akademikoek Herri Mugimenduak aintzat ez hartzea ere bai. Ondorioz, emaitzek nekez asetzen dituzte bilatzaileen nahiak.

Herri Mugimenduetatik, Herri Mugimenduekin eta Herri Mugimenduentzat egindako Tresna-Kutxan, ordea, askotariko eragileek sorturiko bitartekoak leudeke eskuragarri, atalka antolatuta. Tresna horrek Joxemi Zumalabe Fundazioaren Biltokiaren antza edukiko luke baina, dinamizaziorako materialaz gain, formakuntza politikorako ezinbesteko lanabesak ere jarriko lituzke erabiltzaileen esku: liburuak, iritzi artikuluak eta dagoeneko burutu diren hainbat proiekturen deskribapen eta balorazioak, besteak beste.

Jakintzen elkartrukerako plaza-bokazio praktikoa ere edukiko luke Tresna-Kutxa honek. Hala, Herri Mugimendu bakoitzak besteei eskaini diezaiekeena eta, aldi berean, besteengandik beharko lukeena adierazteko atala aurreikusten dugu. Adibidez, argiago ulertzeko: herri edo auzo jakin bateko Gazte Asanbladak okupazio tailer bat eskaini dezake eta intersekzionalitateari buruzko formakuntza bilatzen du.

Egiari zor, Joxemi Zumalabe Fundazioko eta Bizilur elkarteko kideok ezin dugu, gaur egun bederen, tresna hori sortzeko ardura gure gain hartu, besteak beste, hutsuneak ditugulako jakintza teknikoari dagokionez. Eta, batez ere, uste dugulako Tresna-Kutxa hori osatzeko prozesuak parte-hartzailea izan behar duela, askoren artean egin beharrekoa alegia.

Hala eta guztiz ere, balizko bide luze horretan egin beharreko lehenengo urratsak identifikatu ditugu:

- Jada existitzen diren eta Herri Mugimenduentzat interesekoak diren formakuntza politikorako edukiak jasotzen dituzten gordailuen identifikazioa.
- Gordailu horien saretzea eta askotariko edukien antolaketa, Tresna-Kutxa bateraturako.
- Tresna-Kutxa bera sortzea: ahal den heinean, burujabetza teknologikotik eta geure kabuz lotutako bitartekoekin egingo litzateke, betiere prozesu parte-hartzailea bermatuz.
- Tresna-Kutxa eta honen erabileraren berri zabaltzeko fasea.
- Tresna-Kutxa edukien areagotzea: fase hau mugagabea litzateke, eta edozein Herri Mugimenduk edo militantek edukiko luke aukera Tresna-Kutxari eduki-ekarpena egiteko.

7.1.2. FormaZIO! Formakuntza Politikorako Joxemi Zumalabe Fundazioaren aholkularitza zerbitzua

Arestian deskribaturiko tresnak, Tresna-Kutxak alegia, argia ikusi orduko denbora-epe luzea joango dela badakigu. Hain justu horregatik eta hutsunea behin behinean betetzeko asmoz pentsatu dugu FormaZIO! izeneko baliabidea.

Infoxikazio garaiotan eta berezko Tresna-Kutxa eduki artean, garrantzitsua da Herri Mugimenduek eta militanteek Interneten topa ditzaketen beste euskarriak, edukiak eta materialak kontrastatu ahal izatea, baita sor dakizkiekeen zalantzak argitzeko erreferentziazko iturri bat edukitzea ere.

Bigarren tresna honek, horrenbestez, helbide elektroniko baten forma hartuko luke: formakuntza@joxemizumalabe.eus. Hala, Herri Mugimenduetako eragileek helbide horretara idatz dezakete:

– Formakuntza politikoaren alorrean dituzten zalantzak helarazteko
– Formakuntza jakin baterako erreferentziak edo kontaktuak eskatzeko
– Gai jakinen bati buruzko formakuntza politikorako materialen inguruko aholkua eskatzeko
– Beste iturri batetik edo batzuetatik eskuratu duten materiala kontrastatzeko

Joxemi Zumalabe Fundazioko eta Bizilur elkarteko kideok, dugun ezagutzatik (ez gara adituak, baina jakintza kolektiboan sinesten dugu), zalantza horiek argitzen saiatuko gara, eta Euskal Herriko Herri Mugimenduetako militanteekin partekatuko ditugu ezagutzen ditugun bitartekoak, baita kolektibo eta eragileak harremanetan jartzeko bideak zabaldu ere.

7.2. Euskal Herriko Herri Mugimenduen zuritasunari buruzko eztabaida prozesu zabal eta parte-hartzailea

Herri Mugimenduen zuritasuna iraultzeko aterabide bila tailer-erronda hasi bezain pronto ondorioztatu genuen afera hau oso hasierako estadio batean dagoela oraindik, bide luzea dagoela egiteko. Itxiera faseko saioen helburua gure mugimenduak intersekzionalagoak bilakatzeko tresnak diseinatzea bazen ere, praktikan, korapiloaren beraren izaeran eta kausetan sakontzeko balio izan zuten. Eta beharrizanetik gertatu da, nagusitasun zuri horren atzean dagoen guztia ongi ezagutzea falta zaigulako gauzak beste era batera egiten hasteko.

Izan ere, helburua ez da 'besteak' guregana e(ra)kartzea, baizik eta guk, zuriok, dagokigun ardura onartzea, gure eragileetan naturaltzat jo izan ditugun aspektu asko deseraikitzea eta gure pribilegioei uko egitea elkarlan molde inklusiboak sortzeko, kulturartekoak, berdinzaleak.

Gure jardunaren zentzua herri eta herritar gisa bizi dugun zapalkuntzari aurre egitearen bueltan ardaztu dugunez, militantzia eredu hori bera beste batzuen kalteko mekanismo menderatzaile gisa ikustea bereziki kostatzen zaigu. Baina onarpen hori ezinbesteko ariketa da erronka honetan urratsak egiteko.

Gaur gaurkoz, horrenbestez, eragileen zuritasuna deuseztatzeko lehen pausoa eta proposatzen dugun tresna zera da: Euskal Herriko Herri Mugimenduen zuritasunari buruzko eztabaida prozesu zabal eta parte-hartzailea abiatzea.

Eztabaida horren mamia bidera dezaketen zenbait galdera adostu genituen itxiera faseko tailerretan:

- Zein dira Herri Mugimenduen zuritasun horren arrazoiak edo kausak?
- Zein dira Herri Mugimenduen testuinguruan zuriok ditugun pribilegioak eta nola egingo diegu uko?
- Nola eraikiko ditugu benetako (g)une inklusibo eta seguruak? Irizpideak behar al ditugu horretarako, nolakoak?
- Nola sustatu daiteke eragile arrazializatuen eta eragile zurien arteko elkarlana? Nola apurtu dikotomia hori?
- Nola sortuko ditugu elkarguneak edo nola indartuko ditugu existitzen direnak? Nolako espazioak izan daitezen nahi dugu? Eta nolako funtzinatuko dute?

Balizko eztabaida prozesuaren edukiari ez ezik, formari eta prozedimenduari buruzko itaunak ere jaso genituen saioetan:

- Zuriok afera honetan dugun ardura onartzea eta aldaketarako zimenduak ezartzea baldin bada helburua, nor ariko da eztabaidan? Soilik gu ariko gara ala espazio mistoak sortuko ditugu?
- Nork hartuko du beregain prozesuaren gidaritza? Norekin? Nork izan behar du protagonista, nor parte-hartzaile, nor bidelagun? Nork dinamizatuko ditu eztabaidak? Rolak definitu.
- Euskal Herri mailako prozesua behar du izan? Ala tokian tokikoa eta saio bereizien bitartez gauzatua?

'Herri Mugimendua(k) Eraginkorra(k) ote?' Gogoeta-Ekintza prozesuaren itxiera faseko tailerretan argi sumatu genuen zuritasunaz eta intersekzionalitateaz hausnartzen segitzeko behar eta gogo kolektiboa egon badagoela. Hain justu, gogoeta bide horretan aurrera egitea iruditzen zaigu lanabes egokiena eta, zentzu horretan, zenbait parte-hartzailek adierazi zuten Talde Motorea (Joxemi Zumalabe Fundazioa eta Bizilur elkartea) izan litekeela balizko prozesu luze

hori martxan jartzeko egokia. Berandu baino lehen hartu beharreko erabakia izango da, beraz, noiz, nork eta nola abiaraziko duen.

Bien bitartean, eta abiapuntu modura funtziona dezake gainera, orriotan jasota utziko ditugu herri eragileen eraginkortasuna emendatzea helburu duen prozesu honen baitako saioetan gaiari buruz aipatu diren zenbait ideia.

7.2.1. Euskal Herriko militantziaren zuritasunaren arrazoiei buruz

- Arazoa egiturazkoa da. Herri Mugimenduetan parte hartzeko, jendearekin eta gizarte antolatuarekin elkar eragin ahal izateko, garrantzitsua da funtsezko beharrizanak (etxea, osasuna, elikadura, eta abar) bermatuta edukitzea. Horiek zalantzan dituenarentzat zailagoa da militantzian, gaur egun egiten dugun eran, jardutea.
- Sustraitzea funtsezkoa da iristen den jendearentzat: ingurune, sare berri bat eraiki behar dute. Baina ingurune sozial berri hori guk haiekin batera eraiki ordez, lezio politikoak ematen ari gara eta prozesu politizatzaile azkarrak eskatzen. Haiek eta guk denborak eta gaitasunak behar ditugu prozesuak zaintzeko.
- Euskaldunok, herri zapaldua izanagatik, badugu ardura beste zenbait menderakuntzari dagokionez (kolonialismoa, adibidez); baina kosta egiten zaigu hori onartzea. Horregatik, bestelako arrakalak arakatzen ditugu, bai: desberdinkeria materialari dagozkionak, adinari edota kulturari dagozkionak... eta horietan bilatzen ditugu militantzia-nitxo erosoak. Baina, aldiz, ez dugu gure artean hain errotuta dagoen arrazakeria aztertzen adibidez, deserosoagoa zaigulako beharbada, zuzen-zuzenean interpelatzen gaituelako, eta, ondorioz, sortzen ditugun espazioak ez dira seguruak pertsona guztientzat.
- Sistema kapitalistak zatitzen gaitu, nagusitasun zuria saritzen duelako eta baliabideen borroka sustatzen duelako.
- Dominazio Sistema Anizkoitza da arazoa.
- Euskal Herriko Herri Mugimendu tradizionalean sartzea oso zaila da, batzuetan terminoak ez dira ulertzen, ezta hitzak ere. Denborak, gaiak, dinamikak, harremanak... aldez aurretik

ezarrita ditugu eta ez ditugu zalantzan jartzen edo, are, ez ditugu beste batzuk onartzen. Militantziaren eta partaidetzaren berezko historia daukagu, beste erakunde batzuetara joaten garenean ere gurekin eramaten duguna, baina historia horren mugez jabetu behar dugu.

– Militantzia eredu ezberdinen aurrean bezalaxe, irekidura falta zaigu bestelako kosmobisioen aurrean, bestelako antolaketa moduen aurrean, bestelako lehentasunak, interesak, beharrak... Borrokak hierarkizatzeko joera dugu eta gureak besteen gainetik jartzen ditugu, erosoa zaigun militantzia lehenesten dugu.
– Gauzak aldatzen hasteko, lehenik eta behin, interesa behar da. Munduaren erdigunea bagina bezala jokatzeko joera dugu eta ez gara interpelatuta sentitzen besteen egoeren aurrean. Bestearengana hurbiltzea eragozten diguten arrazoiak askotarikoak dira: nagusitasun morala, enpatiarik eza, beldurrak, aurreiritziak eta epaiak.

7.2.2. Topaguneei buruz

– Gure pribilegioei uko egiteko dagokigun lana egiteaz aparte, zuriok arrazakeriaren aurkako espazio mistoetan egin behar dugu borroka. Beste batzuen ahotan hitz egiteari utzi behar diogu eta pertsona arrazializatuek euren kabuz antolatzeko duten zilegitasuna errespetatu.
– Aniztasuna badago, baina ez gara batzen edo ez dago konbergentziarik gure borroketan. Gaur egun, elkarguneak salbuespena dira. Harremana partaidetzarekin errotzen da, baina horretarako topo egin behar dugu, eta ez da elkargunerik egongo ez badugu propio sortzen.
– Hurbilketak oso gordinak izaten dira, bertikalak direlako, botere-harremanean oinarritutakoak; ez dira berdinen arteko aliantzak. Harremanak elkarrenganako aitortzatik abiatu behar du. Baina ez gaude eroso horretan, botere-borrokak deserosotasunak sortzen dituelako.
– Erabakiguneen eta sozializazio espazioen dualtasuna. Erabakiak hartzeko eskumena guretzat gordetzen dugu. Sozializazioaren bitartez kontrasterako espazioak sortzen saiatzen gara baina,

irekiak izan arren, ez dira parte-hartzaileak eta ez dute erabakimenik aitortzen. Benetako espazio anitzak sortu nahi baditugu, espazio horien erabakiguneek espazioen aniztasunaren isla izan behar dute.

- Gure espazioak, adibidez jaiak, ez dira jende oro bertaratzeko modukoak. Espazio fisikoen eta giroen izaeraren analisi kritikoa egin beharko genuke, jende gehiago barnebiltzeko modukoak izan daitezen. Irtenbide eta borroka komunak emango dituzten lurzoru eta estrategia komunak landu eta eztabaidatu behar ditugu. Gure Herri Mugimenduak zuriak dira eta, horrexegatik, zuritasun handia eragiten dute. Baina badira bestelako emaitza eman dezaketen antolaketa ereduak, ekintzak...
- Belaunaldi arteko zubiak, adibidez migratzaileen seme-alabekin, elkargune posible bat dira. Baita besteen eskubideen aldeko borrokak aintzat hartuko dituzten auzotasun berriak ere.
- Maiz haiek gurera ekartzearekin tematzen gara eta, aldiz, ez dugu ikusten talde misto askok (adibidez, emakume migratuak eta tokikoak, elkarrekin) beste batzuek egin ez dituzten proiektuak gauzatu dituztela.

7.2.3. Euskarari, harrerari eta lehentasunei buruz

- Adinaren, ohituren, gaitasunen edo bestelako arrazoien arabera, migratutako jendeak erraztasun handiagoa edo txikiagoa du euskararekin. Hizkuntzak ikastea errazagoa da gaztetan, baina kulturari buruzko kontzientzia sareak ematen dizu, ez eskolak. Gainera, eskolan askotan ez dute Euskal Herriaren ideia garatzen.
- Migratzaile asko aldi baterako daude Euskal Herrian eta, beraz, oso zaila da euskaraz ikas dezaten eskatzea. Are gehiago guk geuk egiten ez badugu.
- Euskal Herriko Herri Mugimenduak ez du lortzen komunitate migratuetako jendearengana heltzea, eta horretan hizkuntza oztopo handia da.
- Komunitatea indartzea eta kideok elkar ezagutzea ezinbestekoa da lan politikorako, aniztasuna aitortzeko. Komunitatean euskalduntzeko moduak bila daitezke, edo hemengo errealitatea

ikusarazteko. Neurri batean egiten dugu, Herri Mugimenduok euskara eta Euskal Herria ikusarazten dugu, baina gehiago egin behar da.

- Gurea, euskara, publikoa... defendatu behar dira, baina bereizteko tresna bilakatu gabe. Gaur egun, itzulpen nahiko eraginkorra egiteko mekanismoak daude: xuxurlariak edota gailu erosoak (pinganilloak) adibidez. [Itzulpenekin loturiko esperientzia bat: *"Hasieran dena gaztelaniaz egiten genuen, baina hutsegitea izan zen, talde handi edo heterogeneoetan jende guztiak ez baitu hitza hartzen. Orain fitxak egiten ditugu bost hizkuntzatan, beste hizkuntzaren batera itzulitako batzarrak ere bai... Tira, ahal duguna egiten dugu, akatsetatik ikasiz"]*
- Migrazioari era baikorrean begiratu behar diogu, ez doa gure kausen aurka. Besteen borrokak errespetuz ikusi eta zaindu behar ditugu, gureak ez badira edo horietan parte hartzen ez badugu ere.
- Aniztasunarekin bizitzeak ahalegina eskatzen du eta normala da marruskadurak sortzea. Gakoa da horiek era egokian kudeatzea.
- Datozenei harrera egitea eta, aldi berean, euskarari eustea ez da erronka makala, eta eztabaida mamitsuak dakartza. Formula egokiak aurkitu behar ditugu aniztasun handiagoak ez dezan euskara are bazterrerago eraman, eta euskarak berak ez dezan inor kanpoan sentiarazi. Era berean, kide berriek ekar dezaketen hizkuntza aberastasun hori gure egiten asmatu behar dugu, inor bere kulturari eta identitateari uko egitera behartu gabe. Kulturartekotasuna, integrazioa baino hobe.

7.2.4. Aukerei, gaitasunei eta erritmoei buruz

- Zein erritmotan jarduten garen pentsatu behar dugu, hori oso lotuta dagoelako ohitura militante jakin batzuekin eta aukera nahiz gaitasun oso zehatzekin. Pertsona guztiak ez dira horretan eroso sentitzen eta, beraz, sor ditzagun guztion artean erritmo berriak, guztien beharretara egokituak. Gogoan izan, bestalde, gutako batzuontzat militantzia kasik aisialdia dela; beste pertsona batzuentzat, ordea, oinarri-oinarrizko eskubideen alde borrokatzera bideratutako denbora da.

- Gure parte-hartze moldeak berrikusi behar ditugu: oso zehatzak dira, idatzizko hitzari balio handia ematen diogu, eta erabiltzen dugun ahozko hizkera ez da denentzat ulergarria edo ez da denengana iristen batzuetan hitz formalegiak erabiltzen ditugulako. Beste kultura militante batzuek hizkera hurbilagoa eta ulerterrazagoa darabilte.
- Osoko bilkuretan galderak egin eta jendeak erantzungo duela espero izatea zalantzan jarri behar dugu, pertsona guztiak ez baitira eroso sentitzen halako egoeretan. Deserosotasun horrek lotura zuzena du arrazakeriarekin, genero diskriminazioarekin, gaitasunen araberako bereizkeriekin eta, oro har, botere-harremanekin. Hortaz, parekidetasunezko gune eta giro berdinzaleak bermatu artean, den-denen parte-hartze aktiboa espero izatea ez da aurreikuspen errealista. Are gehiago: kideak horretara bultzatzea eta horretan tematzea dinamiken kalterako izan daiteke. Halako egoerak leuntzeko tresna dinamizazio politikoa da, eta kolektiboetan horri jarri behar zaio arreta.
- Kide guztien eta batez ere ertzetan dauden pertsonen parte-hartzea eta ekarpena bermatzeko, batzarrak ordutegi ezberdinetan antolatzea komeni da.
- Integraziorako proposamenek 'bestea' itzaltzeko joera dute, boteredunen moduak gailentzen direlako. Hori saihesteko, batzarren amaieran hausnarketarako tartea gordetzea garrantzitsua da: nola sentitu gara? Zenbat kide arrazializatuk parte hartu duten eta parte-hartze hori zenbatekoa izan den (hartu duen denbora eta espazioa) kuantifikatzea eta horri buruz gogoeta kritikoa egitea ere interesgarria izan daiteke.
- Zuriontzako zereginak eta pedagogia beharra: gure burua berrikusi, gure artean gure jarrera arrazistei buruz hitz egiteko moduak bilatu, konfiantza eta afektua landu, erdigunetik atera eta alde batera egin, pieza bat gehiago garela ulertu, paternalismoa saihestu.
- Harreman komunitario eredugarriak gauzatu behar ditugu, alegia, barruan edo bileretan hitz egindakoa kanpora begirako ekintzetan bete behar da.

7.3. Militantzia eredu bizigarria eta autoestimuaren berreskurapena

Iragan hurbileko militantzia eredua behin betiko iraungitzear da, 24 orduz proiektuaren alde jarduten den militantearen figura lausotu egin da. Tokiko faktoreek zein maila globalekoek izan dute horretan zerikusia eta, gainera, Herri Mugimenduek euren buruengan eta euren gaitasunean duten konfiantzak behera egin duela ere diagnostikatu genuen prozesu luze honen irekiera fasean, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa mugatzen duten korapiloen identifikazioan. Eta halaxe jasota geratu da liburu honen seigarren puntuan ere. Konponbideen bila hasita, baina: zer egin dezakegu militantzia eredu jasangarriagoak sustatzeko eta autoestimu iraultzailea berreskuratzeko?

Lehenik eta behin, Talde Motoreko kideok balioan jarri nahi dugu konpromiso politikoa, eta gogora ekarri nahi dugu banakakoen nahiz kolektiboen engaiamendu hori behar-beharrezkoa eta laudagarria dela, ezinbestekoa askotariko borrokak aurrera ateratzeko. Gogoan eduki ditzagun, beraz, militantziaren zimenduak eta arrazoiak: Herri Mugimenduotako kideok beste gizarte eredu batean sinesten dugu, eta gure praktika politikoaren bitartez jendarte aldaketa bultza dezakegula uste dugu. Horrekiko guztiarekiko konpromisoa hartu eta gure jardun militanteari zein proiektuari ekiteak aske egiten gaitu gainera.

Halaber, lehen lerrora ekarri nahi ditugu engaiamendu politikoaren bideak dakartzan onurak eta, besteak beste, militantzia gozagarria dela azpimarratu nahi dugu. Izan ere, hamaika irakaspen, adiskide, esperientzia eta une ahaztezin ere badakartza jardun horrek. Aitor diezaiegun dagokien garrantzia.

Dena dela, Gogoeta-Ekintza prozesu kolektibo honek agerian utzi du militantzia bizigarriagoa eta garai berrion ezaugarrietara egokitutako bestelako moldeak pentsatzeko eta praktikatzeko beharra. Bilaketa horretan, egoki deritzogu 'Ni-Taldea-Proiektua' erpin hirukoitzdun eredua iparrorratz hartzea. Alegia, militanteek euren burua, defendatzen duten xedea eta euren eragilearen baitako talde-giroa neurri berean zaintzea; arreta maila beretsua aitortzea hiru dimentsioei, batek besteei itzalik egin gabe, baten gailentzeak besteak kaltetu gabe, baten mesedetan besteak arriskuan jarri gabe.


Zaintza hirukoitz horretan, zintzotasuna ezinbestekoa da. Konpromiso politikoa hartzerakoan nork bere buruari, gainontzeko kideei eta borrokari berari emandako hitzaren inplikazioez jakitun izatea oso garrantzitsua da, eta emandako hitza betetzea jarri nahi dugu balioan. Hori ezinezkoa denean, gerta daiteke-eta, militantzia-lagunei egoera gardentasunez azaltzea izango da hori egoki kudeatzeko lehen urratsa.

Jarraian, zenbait tresna proposatuko ditugu, militantzia eredu bizigarriagoa eraikitzeko lagungarriak izan daitezkeelakoan, baita borroken nahiz militanteen gaitasunean konfiantza berreskuratzeko ere.

7.3.1. Eragileen bizigarritasunaren lorea

Proposatzen dugun aurreneko erreminta honek diagnosia du helburu, eta eragile batek bere militantzia ereduaren bizigarritasuna aztertzeko eta neurtzeko balio du. 'Ni-Taldea-Proiektua' zaintza hirukoitzaren eskeman aurrera urratsak emateko lagungarria izan daitekeelakoan gaude, eragileak erpin horietako dimentsio ezberdinetan bizi duen egoera identifikatu eta, horren arabera, bere indarguneak eta ahulguneak ezagutzeko argigarria izango da.

Taldean egin beharreko ariketa modura irudikatzen dugu. Taldeko kide bakoitzak lore bat izango du eredu bezala, eta petalo bakoitzak dimentsio baten izena izango du.



Ariketan parte hartzen duen kide bakoitzak bere lorea koloreztatzeari ekingo dio. Lore-hosto bakoitzean koloreztatuko duen zatia alor horretan sentitzen duen asebetetze-mailaren araberakoa izango da. Hau da: zati txiki bat koloreztatuko du balorazio negatiboa egiten duen kasuetan eta, aldiz, zati handiagoa baikor bizi dituen beste alor horietan. Ondoren, parte-hartzaileek euren analisiak partekatuko dituzte, lorea nola margotu duten azalduz eta hori arrazoituz. Eta, azkenean, lore orokorra marraztu eta margotuko dute, taldeak militantzia bizigarri eta eraginkor bateranzko bidean egun duen irudia islatuz.

Margoketaren unerako (norberarena nahiz lore orokorrarena) zenbait irizpide lagungarri ekarriko ditugu. Alegia, zeren arabera koloreztatuko dugu gehiago edo gutxiago petalo bakoitza? Edo, beste era batera esanda: zer hobetu dezakegu? Zer mantendu? Zertan jarri behar dugu arreta? Ondorio horietatik abiatuta, beraz, behar berrien zerrenda aterako da.

KOMUNIKAZIOA

- Eragileko kideen arteko komunikazioa eraginkorra al da?
- Kide guztiek jasotzen al dute behar duten informazio osoa era egokian?
- Eztabaidarako espazio segurua bermatzen al du gure eragilearen barne-egiturak?

ONGIZATE EMOZIONALA

- Gustura aritzen al gara eragilearen baitan?
- Gure kezkak, ezinegonak, motibazioak asebetetzen al ditu eragileak?
- Gure beharrak eragilearen baitan modu kolektiboan asetzeko aukerarik ba al dago?

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO AKORDIOAK

- Zehaztuta al daukagu noiz, non, zenbatero... batzen garen?
- Zehaztuta al daukagu erabakiak hartzeko prozedimendurik?
- Komunikaziorako kanalak eta horien arauak ezarrita al daude?

KONPROMISOA

– Gure proiektuarekin eta helburuekin konprometituta al gaude?
– Gure gain hartzen ditugun ardurak betetzen al ditugu?
– Ba al dakigu kideetako bakoitza noraino inplikatzeko prest dagoen?

AITORTZA

– Kideek proiektuari ekarpena egiteko askotariko moduak errespetatzen al dira?
– Nork bere ekarpena baloratua dela sentitzen al du?
– Ongi egiten ditugun gauzengatik jasotzen al dugu aitortzarik? Eta zoriontzen al ditugu kideak?

PROIEKTUAREN ERAGINKORTASUNA

– Gure buruari ezartzen dizkiogun helburuak betetzen al ditugu?
– Gure proiektua zentzuzkoa eta beharrezkoa dela sinesten al dugu?
– Gure alorrean ezagunak al gara? Eragiten al dugu?

Lanabes hau pentsatu dugunok bete-betean ulertzen dugu kategoria batzuk eta besteak gurutzatu egiten direla eta, zentzu horretan, nork bere ulerkeraren araberako balorazioa egitea guztiz zilegi dela azpimarratu nahi dugu.


7.3.2. Aurrerapausoak emateko tresnak

Lorearen ariketak argazki bat emango die parte-hartzaileei: dagokien eragilearen baitan nagusi den militantzia ereduaren bizigarritasunari dagokionez, ahulgune eta indargune nagusiak zein diren utziko du agerian.

Hurrengo urrats logikoa da, beraz, erren ageri diren dimentsioetan hobera egiteko modua topatzea. Horretarako tresna sorta bat ere jasoko dugu jarraian. Baina, eta batez ere, Herri Mugimenduen sormena sustatu nahi dugu, militanteek beraiek irudika ditzaten euren errealitateetara hobekien egokituko diren erremintak, euren neurrirako alternatibak eraiki ditzaten.

KALABAZAREN ARIKETA

Herri Mugimendu batean diharduten kideen konpromiso maila zehazteko helburua duen dinamika da, betiere mugimendu horren egitura eta antolaketa eredua oinarri hartuta. Horregatik, eragilearen egitura-mapa modu grafikoan irudikatzea da lehen urratsa.



Adibidea: Joxemi Zumalabe Fundazioaren egitura-mapa

Ahalik eta kide gehien asanbladan batuta, irudia aurkeztu eta kide guztiei hurrengo galdera luzatuko zaie:

Denbora-tarte jakin batean (normalean ikasturte bat), gure eragileko zein espaziotan parte hartzeko konpromisoa hartzen duzu?

Galdera luzatzearekin batera zintzotasunez jokatzeko deia egitea garrantzitsua da: engaiamendua balioan jarri eta kideei gogoraraziko zaie ariketa honekin hartzen duten konpromisoa bete beharrekoa dela.

Parte-hartzaileek tarte batez pentsatuko dute erantzuna. Gero, erronda itxi baten bitartez, kideek taldearekin partekatuko dute hurrengo ikasturteari begira zein konpromiso hartzeko prest dauden. Hori egin bitartean, kideen erantzunak mapan modu bisualean (errotulagailuz idatzita, postit-ak erabiliz...) jasota geratuko dira.

Erronda bukatuta, emaitza aztertzeko eta eragilearen egiturak dituen indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko tartea hartuko dute parte-hartzaileek. Adibidez, gerta daiteke talde handi samar bat komunikazioan aritzeko prest egotea baina, aldiz, koordinazio taldeari eusteko nahikoa pertsona ez edukitzea. Botere-harremanen azterketa kritikoa egiteko unea ere izango da hauxe, eragilearen baitako erabakiguneetan eta, oro har, botereguneetan diharduten pertsonen generoari, adinari edota jatorriari erreparatuz.

Gabeziak betetzeko eta indarrak orekatzeko modu posibleen eztabaida abiatuko da segidan. Hau osoko taldean egin ohi da, baina bestelako moduak pentsatu daitezke.

Azkenik, asanbladan falta diren kideak identifikatu eta euren konpromiso mailaz galdetzeko ardura hartuko duten pertsonen izenak zehaztuko dira, haiek ere mapan ager daitezen. Beste aukera bat: haien erantzunak aurretiaz jasotzea.

Horrenbestez, Kalabazaren Ariketa deritzon tresna honen bitartez, batetik, eragile bateko kideen arteko komunikazioa eta konfiantzagiroa indartu dezakegu. Eta, bestetik eta batez ere, eragilearen beraren egitura partekatzeko baliagarria da, argilunak aztertzeko eta militante bakoitzaren engaiamendu-asmo zintzoa ezagutzeko ere.

OINARRIZKO AKORDIOEN ZERRENDA

Bestelako antolaketa ereduekin alderatuta Herri Mugimenduek duten izaera informalagoa indargunetzat hartzen dugu eskuarki. Hori hala bada ere, mugimendu bakoitzak bere jarduna hainbat dimentsiotan definitzea oso lagungarria izango da eraginkortasun politikoa emendatzeko. Eragile bateko kideek oinarrizko akordioen zerrenda bat adostea proposatzen dugu, besteak beste, hurrengo alorrei dagokionez:

- Bilerak: zenbatero izango dira? Non eta zein ordutan? (lekuek eta orduek ez dute zertan finkoak izan behar) Nork dinamizatuko ditu? Nor arduratuko da akta jasotzeaz? Txandakako ardurak definituko al ditugu?
- Egitura: ze espazio daude eragilearen baitan? Zeintzuk dira bakoitzaren funtzioak?
- Erabakiak hartzeko prozesuak: nork eta non hartzen ditu erabakiak? Nork hartzen ditu zein esparrutako erabakiak? Zein

mekanismoren bidez? Ba al dago beto eskubiderik? Nork eta nola hartzen ditu beste inork hartzen ez dituen erabakiak?
- Komunikazio kanalak: Zein komunikazio kanal darabil eragileak? Zer hitz egin daiteke horietako bakoitzean? Eta zer ez? Nola, noiz eta zertarako erabili kanal telematikoak eta sare sozialak?
- Eskubideak eta pribilegioak: zeintzuk dira eragilearen parte izatearen ondoriozko eskubideak eta pribilegioak?

ERRELEBOETARAKO ETA SARRERA PROZESUETARAKO GIDAK

Norbanakoen bizitzek fase ezberdinak dituzte eta norbanakoen aldizkako errealitate horiek eragina dute kolektiboan. Horregatik, konpromiso politikoa laudatzea bezain garrantzitsua da engaiamendu horren nolakotasuna garai berriotara egokitzea.

Eragile baten baitan aspaldiko kideek eta iritsi berriek dihardute; batzuek motibazioa gorenean duten une berean beste batzuek nekea sentituko dute agian edo kolektiboa uztea ere pentsatzen ariko dira. Baina, hain justu, Herri Mugimenduek eskola izaera dutela aipatu dugu prozesu honetan behin eta berriz, pertsonak militantzian hezten eta ahalduntzen dituztela, eta hori indargune gisa azpimarratu dugu gainera. Hala bada, militatzeko eredu berriez ari garenean, ezin dugu potentzial hori guztia galdu: eragilea uzten duten kideek nahiz sartu berri direnak, biek ala biek, prozesu horietan lagungarri izango zaizkien gidalerroak behar dituzte.

Mugimendutik joatear diren pertsonez ari garenean, batez ere eragilean denbora asko eman ostean edozein arrazoi dela medio eragilea uztea erabakitzen duten kideei buruz ari gara. Kolektiboaren jardunean eta barne-bizitzan pisu nabarmena duten pertsonak izan ohi dira, prestigio sozial handi samarrekoak gainera. Uzteko erabakiaren kausetako bat akidura izaten da batzuetan eta neke horrek ekar ditzakeen arazoak aldez aurretik saihestea inportantea da. Erantzukizun horretatik, halaber, pertsona horrek berak pentsatu beharko luke, taldeak lagunduta noski, nolakoa izango den eta nola gauzatuko den bere jakintza kolektibizatzeko eta zeuzkan ardurak delegatzeko prozesua.

Era berean, taldeari dagokio mugimenduan sartu berri direnei lehen urrats horietan laguntzeko modua, gida bat, diseinatzea. Iritsi berriei eragilearen jardunaren, egituraren eta funtzionamenduaren inguruko informazioa emanez, eta eskuz esku ariko diren pertsonak aurkeztuz, informazio-arrakalarik ez da egongo eta egokitzapena erosoagoa izango da. Azken batean, kide berriak eragilera gogo eta gaitasun osoz sartzea da helburua, eta gauza jakina da pertsona horiek askotarikoak izango direla: bestelako espazioetan ibilbidea egina dutenak, lehen militantzia esperientzia abiatzera doazenak. Kasu bakoitza berezia izan daiteke, baina guztietan egokitzapena da xedea.

Informazioa eskuz aldatzeaz gain, hasiera-hasieratik ardurak banatzea lagungarria izango da, maila praktikoan lan eginez ikasten dugu eta.

METEO ERRONDAK

Herri Mugimenduak espazio eroso, gozagarri eta zaintzaileak izateak militanteen konpromisoa emendatzeko balio dezake. Kideen bizitzetan pisuzko eragina duten faktore asko militantzia ez den beste eremu batzuei dagozkie, baina horiek ere mugimenduko lagunekin partekatzea elkar jagoteko modu bat izan daiteke.

Norbanakoen egoerari eta sentipenei lekua egiteko, bileren irekieran eta itxieran, partaideak nola datozen eta nola doazen jakiteko, hurrenez hurren, erronda itxiak egitea proposatzen dugu. Erronda horiek askotarikoak izan daitezke:

- Kideen bizitzari buruzkoak ala eragilearen jardunari buruzkoak: nola zatoz? Nolako eguna izan duzu? Ze aurreikuspen duzu gaurko bilerarako?
- Sormenari tiraka ere egin daitezke galderak: gaur animalia bat bazina, zein zinateke? Gaurko bilera janari plater batekin parekatu beharko bazenu, zein litzateke?
- Gorputza jartzeko dinamikak baliatu daitezke baita ere, baldin eta taldeak horretarako beharra badu eta prest badago.

Ariketa arinak dira Meteo Errondak, eta horiez barre egiteko joera eduki dezakegu, ezertarako balio ez dutelakoan. Baina kideen bizipenei tokia egiteko lanabes bikainak dira, eta oso baliagarriak ongizate emozionala, komunikazio eraginkorra eta zaintza bermatzeko.

BALORAZIOETARAKO GIDALERROAK

Bileretan gai jakin batzuei dagokien denbora eta espazioa aitortuko diegula ziurtatzeko tresna da honakoa. Joxemi Zumalabe Fundazioko eta Bizilur elkarteko kideok biziki sinesten dugu dinamizazio politiko landua nahitaezkoa dela, eta besteetan bezalaxe, edo are gehiago, balorazio bilerak ongi gidatzea behar-beharrezkoa da gure autoestimu militantea babesteko.

Balorazio-bileretan, nagusiki bi akats egiteko joera dugu Herri Mugimenduok:

– Fokua aspektu negatiboetan jartzea eta gure burua zigortzea
– Balorazioak soilik alor operatibora mugatzea

Proposatzen dugun beste eskema hau jarraituta, ordea, balorazioak osoagoak izan daitezke proiektuaren alor ezberdinen argilunak izango direlako hizpide eta, gainera, 'Ni-Taldea-Proiektua' zaintza eredua bermatuko dugu.

GAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
ALOR OPERATIBOA: egindako lana		
FUNTZIONAMENDUA: bilerak, dinamizazioa, komunikazioa		
NORBERA: nola aritu naiz taldean eta proiektuan?		
TALDEA: nola ikusi dut taldea?		
HURRENGO URTERA BEGIRA	**(errepikatzekoak)**	**(hobetzekoak)**

7.4. Komunikazioa

Infodemia betean, hedabide nagusiak botere faktikoen mezulari diren honetan eta sare sozialak ideia erreakzionarioenen jolastoki bilakatu direnean, ez da erronka makala Euskal Herriko Herri Mugimenduek bere komunikazio gaitasuna hobetzeko modua irudikatzea.

Hain justu, horretarako edo helburu horrekin antolatu genuen tailerretik atera genuen lehen ondorioa izan zen gai honek denbora gehiago eta sakontasun handiagoa eskatzen duela, eztabaida bera kokatzeko eta, gero, ganorazko tresnak diseinatzeko. Horrek guztiak, gainera, une honetan beharbada ez daukagun gutxieneko formakuntza bat galdatzen du, gaitasun komunikatiboetarako gidalerro sorta bat eratzeko, adibidez. Gauzak horrela, gure Gogoeta-Ekintza prozesu honi zintzotasuna eta gardentasuna zor diogulako, erabaki dugu komunikazioaren alorrean eraginkortasuna emendatzeko tresna integral zehatzik ez proposatzea.

Dena dela, parte-hartzaileek bi elementu edo lan lerro garrantzitsu identifikatu zituzten saioetan, eta halaxe azpimarratuko ditugu.

7.4.1. Berezko espazioa Fedibertsoan

Fedibertsoa, guneak berak bere burua definitzen duen bezala, instantzia edo webgune multzo bat da, modu federatuan eta irekian edukiak partekatzen dituena. Webgune horiek independenteak izan arren, bateko erabiltzaileek beste bateko erabiltzaileekin edo haiek argitaratutako edukiekin eragiketak burutu ditzakete: jarraitu, mezua bidali, iruzkindu...

Askotariko sare alternatiboen batura horretan Euskal Herriko Herri Mugimenduek ere bere lekua izatea da proposamena, algoritmoek arautzen ez dituzten sare sozialak eta komunikazio eredu demokratikoago bat elikatzeko.

Ideia honi muga edo arazo bat ikusten diogu: abilezia tekniko zehatzak eskatzen ditu eta baliteke horrek askorengan beldurra edo errefusa sortzea. Egitekotan, guetto komunikatibo bat sortzea saihestu beharko litzateke, eta horretarako oinarri-oinarrizko bost pauso zehaztu zituzten saioan parte hartu zuten kideek:

- Eragileen mapaketa zabal bat egin
- Eragile horiek Fedibertsoan sartzera gonbidatu
- Guztien artean arauak ezarri eta horien balioa azpimarratu
- Herri Mugimenduetatik harago, norbanakoek Fedibertsoan ze toki izango duten definitu
- Fedibertsoan funtzionatu!

7.4.2. Eztabaidarako espazioak

Eragileek eta militanteek elkar ezagutzeko eta, hala, Herri Mugimenduak subjektu gisa indartzeko, eztabaida-espazioak baliabide aparta izan daitezke. Euskal Herrian egon badaude horretarako baliatu litezkeen espazioak, baina horiek biderkatu, egokitu edota hobetu daitezke.

Lan lerro konkretu batzuen bueltan ideiak elkarbanatzeaz, kontrastatzeaz, zalantzak kontsultatzeaz, elkarbizitza sustatzeaz ari gara. Eztabaidarako espazio horiek antzekoen arteko adostasunak identifikatzeko eta, horiek baliatuta, ezadostasunak argitzeko erabil daitezke, baita elkarrekin ikasi eta erronka amankomunak sortzeko ere. Era berean, eragile bakoitza zertan dabilen jakiteak indarrak batzeko eta plangintza errealagoak diseinatzeko aukera berriak ekarriko lituzke. Zentzu horretan, ezinbestekoak dira Iraultza Txikien Akanpada bezalako ekimenak, edota ildo politiko edo mugimendu ezberdinen arteko saretzea sustatzen duten bestelako espazioak ere. Norabide honetan erantzun beharreko hurrengo galdera litzateke nork hartuko duen beregain halako espazio berri bat sortzeko ardura, eta nola egin. Eskuartean dugun Gogoeta-Ekintza prozesuak ez dio erantzunik eman horri, baina behar bati buruzko ekarpenak laburbildu ditugu hemen, nahi duenak lekukoa hartu eta tiraka segi dezan.

7.4.3. Irizpide gehiago

Tresna integral zehatzik eman ez badute ere, komunikazio gabezien korapiloa askatzeko asmoz egindako saioek muin handiko eztabaidak sustatu zituzten eta hainbat ideia bateratu ere bai. Hala nola:

ERAGIN EREMUAZ

Herri Mugimenduek jendarte osoari edo, kasuan kasu, gizartearen geruza bati helarazi nahi diote bere mezua. Iritsi dadin, hartzailea ez ezik, mezua bera eta asmoa ongi definitzea komeni da, horren araberakoak izango baitira aukeratu beharreko kanala, tonua, formatua... komunikazio-ekintza osoa. Molde berberek ez dute balio edo ez dute funtzionatzen kasu guztietan, beraz, horiek banan-banan aztertu eta moduak aldiro-aldiro egokitzea da bide zuzena.

KOORDINAZIOAZ

Komunitateak eta saretzeak eragina izan dezakete kanpaina komunikatiboen porrot edo arrakastan. Elkarrekin indartsuagoak gara, baita komunikazioan ere. Edozein komunikazio ekintzatan elkartekideekin eta aliatuekin koordinatuta jarduteak ekimenaren eraginkortasuna emendatuko du. Batzuek besteen mezuei zabalpena ematea, testuinguru berberean gertatuko diren hainbat hitzorduren berri deialdi bakar batean zabaltzea... ahaleginak norabide berean metatzea, azken batean.

LEHENGO MOLDEEN POTENTZIALTASUN BERRIEZ

Sare sozialetako eskaintzen duten estimulu-uholdearen aurrean, azaleko informazio arinaren aurrean, lehengo moldeek potentzialtasun berriak eduki ditzakete. Fanzineek, esaterako, publiko jakin bati informazio garatuagoa helarazteko balio dute eta, tokian toki funtzionatzen dutenez, komunitatea egiteko baliabide ona dira.

EKINTZA ZUZENA ETA MEZUA UZTARTZEAZ

Desobedientzia ekintzek oihartzun handia izaten dute jendartean, aurkakoen nahiz aldekoen erreakzioak eragiten dituztelako eta, ondorioz, dena delako gaia mahai gainera ekartzen dute, hedabideen agendan sartzen dute. Horrek, aldi berean, ikusgarritasuna ematen dio dagokion Herri Mugimenduaren jardunari. Hain justu foku mediatikoan egote hori, denbora-tarte labur batez bada ere, ekintza zuzen puntual horren atzean dagoen diskurtso eta programa politikoa lau haizetara zabaltzeko abagune ezin hobea da. Hala ere, tankera horretako ekintzen eta zenbait borroka molderen (ekintza zuzena, desobedientzia zibila) aurrean erreakzio kritikoak agertzen direnez, horiei aurre egiteko estrategiak aldez aurretik lantzea komeni da, batez ere diskurtsoa ongi kokatzeko eta zehazteko, manipulaziorako zirrikituak ahal bezain beste minimizatzeko.

HIZKUNTZAREN ERABILERAZ

Hizkuntza gutxituen aldeko borrokan, ezinbestekoa da nork bereari eustea. Baina, era berean, hain justu hizkuntza gutxituez ari garelako,

hiztun gutxi dituzten hizkuntzez ari garelako, mezuak zabaltzeko hizkuntza hori aukeratzea faktore mugatzaile bilakatu daiteke. Norengana heltzen da mezua eta norengana ez? Nor konbentzitu nahi du mezu horrek? Iristen al zaio? Aldiz, gazteleraz edo frantsesez egiteak ez al du euskara azpiratzen? Eskuartean dugun gogoeta-ekintza honetako eztabaida-saioak ez ziren iritsi ondorio borobil batera.

SARE SOZIAL HEGEMONIKO VS. ALTERNATIBOEZ

Sare sozial alternatiboak Herri Mugimenduen jardunean interesa duen komunitate politizatu batengana heltzeko kanala dira sare sozial alternatiboak, baina jendartearen gehiengoa ez dago bertan, baizik eta hegemonikoetan. Ba al dago honetan oreka lortzeko modurik? Sare sozial hegemonikoak utzi alternatiboak indartzeko? Baina, zeintzuk dira horren albo kalteak? Komunikazioaren inguruko eztabaidagaien artean, sare sozialen afera honek korapilo handiak sortzen ditu zenbait Herri Mugimenduren baitan.

MASA KOMUNIKAZIOA VS. KOMUNIKAZIO KRITIKOAZ

Pozgarria izan ohi da mezua jende askorengana iritsi dela jakitea. Baina, mezuak aldaketarik eragin al du hartzaile horien guztien subjektibitatean, diskurtsoan edota praktikan? Kopurua ez da, ez behintzat beti, eraginkortasunaren bermea. Eraginkorragoak izan al daitezke jende gutxiagorengana iritsi arren kalitate handiagoa duten bestelako komunikazio moldeek?

7.5. Plangintza errealistak eta borroken uztartzea

Herri Mugimenduek azken burura eramateko moduko plangintzak diseinatzeko duten zailtasuna gurpil ero baten modura irudika daiteke: helburuak ezartzen ditugu, bideak oztopoak eta mugak agertzen dira, baina baita lorpenen bat... eta orduan ilusioa pizten da berriz, kideek motibazioa berreskuratzen dute eta helburu berriak irudikatzen dituzte.

Korapilo honen deskribapenean adierazi genuen moduan, xede horiek, maiz, gainditu egiten dituzte eragileen eta militanteen gaitasunak, askotariko esparruetan gainera. Sarri, anbizio handiegiko xedeak

izaten dira taldearen ahalmenarentzat, eta ez dira norbanakoen gogoarekiko edota prestasunarekiko proportzionalak ere.

Hain justu, borrokak uztartzea izan daiteke baliabideak, indarrak eta gogoak optimizatzeko bidea, baina konfluentzia hori lortzeak ere ez dirudi lan erraza. Izan ere, nork bere diskurtsora beste borroken mezuak gehitzea ez da borrokak uztartzea. Zapalkuntzak anizkoitzak dira, herri batek edota gorputz batek pairatu ditzakeen eskubide urraketek eta indarkeriek geruza asko dauzkate, biografia bakar batean aldagai asko gurutzatzen ahal dira. Horregatik, menderakuntza multidimentsional horien aurrean, borrokak ere halakoa behar du izan.

7.5.1. Plangintza errealistak gauzatzeko jarraibideak

Konponbideak bilatzera bideratutako saioetan, plangintzen diseinuari dagokionean, askotariko ideiak eta proposamenak atera ziren mahai gainera. Guzti horien artean, Amillubi taldearen 'Proiektuak erabakitzeko protokoloa' da tailerretan jaso genituen beharrizan, erreferentzia eta aldarri guztiekin hobekien bat egiten duen edo horiek hobekien asetzen dituen baliabidea. Horrexegatik aukeratu dugu plangintza errealisten aferari erantzuteko trena integral gisa.

Protokolo hori zertan datzan garatu aurretik, baina, 'Euskal Herriko Herri Mugimendua(k) eraginkorra(k) ote?' prozesu honetan parte hartu duten kideen beste ekarpen batzuk ekarri nahi ditugu lerrootara. Ideia ekaitzetatik abiatu eta ideia horien arteko loturak garatuta, kideek honako hauek adostu zituzten jarraibide nagusi gisa.

MALGUTASUNA ETA OREKA

Plangintzak diseinatzerakoan malgutasunez jokatu behar da, nola helburuei dagokionez hala kideei dagokionez, baita aurreikuspenak aldatzeko bada ere. Lanak ongi identifikatu eta zereginak era orekatuan partekatu behar dira militanteen artean, betiere batzuen eta besteen egoerak eta prestasuna kontuan hartuta. Barne antolaketa berregin, beharrezkoa bada, eta soziokrazia praktikatu. Ardurek aldi baterako izan behar dute, txandakakoak, horrek botere desorekak ekidingo dituelako eta egiazko aniztasuna bermatuko duelako: kide guztiak proiektu horren parte sentitzea, beren ekarpenek eta iritziek axola dutela hautematea.

IRIZPIDEAK FINKATU

Malgutasunak, baina, ezin du norabidea lausotu. Horretarako, gaiak eta eginbeharrak lehentasunen arabera ordenatzeko irizpide taula bat osatzea argigarria izan daiteke. Lehentasun-mailak egingarritasunarekin ere izango du zerikusia. Azken helbururanzko bide horretan mugarriak finkatzeak Herri Mugimenduetako kideen motibazioa sustenga dezake, helburu txikiagoak edo epe laburragokoak erdiestea aurrera segitzeko hauspoa izan daiteke.

KANPOKO BEGIRADA

Taldearen inertzietatik at dagoen kanpo-begirada bat ekartzea lagungarria izan daiteke plangintzen bideragarritasuna bermatzeko. Hortaz, dinamizazio politikoa tresna eraginkorra izan daiteke.

DINAMIZAZIOA

Taldeak dinamizatzea ez da gauza erraza. Esperientzia galdatzen du, baita formakuntza espezifikoa ere eta, horrenbestez, horretara bideratutako denbora edota dirua. Kanpo-gidaritzaz dinamizatu daitezke plangintzak egiteko batzarrak eta prozesuak, edota berezko ereduak eta gidak sortu. Eragileaz kanpoko baliabide humanoen beharrak, edota kideak horretarako liberatzearen ideiak, bestalde, diru-laguntzen eta baliabide ekonomikoen debatea dakar.

FORMAKUNTZA POLITIKOA ETA TEKNOLOGIKOA

Dinamizazioren ardura kanpoko aktore baten esku utzita ere, eta Herri Mugimenduek elkar laguntzea eta jakintza-trukea egitea posible bada ere, komenigarria da eragile guztiek gutxieneko formakuntza politikoa jasotzea. Beste behin, baliabide materialek zein ekonomikoek baldintza dezakete Herri Mugimenduek beren kideak hezteko duten gaitasuna (ez guztiz, formakuntzarako bitartekoak doan eskaini eta eskuratzen ahal dira eta). Formakuntza behar da, baita ere, teknologien esparruan. Teknologiak baliabide garrantzitsua dira dagoeneko, eta are garrantzitsuagoak izango dira etorkizuneko edozein estrategiatan. Eremu honetan ere burujabetza ziurtatzeko, Herri Mugimenduek, baliabideak ez ezik, gaitasunak garatu behar dituzte.

7.5.2. Proiektuak erabakitzeko protokoloa (Amillubi taldea)

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatzen dituen irabazi asmorik gabeko elkartea da Biolur. Azken horrek, besteak beste, Amillubi proiektua du martxan Iraetako (Gipuzkoa) izen bereko baserriaren bueltako lurretan. Biolurreko hainbat kidek, baserritarrek, ekoizleek, herritarrek eta eragileek osatzen dute Amillubi ekimenaren talde eragilea eta, besteak beste, proiektu agroekologikoak zehazteaz, ibilbide sozioekonomikoa jorratzeaz eta arlo komunikatiboa lantzeaz arduratzen dira.

Amillubi taldeak darabilen 'Proiektuak erabakitzeko protokoloa' ezin egokiagoa iruditzen zaigu plangintza errealen korapiloa askatzeko tresna gisa.

Protokolo honek hiru une edo aldi aurreikusten ditu Herri Mugimenduek eduki dezaketen edozein erabakitze-prozesutan.

- Baietz edo ezetz esan aurretik: eskaera baloratu eta erabakia hartu.
- Prozesuan zehar: erabakia eta prozesua berrikusi.
- Bukaeran: egindakoa eta bizitakoa ebaluatu.

PROIEKTUAK ERABAKITZEKO PROTOKOLOA

I) BAIETZ EDO EZETZ ESAN AURRETIK

Egin beharreko lehenengo galdera ez da soilik "egin dezakegu?", baizik eta "egin nahi dugu eta komeni zaigu?"

> Norbanakoek bere buruari egin beharreko galderak:

- Zenbateraino da garrantzitsua hau niretzat? (garrantzia)
- Zenbateraino daukat egiteko gogoa? Zer irabaziko dugu honekin? (motibazioa)
- Une honetan ba al daukat horretarako behar den energia, denbora eta indarra? (energia eta gaitasuna)
- Zer suposatuko du niretzat? Zer utzi beharko dut alde batera? (kostua)

Adibidea: hitzaldi baterako gonbidapena.

"Hitzaldi bat ematera gonbidatu gaituzte. Gaia interesgarria da eta gure lanarekin lotura dauka, baina hurrengo bi asteetarako beste lan batzuk pilatuta ditugu. Benetan merezi al du gure lehentasunak aldatzea? Gogoz egingo genuke? Zenbat energia eskatuko liguke?"

> Taldeari luzatu beharreko galderak:

- Zein da benetako helburua? Zer lortu nahi da? (helburuak)
- Proiektu honek beste helburu edo proiektu batzuk ere aurrera ateratzeko balio al dezake? (aldiberekotasuna)
- Beste prozesu batzuekin lotu eta aprobetxatu al daiteke? (sinergiak)
- Zenbat kide behar dira egiteko? Nork har dezake ardura? (pertsonak)
- Zenbat denbora galdatuko du benetan? (denbora)
- Zein baliabide behar ditugu? Baditugu? (baliabideak)
- Gure egungo plangintzan sartzen al da? (antolaketa)
- Zer ekarriko dio taldeari? Eta zer kostu izango du? (eraginak)

Adibidea: proiektu batean parte hartzeko proposamena.

"Beste erakunde batek proiektu batean parte hartzea proposatu digu. Proiektuak interes handia du, baina gutxienez hiru pertsonaren lana eta sei hilabeteko konpromisoa galdatzen du. Gure beste proiektu batekin uztartu dezakegu? Nork egingo luke? Zein lan utziko luke beste hau egiteko?"

> Balorazioa egin ondoren, hiru erabaki posible:

- Bai: proiektuak zentzua dauka, baliabideak baditugu eta konpromisoa hartzeko prest gaude.
- Bai, zenbait baldintzarekin: Interesatzen zaigu, baina baldintza batzuk adostu behar ditugu: epeak, dedikazioa, pertsonak, helburuak...
- Ez: Interesgarria izan daitekeen arren, une honetan ez dator bat gure lehentasunekin edo ez daukagu behar adina baliabide.

  (Ezetz esatea ere erabaki baliotsua da. Ez baita aukera bat galtzea soilik; beste lehentasun batzuei bai esatea ere bada).

Adibidea: hitzaldi baterako gonbidapena.

Bai: "Bai, gaia gure lanarekin lotuta dago eta prestaketa egiteko bi aste dauzkagu"

Bai, baina baldintzekin: "Bai, baina gehienez bi orduko prestaketa eskaini dezakegu eta data aldatu behar dugu"

Ez: "Eskerrik asko gonbidapenagatik, baina une honetan ezin diogu behar duen dedikazioa eskaini"

II) PROZESUAN ZEHAR

Baietz esan ondoren, erabakiak ez du zertan behin betikoa izan behar. Abiatu bada ere, prozesua bera eta hartutako erabaki berrikustea komeni da.

- Proiektua aurreikusitakoaren arabera al doa aurrera?
- Prozesua zaintzen ari al gara?

– Parte hartzen ari diren pertsonak zaintzen ari al gara?
– Denborek eta lan-kargek aurreikusitakoarekin bat egiten al dute?
– Hasieran planteatutako helburuek zentzua izaten jarraitzen al dute?
– Hasieran pentsatu ez genuen zerbait agertu al da?
– Zer aldatu genezake proiektua, prozesua edota pertsonak hobeto zaintzeko?
– Beharrezkoa bada, murriztu, aldatu edo bertan behera utzi dezakegu?

Adibidea:

"Proiektua martxan jarri genuenean hiru pertsonak parte hartuko zutela aurreikusi genuen, baina orain ikusten dugu bost pertsonaren dedikazioa behar dela. Hasierako konpromisoari eutsi behar al diogu? Esparrua murriztu dezakegu? Epea luzatu? Edo proiektutik atera?"

IIII) BUKAERAN

Proiektua burututakoan, emaitza ez ezik, proiektua bera, prozesua eta pertsonak nola aritu diren eta nola zaindu ditugun ere ebaluatuko dugu, esperientzia hori benetako ikaskuntza izan dadin.

Emaitza:
– Lortu al ditugu hasieran planteatutako helburuak?
– Espero genuen ekarpena egin al du?
– Merezi izan al du egindako ahaleginak?

Prozesua:
– Prozesua egokia izan al da?
– Zer egin dugu ondo?
– Zer hobetu genezake?
– Aurreikusi gabeko zein arazo edo aukera agertu da?

Pertsonak:
– Pertsonak zaindu al ditugu?
– Lan-karga eta arduren banaketa egokia izan al da?
– Nola bizi izan dugu prozesua?
– Gogoz eta zentzuz aritu gara?
– Zenbateko eta nolako kostua izan du proiektuak guretzat?

Ikaskuntza:
– Zer ikasi dugu?
– Hurrengo batean zer egingo genuke berdin?
– Zer egingo genuke beste modu batean?
– Antzeko eskaera bat etorriko balitz, berriro baietz esango genuke?

7.5.3. Borrokak uztartzeko jarraibideak

Borroken uztartzeak Herri Mugimenduen arteko aliantzak sustatzea eta indartzea inplikatzen du, sareak lantzea, elkarlana bideratzea eta elkar zaintzea baita ere. Gure borroka logika eta ekinbideetan soilik gure alorrari ez dagozkien aldarrikapenak txertatzea ere bada borrokak uztartzea. Hau da, borroka guztiak zeharkakoak direla ulertzea eta horri ekitea. Esaterako: talde transfeminista batean euskararen aldeko eta arrazakeriaren aurkako logikak zein aldarrikapenak txertatzea, edota talde antiespezista batek independentziaren aldeko ekinbideak bere egitea.

Hain zuzen hori guztia lortzeko bidean egin beharreko ahalegin inbertsioa da, beharbada, eragileei korapilatzen zaien zailtasun gehigarria. Eta zalantzak agertzen dira: norekin egiten ditugu aliantzak eta zertarako? Gure eragilearen interes hutserako ala borroka guztien onurarako?

Zubiak eraikitzeko erronkari aurre egiteko erreminta lagungarri gisa, 'Bost urrats Elkarlanerako' izeneko ariketa proposatuko dugu. Baina, hori zehaztasun gehiagorekin deskribatu aurretik, gogora ekarri nahi dugu itxiera faseko saioetan parte hartu zuten pertsonek gai honen inguruan eztabaidatu eta ondorioztatu zutena, mami nagusia.

- Elkarrekin etorkizun amankomuna irudikatzeko, elkarrenganako ezagutzatik eta konfiantza politikotik pentsatutako proiektu amankomun bat behar da.
- Polimilitanteak bagara ere, beste proiektuak ezagutzea falta zaigu. Zer ari da gertatzen Euskal Herrian? Zertan ari dira beste eragileak? Gabezia horri aurre egiteko hainbat ekimen badira martxan: Burujabetzaren Aldeko Mugimendua (BAM) Euskal Herriko Herri Mugimenduekin batera osatzen arin den mapaketa, esaterako, mugikorrerako aplikazio praktiko baten forma hartuko duena. Eta hainbat agenda ere bai: *KLAK*-ek Instagramen argitaratzen duen Gazte Mugimenduen agenda, Ibaizabal aldeko eragile eta gune autogestionatuen Lubaki Agenda, Donostiako Ezker Nodoa, Gedar Langile Kazetako agenda eta abar.
- Harremanak sendotzeko, gehiagotan egon behar dugu elkarrekin; agendak eta espazio fisikoak partekatu behar ditugu, eta, falta badira, sortu egin beharko ditugu.

– Saretzea, maila formalean ez ezik, testuinguru informalagoetan ere egiten da. Bazkariak, dantzak, parrandak, bizipoza... behar ditugu!
– Elkartruketik sor daitezkeen frikzioak saihesteko modua zera da: gure pribilegioen kontzientzia hartu eta horiek alde batera uztea, begirada nork bere zilborretik altxa eta aukera berriak ikustea, entzute aktiboa egitea, besteen iritziak errespetatzea, aurreiritziak errefusatzea eta marra gorriak edo mugak ere ezartzea.

7.5.4. Bost urrats elkarlanerako

Herri eta auzoetan diharduten eragileen arteko elkarlan dinamikak diseinatzeko lagungarriak izan daitezkeen pausoak jaso ditugu 'Bost urrats elkarlanerako' izeneko ariketan.

Hala ere, azpimarratu nahi dugu helburua ez dela lanabes hori aplikatzen duten eragileek beren burua elikatzea jende gehiago erakarriz edota anitzagoak bilakatuz. Aitzitik, 'gure' mugimendua indartzeko 'besteak' baliatzearen logika hori arbuiatu eta askotariko eragile, ideia, korronte politiko, ohitura, kultura eta pertsonen arteko elkar ulerkera eta talde-lana sustatzeko ariketa zintzoa egiteko gonbitea da. Gainontzeko borroken aldarrikapenak gurean txertatuz eta gureak besteei zabalduz, borroken arteko egiazko uztartzea antolatuz, Herri Mugimendu intersekzional, justu, anitz eta eragin-korrago bat eraiki dezakegu.

BOST URRATS ELKARLANERAKO

I) BARNE HAUSNARKETA

Eragile bakoitzak barruranzko gogoeta egitea izan daiteke abiapuntu egokia. Ondorengo oinarriak proposatzen ditugu barne hausnarketa horretarako:

- Helburuak

Xede zuzena: plafinikatu beharreko borroka-uztartze prozesuaren oinarriak kolektiboki pentsatu eta adostu.

Zeharkako xedeak: borroka, ekinbide, jarrera eta baloreei buruzko hausnarketa indibidual eta kolektiboa egin.

- Printzipioak

Zaintza hirukoitzean (Ni – Taldea – Proiektua) oinarritutako prozesua ikuspuntu nahiz lanketa transfeminista eta dekolonialetik gauzatu.

- Epeak

Eragilearen errealitatearen eta jardunaren arabera finkatu, prozesuari behar bezainbeste denbora eta arreta emanez.

- Barruranzko gogoetarako galdera lagungarriak

Non kokatzen dugu gure borroka? Ezagutzen al ditugu beste mugimendu edo pertsona batzuen aldarrikapenak eta eragiteko nahiz ekiteko moduak? Ze iritzi dugu horiei buruz?

Nola ulertzen ditugu beste mugimenduen aldarrikapenak? Gurean txertatzen al ditugu?

Zer antolatzen eta egiten dugu gure herri, auzo edo espazioko beste eragileekin batera?

Nola ulertzen dugu intersekzionalitatea edo borroken uztartzea, eta zertarako baliatu nahi dugu?

Ze aukera, arazo, indargune eta ahulgune ditugu auzoan, herrian edo gure espazioan uztartze hori gauzatzeko?

Nondik, nola, norekin eta zein helbururekin abiatu genezake elkarlan hori?

II) HERRI MUGIMENDUEN MAPAKETA

Gure herri, auzo edo espazioaren azterketa egingo dugu, bertan aritzen diren gainerako eragileak, kolektiboak, mugimenduak, taldeak edota norbanako aktiboak identifikatu eta horien guztien mapaketa ahalik eta zehatzena sortzeko. Zerrenda albait osoena izan dadin, eragite eremuko eskoletan, kirol edota sorkuntza guneetan... galdetuko dugu, adin eta espazio ezberdinak aintzat hartuz eta, hala, ohikoan aritzen garenoz harago zabalduko dugu ortzi-muga.

Eragile horiei buruzko hainbat datu bildu ditzakegu, aukeran:

Eragilearen izena

Borroka arloa

Aldarrikapenak

Adin tartea

Eragite eremua

Bestelakoak

III) ELKAR ERAGITEAK AZTERTU

Mapaketan identifikatu ditugun eragile horiekin sortu nahi dugun edo sor dezakegun balizko elkarlanaz hausnartzeko tenorea da. Azterketa hori bideratzeko honako galdera hauek lagungarriak izan daitezke:

Zein harreman dugu gaur egun eragile horiekin? Kideak ezagutzen al ditugu? Harreman zuzena al daukagu?

Zer sortu nahi dugu eragile horiekin?

Zertarako edo zein helbururekin?

Nolako uztartzea proposatzen dugu? Elkarren berri izateko bilkurak; aldarrikapenen trukaketa eta bateratzeak; ekintza/jardunaldi/hausnarketa amankomunak; partekatutako aisialdi aldarrikatzailerako aukerak...?

IV) ONDORIOEN ARABERAKO ERABAKIAK

Plangintza uztartua zehazteko prest gaude. Beste eragileekin adostuko dugun proiektu hori prestatzeko, liburu honetako 'Plangintza errealistak gauzatzeko jarraibideak' eta 'Proiektuak erabakitzeko protokoloa' (74. eta 76. orrialdeak hurrenez hurren) puntuetan jasotako irizpideak argigarriak izan daitezke.

V) PLANGINTZARI EKIN

Urrats guztiak beharrezkoak eta prozesuaren parte izan dira, eta azkena dator: gauzatzea. Horretarako, bidean ikasitako guztia baliatu eta zalantza berriei kolektiboki erantzuten saiatuko gara. Halaber, proiektu berriaren jarraipena egiteko, gomendagarria da 'Proiektuak erabakitzeko protokoloa'-k (76. orrialdea) proposatzen duen epe erdiko balorazioa. Izan ere, finkatutako helburuak erdiesteak ez ezik, bidean sortzen ditugun harremanek eta lortzen ditugun zeharkako garaipen txikiek ere bilakatzen dituzte Herri Mugimenduak eraginkor.

8. ELKARTRUKEA ARGENTINAN

Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoaz hausnartzeko eta eragiteko gaitasun hori areagotzeko prozesu honetan, Talde Motoreko kideok argi genuen eurozentrismoa arbuiatu behar genuela, begirada zuritik aldendu. Euskal Herrian eta Euskal Herriaz gogoeta egiteaz gain, bertako errealitateak nazioarteko egoerarekin eta, batez ere, Hegoalde Globalarekin duen loturaz ere pentsatu nahi genuen. Bestelako jakintza, esperientzia eta filosofiei lekua egin behar diegu gizartea eraldatzeko bide honetan.

8.1. Hegoalde Globalaren begirada

Hegoalde Globalaren begirada eztabaidara ekarriko genuela bermatzeko, Euskal Herriko hainbat Herri Mugimendutako ordezkariekin taldea osatu eta Argentinara joateko delegazioa antolatu genuen. Jarraipen Batzorde Zabaleko eragileei eskaini genien delegazio horretan parte hartzeko aukera. Hala, euren aukeren arabera, Mugimendu

erreferentzial ezberdinen ordezkaritza ekarriz eta, prozesuaren gainerako ataletan bezala, aniztasuna kontuan hartuta eratu genuen taldea.

Ondorengo Mugimenduetako ordezkariek osatu zuten delegazioa:

- Joxemi Zumalabe Fundazioa
- Bizilur Elkartea
- Mugimendu (Trans)Feminista
- Jauzi Ekosoziala
- EHZ Euskal Herria Zuzenean
- EHGAM Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua
- Bilboko Konpartsak
- NOR Euskal Herria Antiespezista
- Ahotsa.info

Elkartruke esperientzia honen antolaketari dagokionez, bi indargune dira nabarmentzekoak:

Alde batetik, taldearen aniztasunari eta Herri Mugimendu ezberdinen ordezkaritzari dagokionez, bete-betean asmatu genuela uste dugu. Zaila izaten baita hainbesteko aniztasunarekin delegazio bat osatzea eta, ondorioz, hango eta hemengo Herri Mugimenduen arteko halako elkarrizketa aberatsak sustatzea.

Bestetik, balioan jarri nahi dugu Argentina aukeratu izana. Maiz, arrakasta eduki duten proiektuak ezagutzera edo Herri Mugimenduek haizea aldeko duten herrialdeetara joateko joera izaten dugu Euskal Herriko militanteok halako bidaiak egiten ditugunean. Kasu honetan, ordea, olatu erreakzionarioa eta Javier Milei-ren gobernua tarteko, herria bereziki zaurgarri eta Herri Mugimendua bereziki kolpatuta dagoen herrialde bat era joatea era bakigenuen. Hain justu, hain aurkakoa den testuinguru politiko, sozial eta ekonomiko horri erantzuteko eta aurre egiteko josten ari diren alternatibak, diskurtsoak, artikulazioak... ezagutzeko. Oldarraldi ultrakontserbadorea joera globala den honetan, Euskal Herrian ere ez gaude salbu, eta irakaspen interesgarriak jaso genituen horri erantzuteko moduei dagokienez.

Delegazioa osatuta, maletak itxi eta hamar eguneko bidaia egin genuen 2026ko otsailaren 22an hasi eta martxoaren 4ra arte. Hamar egun horietan, Buenos Airesen eta Kordoban izan ginen, ordezkatzen

genituen eragileen antzeko borroka eremuetan diharduten argentinar eragileekin solasteko eta elkartrukea bideratzeko asmoz. Agenda azken minuturaino bete genuen tailerrekin, mugimendu ezberdinei bisitak eginez, proiektuak ezagutuz, Euskal Herriko Herri Mugimenduen arteko sareak josten... eta, batez ere, ikasten.

Bidaiak eman dituen gauza positibo guztietan sakontzen hasi aurretik, ordea, ezin dugu aipatu gabe utzi delegazioa osatzen zuen kideetako batek jasan zuen errepresioa: Buenos Airesko aireportuko aduanan gelditu eta, arbitrariotasun osoz, herrialdean sartzea galarazi zioten, bere aurkako inolako zigorrik indarrean egon gabe ere. Antza, Hego Amerikan geroz eta ohikoagoa da arrazoi politikoengatik askatasun indibidualak modu horretan urratzea. Gure azalean nozitu genuen, eta salatu nahi dugu.

Denbora estua genuen Argentinan ezagutu nahi genituen eragile guztiekin egoteko eta, horregatik, hitzorduei ahalik eta zukurik handiena ateratzeko, jardunaldi bana antolatu genuen Buenos Airesen eta Kordoban. Bi kasuetan, elkarrizketa internazionalista sustatzeko eta ahalik eta jende gehien hausnarketara ekartzeko espazioak sortzen saiatu ginen. Orotara, 60 elkarte, erakunde eta eragile baino gehiago hurbildu ziren gure deialdiari erantzunez: eragile sozioekonomikoak, askotariko nekazari mugimenduak, gune autogestionatuak, ezkerraren aniztasuna, transfeministak, garapen komunitarioaren aldeko eragileak, herri hezkuntza eta komunikazio alternatiboarekin lotutakoak... eta abar.

Ondorio nagusi edo orokor bat azpimarratzekotan, esango dugu guk Euskal Herrian eta Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa baldintzatzen duten faktoreei buruz pentsatzen identifikatu genituen 'korapilo' horiek berak antzematen dituztela Argentinako militanteek ere, bistan denez, hango berezitasunekin. Horiek askatzeko martxan jartzen dituzten tresna eta estrategiak ere beretsuak dira eta, hortaz, hango eta hemengo egoeren arteko antzekotasuna uste baino handiagoa da.

Irakaspen gehiago ere eman zizkigun bidaiak: Hegoalde Globalaren eta Iparralde Globalaren arteko lotura uste baino askoz gehiago nabaritzen dutela gorputzek, eta naziotasuna eta lurralde antolaketaren ondorioak bizitzeko askotariko moduak daudela, besteak beste.

8.2. Delegazioko hainbat kideren balorazioak

Zaila da bidaiak egin digun ekarpen osoa lerro gutxi batzuetan jasotzea. Eta ez da erraza ere esperientzia bera deskribatzea. Irakaspen politikoak, berrespenak eta ezustekoak, pertzepzio subjektibo zein kolektiboak, balorazioak, ondorioak eta galdera berriak... guztiak nahastuz edo tartekatuz, Argentinan izan zen delegazioko zazpi kideri eskatu diegu han bizitakoari buruz gogoeta-testu bana idazteko.

Elkartruke ariketa hura zer izan zen modu zabalean kontatzeko eta, era berean, irakurlearen hausnarketa aktibatzeko formularik egokiena iruditu zaigu.

Aritz Landeta Terceño (Jauzi Ekosoziala)

Kontraste ariketa bat da Argentinara joan ginen kideok han egin genuena, batez ere gure begirada eta hausnarketak testuinguru batetik atera eta beste batean txertatu genituelako. Horrek balio du de facto ontzat ematen ditugun elementuak zalantzan jarri eta erlatibizatzeko, gure errelatoak unibertsaltzat ez jotzeko eta ulertzeko formulak, korapiloak eta errealitateak ez direla bat eta bakarra. Hori jakin bagenekien lehenagotik, baina jakitea ez da nahikoa izaten, bizi ere egin behar da.

Euskal Herriko Herri Mugimenduei buruz ozeanoz bestalde gogoeta egiteak beste termino batzuetan eta beste pertsona batzuekin aritzea galdatzen du. Hizkera aldatu behar duzu, deskriptiboagoa izan behar duzu, zorrotzagoa, 'el Movimiento Popular' ez delako 'Herri Mugimenduak'-ek duen esanahi osoaren itzulpen fidela.

Irakaspen asko ekarri ditugu Argentinatik eta esperientzia sakon eta emankorra izan da. Guk –hamar laguneko delegazioa, nork beretik, bere eragiletik– euren errealitateari begiratu ahala Argentinak ere begirada itzuli digu gure garaipen eta porrotekiko interesetik.

Elkarren artean hain desberdinak diren bi prozesu nazional alderatzetik ondorio interesgarriak atera ditzakegu. Bai Euskal Herrian eta baita Argentinan ere prozesu koloniala eman dela adieraztea nahiko sinplifikatzailea da eta ulertzen dut apur bat probokatzailea ere izan daitekeela, logikoa da. Izan ere, Euskal Herriko nazio askapen mugimenduak asko edan du hainbat prozesu dekolonialetako nazio

askapen mugimenduen printzipio eta praktiketatik: Aljeriako FLN, Vietnamgo Vietcong, Nikaraguako Mugimendu Sandinista, Kubako Iraultza... eta horrek Euskal Herriari dekolonialitatearen markoak aplikatzera eraman gaitu maiz. Baina banaketa lerro bat marraztu nahi dut Euskal Herriak, Irlandak, Kataluniak, Eskoziak eta beste hainbat lurralde europarrek izandako asimilazio prozesuen eta Hegoalde Globalean gertatutako kolonizazio prozesuen artean; prozesuak zein ondorioak ezberdinak direlako.

Argentinaren eta, oro har, gaur Latinoamerika bezala ezagutzen dugun horren kolonizazioa 1492an hasi zen. Desjabetze prozesu basati hark –zilarra, meatzaritza– ahalbidetu zion Europari gaur egun duen ahalmen ekonomikoa edukitzea. Hasieratik, beraz, baliabideak erauzi eta ustiatzeko gune gisa hauteman zituzten koloniak. Argentinak 1880an eskuratu zuen independentzia, baina estatu neokolonial gisa eraiki zen, funtsean esportatzaile izateko, Metropoliaren mesedetan. Euskal Herriak bizi izan duen zapalkuntza prozesuak, aldiz, estatu modernoaren (Espainia, Frantzia) eraikuntzaren baitako asimilazio eta uniformizatze prozesu bati erantzuten dio. Gainera, euskal herritarrok europar estraktibismoaren parte izan gara. Gure portuetatik mundu osora itsasoratu dira ontziak, besteak ebanjelizatzera, besteren ondasunak ustiatzera eta horiekin merkataritza eginda aberastera.

Zer antzekotasun dute, beraz, Euskal Herriaren asimilazioak eta Argentinaren (eta Abia Yala osoaren) desjabetzeak? Bada, biak ala biak proiektu modernoaren biktimak direla. Amerikatik lapurtutako baliabideekin finantzatu zen europar estatuen sorrera, eta estatu moderno berri horiek asimilatu zituzten Europako herri zaharrak. Bi kasuetan, gainera, modernitateak 'zibilizazioa Vs. basakeria' dikotomia ezarri zuen: kristauak eta paganoak, demokratak eta biolentoak... proiektu modernoaren sustatzaileak eta horien biktimak, azken batean.

Dena dela, biktimez ari garenean, ez dugu esan nahi denak modu berekoak direnik. Eta helburua ere ez da biktimen arteko hierarkizazio bat egitea. Arreta jarri behar zaie kolonialitatearen eta lurralde uniformizazioaren mekanismoei, horien arteko ezberdintasunei, ulertzen saiatu eta dagozkigun ardurak geure gain hartu.

Gatozen garai berrietara. Rosa Luxenburgo Fundazioko kideekin Buenos Airesen egin genuen saioan, René Zavaleta Mercado soziologo boliviarraren aipu batzuk ekarri zizkiguten gogora. Haren hitzetan, historian badira "une konstitutiboak", zeinetan "hurrengo urteetan jango den ogia laberatzen den". Momentu horiek trantsizio garaiak dira, beraz; krisi garaiak, aukera-leihoak ixten eta zabaltzen diren garaiak.

Argentinaren historia garaikidean, 1976ko kolpe militarra eta 2001eko krisialdia dira bi mugarri garrantzitsuenak. Baina, Herri Mugimenduez edo, kasu honetan, 'Movimiento Popular' delakoaz ari bagara, 2001ekoa da bereziki esanguratsua. Urte hartan Argentinak zorra suspenditu zuen. Hondoratze ekonomiko eta politikoa erabatekoa zen. Horri erantzunez, piqueteroak altxatu ziren, auzo asanbladak sortu ziren, Movimiento de Trabajadore Excluidos (MTE) eratu zen, Unión de Trabajadores y Trabajadoras de la Economía Popular (UTEP)... eta, geroago, Kirchnerismoa (2003-2015) eta Herri Mugimenduen instituzionalizazioa: piquetero askok gobernu karguak hartu zituzten, gizarte planak ezarri zituzten eta langabezia jaitsi zen. Kontrara, Mugimenduek bere izaera autonomoa galdu zuten. 2001eko une konstitutiboa funtsezkoa izan da Argentinako ezkerraren historian eta CINAL prozesuaren (Ciclo de Impugnación al Neoliberalismo en América Latina) aitzindari: Latinoamerika osoko ezkerreko olatu bat, enpresen nazionalizazioak, prozesu konstituziogileak eta Herri Mugimenduen instituzionalizazioa ekarri zituena.

Batzuen aburuz, Mileiren gobernua Argentinan CINAL zikloari itxiera ematera etorri da. Hain justu, ultraeskuinaren gorakada kultural eta elektorala izan zen gure delegazioak Argentinara eta ez beste herrialde batera bidaiatzearen arrazoia. Han ezagutu ditugun antolakundeak eta errealitate sozialak alderik alde gurutzatzen ditu testuinguru berriak, errepresioaren zein prekarietatearen bitartez, eta agenda politiko zein mediatikoa bereganatzearen bitartez.

Zalantzarik gabe, Mileiren garaipena sekulako kolpea izan da Argentinako Herri Mugimenduarentzat; ez soilik politikoa, baita morala ere. Ikusi dugu, gainera, eta eurak ere jakitun dira, ez dagoela Mileiri aurre egiteko batasun politikorik. Noraeza eta etsipena oso presente daude, eta Mileiren pitokeria berri bakoitzak gero eta gutxiago

harritzen ditu. Zentzu horretan, oso interesgarria iruditu zitzaidan Villa Doloreseko (Traslasierra, Cordoba) Monte Adentro elkartearen lokalean bazkalostean izan genuen hizketaldia. Besteak beste, ondorioztatu genuen eskuin muturrak, tokian toki, askotariko izaerak dituela, ez daukala posizio berbera Hungarian, AEBetan, Argentinan edo Espainian. Baina, era berean, badituzte zenbait elementu komun, besteak beste, modernitatearen eta estatu liberalaren inpugnazioa. Eta, gainera, alternatiba errealik eskaini gabe, soilik libertarismoa, autarkia eta funtsik gabeko halako aterabideak. Izan ere, ultraeskuinak ez du ordena eta demokratizazioa agintzen, soilik haustura.

Eta, beharbada, horrek ustekabean harrapatu du ezkerra, ez du jakin halakorik aurreikusten. Espero zitekeen eskuinak kapitalismoa justifikatzea, edo estatu liberala hobeto kudeatzeko proposamen bat... ez marko demokratiko liberalaren inpugnazio bat. Baina hara non komunitatea desegin eta bizitza duinen aldeko proiektu oro baztertuta ere, eskuin muturrak arrakasta lortu duen! Gizartearen zati batek antzematen duen estatuaren porrotari erantzun bat ematen diotelako izan dute arrakasta lider horiek. Estatuaren porrota zenbait herrialdetan agerikoagoa da eta, ondorioz, erreakzioak ere arrakasta handiago izan du. Eta hortik tiraka, pentsa genezake zer ostia ari den ezkerra epelkeriatan! Baina uste dut ez dela hain erraza, eta leku askotan norgehiagoka demokratikoak oraindik zilegitasun sozial handiegia duela. Ez dira kasualitatezkoak Mileiren gobernua Argentinan edo Trumpena AEBn; ongizate estatuaren kontsentsuen desagertzea gehien eta larrien nabari den herrialdeetan egin du agerpen indartsuagoa ultraeskuinak.

Eta, honaino iritsita, esango dut ez daukadala ondorio garbirik testu hau borobiltzeko. Argentinak eta Euskal Herriak elkarri ispilu gisa balio izan diote, baina ez berdinak direlako, baizik eta modernitatearen proiektuaren aurpegi ezberdinak islatzen dituztelako. Biek dute zer konpondu, zeren alde borrokatu eta zer eraldatu, biek dituzte erronkak, baina nork bere erritmoan eta bere korapiloekin. Herri Mugimenduen eraginkortasuna ez da soilik garaipen edo porrot instituzionalen arabera neurtzen, momentu konstitutiboetan ere jokatzen da, eta horietan erabakitzen da zein norabidek hartuko duen indarra hurrengo hamarkadetan.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dut Argentinara egindako bidaiak erakutsi digula ez dagoela eredu unibertsalik, ez iraultzarako ezta erresistentziarako ere. Baina badago, agian, Enrique Dusselek *'Hacia una teoria de la modernidad/colonialidad'* liburuan dioen bezala, "pensarse a uno a través del otro" –nork bere buruan pentsatzea besteen bitartez– horretan sakontzea, komunitatean oinarritutako subjektibotasunak berpiztea, eta ulertzea bakarrik ezin garela izan, eta ez garela berdinak. Horretan lagundu digu esperientzia honek, eta horretan jarraituko dugu lanean.

Eskerrik asko Joxemi Zumalabe Fundazioari eta Bizilur Elkarteari aukera paregabe hau emateagatik. Eta eskerrik asko, noski, Argentinan topatu ditugun eragile, militante, lagun eta bidelagun guztiei, begirada partekatu eta eraikitzaileagatik.

Dabid Lopategi (Bizilur elkartea)

Nire hirugarren bidaia izan da Argentinara, baina oraingoan ere kosta egiten ari zait ideia zehatzak edo egia borobilak ondorioztatzea. Ezinezkoa zait herrialde eta herri oso bati buruz aritzea soilik lurraldearen zati bat ezagutu dugulako eta, gainera, soilik gizarte antolatuko kideekin aritu garelako elkartrukean. Edozein kasutan, ausartuko naiz esatera Euskal Herriko eta Argentinako su txikien arteko elkar-elikatze ariketa izan dela, horrek dakartzan onura guztiekin; eta aterki horren pean abiatu ditut nire pentsamenduak.

Lehenik eta behin, gure delegazioaren eta Argentinako solaskideen izaerei dagokionez, esango nuke ez dugula ispilu argirik aurkitu han. Izan ere, Euskal Herriko Herri Mugimenduetako kideen ispilu diren eragile argentinarrekin elkarrizketan aritzea zen helburua, baina antolakuntzako kideok ez genuen halakorik topatu. Hango eta hemengo Herri Mugimenduen ezaugarriak eta izaera zeharo ezberdinak dira. Antzekotasun orokorrak identifikatu ditugun arren, ez dut uste bidaia honetan inork bere modukoekin egoteko aukerarik izan duenik. Ez dakit han existitu ere existitzen ote diren guk hemen daukagun eredura hurbiltzen diren eragileak. Hala ere, ezagutu dugun proiektu eta esperientzia bakoitzetik gurera zerbait ekartzeko gai izan gara guztiok.

Bigarrenik, testuinguruari dagokionez, bidaian ginela maiz aipatu nuen ideia bat errepikatuko dut: Argentina momentu historiko jakin honetan bisitatuta asmatu egin dugu. Faxismoaren gorakada globalaren aurrean Herri Mugimenduak nola antolatzen diren eta nola erantzuten duten ikusteko izugarri baliagarria izan zaigula bidaia.

Hain zuzen testuinguru berezia delako, espero ez nituen gauzak ikusteko aukera izan dugu. Esate baterako, Herri Mugimenduetako militanteen muturreko neke emozionalaren lekuko izan gara, eta nola jarraitzen duten, hiru urteren ostean, shock egoeratik atera ezinean: "Nola heldu gara gu honaino?", erantzuna aurkitu gabe segitzen dute.

Han, batasun eza pribilegio onartezina da baina, era berean, parte-hartzea ere pribilegioa bilakatzen ari da hiru edo lau ogibide txandakatzen dituzten pertsonentzat. "Desfondamiento material" –akitura materiala– esaten zion honi Luci Cavallerok. Gauzak horrela, militante batek, dituen baldintzak dituela, Mugimenduari egiten dion edozein ekarpen da estimatua eta ondo etorria.

Militantzia deserosoa ikusi dugu. Azken urteetan etsaiaren kontra etengabe borrokatzen eta galtzen ari diren arren, sinesten duten horren alde egiten segitzeko konbentzimendua dute, eta errepresioa pairatzeko eta ondorioak sufritzeko prest daude gainera.

Aldarriei dagokionez, alternatiba gehienek herriaren bizi-baldintza materialak asetzearekin dute zerikusia: elikadura, etxebizitza, enplegua, eta abar. MTE Movimiento de Trabajadores Excluidos Mugimenduaren *'Tierra-Techo-Trabajo'* –Lurra-Teilatua-Lana– leloa, edota MNCI Movimiento Nacional Campesino Indígena Somos Tierra eragilearen *'Organizar, cuidar y luchar'* –Antolatu, zaindu, borrokatu'– leloa horren adibide dira. Are gehiago, eratortzen diren beste beharrak asetzeko bideak ere aurreikusten dituzte ekimenak finkatzeko garaian: zaintzak, formakuntza politikoa, aisialdia, eta abar.

Eragile gehienak eskala nazionalekoak dira Argentinan, masa mugimendua alegia. Tokiko mugimendu, proiektu edota esperientzia gehienak handiagoa/nazionala den beste zerbaiten parte dira, edota horrekin identifikatzen dira organikoki.

Komunitatearen garrantzia eta Herri Mugimenduek horretan duten erreferentzialtasuna indartsu sumatu dugu; espazio bizigarriak eskaintzen dituztelako eta, aldi berean, arazoak konpontzeko tresnak jartzen dituztelako herritarren esku. Adibidez: otordu solidarioak.

Bi herrialdeok ditugun arazoen oinarria berbera den arren, horrek herriarengan duen eraginak eta Herri Mugimenduetatik bilatzen ditugun erantzunek ez dute zerikusirik Argentinan eta Euskal Herrian. Erresistentzia garaian gaude. Ez gabiltza sistemaren aurka borrokan, baizik eta sistemak sortzen dizkigun suak amatatzen eta sistemaren periferian bizimoduak aurrera ateratzen. Beharbada, hori da gaur egun eraiki dezakegun zerarik iraultzaileena. Argentinan, sistemaren hutsune eta akats guztiak pairatuta ere, ez dugu marko horren ukazioa kasik somatu.

Dagoeneko aipatu ditudan ideietatik ondoriozta daiteke Argentinako Herri Mugimenduen izaerak eta ezaugarriek ez dutela zerikusirik Euskal Herrikoekin. Baina sakondu dezadan hangoen deskribapenean.

Han ikusi genuenaren arabera, feministen, pentsiodunen eta nekazarien kasuan salbu, eragileen izaera ez du arlo ideologiko zehatz batek baldintzatzen, alegia, Mugimenduak ez dira aritzen, adibidez, ekologiari estuki lotuta, edo adinari, sindikalismoari, internazionalismoari, okupazioari, antiespezismoari, LGTBIQ+ kolektiboari estuki lotuta. Aitzitik, eragile gehienek ildo edo arlo horiek guztiak erabat barneratuta dituzte bere buruaren definizioan. Horrek azaldu dezake Herri Mugimenduen baitan behatu genuen parte-hartze eta militantzia anitza: adin, sinesmen, izaera, gaitasun eta jatorri guztietako pertsonek proiektu politiko-komunitario berbera partekatzen dute. Zer edo zer negatiboa aipatzearren, azpimarratuko dut lidergo edo bozeramaile posizioa duten gehienak 'porteño'-ak edo hiriburukoak eta zuri normatiboak direla.

Bestetik, formakuntza politikoan maila altua dutela antzeman genuen, eta hori hala izan zen, gainera, ezagutu genituen espazio, proiektu eta eragile guztien kasuan. Askorentzat, militantzia bera izan da eskola; baina topatu genituen, baita ere, formakuntza politikoa eragilearen

erdigunean kokatzen duten Mugimenduak ere, horretarako arduradunak izendatuz, planak diseinatuz eta baliabideak bideratuz.

Militantzia ulertzeko moduak askotarikoak dira. Gainera, Estatuaren erasoek herriaren bizitzan hainbesteko higadura eta hain eragin bortitza duten une honetan bereziki, militatzeko modu guztiak onartzeko, aintzat hartzeko eta kontuan izateko gaitasuna garatu dute Herri Mugimenduek. Askok onartu ziguten ez dutela bizitza ulertzen milintantzia barik, Herri Mugimenduan parte hartzeak bizitza zentzu guztietan hobera aldatu diela eta jaso duten guztiagatik zordun sentitzen direnak ere badira.

Bukatze aldera, Euskal Herriratzeko moduko zenbait ideia aipatuko ditut, Argentinara egindako bidaiatik eratorritako hainbat ondorio, geure egiteko interesgarriak. Hara:

Instituzio indartsuak ditugun arren, zerbitzu eta baliabide publikoak ditugun arren, eta/edo beharbada horrexegatik, Herri Mugimenduak, hein handi batean, gure komunitateetan erreferentzia izateko gaitasuna galdu du, rol hori galdu dugu. Baina erantzun guztiak ezin dira instituzioen esku utzi.

Salbuespenak salbuespen, boterearentzako deseroso izatetik urruntzen ari gara. Borroka molde batzuk instituzionalizatzen ari dira eta sistema tentsionatzeko gaitasuna galdu dugu. Gaurko militantzia eredua erosotasunean eta bizipozean datza.

Faxismoaren aurrean ez gaude uste bezain babestuta. Oldarraldi globalaren aurrean prest agertu behar dugu herri gisa erantzuteko eta komunitate mailan antolatzeko. Ezin gaitu ezustean harrapatu. Muturreko egoeraren aurrean, batasuna saihestezina bilakatu zaie Argentinan. Agian horretarako baldintzak sortzen hasi beharko genuke guk hemen. Elkarlanerako, elkarbizitzarako edo ekintza bateraturako gutxieneko baldintzak sortzen hasi beharko genuke.

Argentinan ikusi eta ikasitakoak, bestalde, landa eremuaren errealitatea eta begirada txertatzeko beharraz ohartarazi nau, baina naturaren kontserbaziotik haragoko irakurketak eginez.

Borobiltzeko, eta azken ideia-multzo gisara, han egin genituen saioetan entzun nituen aipu batzuk jaso nahi ditut hemen. Guztiek egiten diote erreferentzia Herri Mugimenduaren zatiketari, eta berehala iltzatu zitzaizkidan:

Hernan Oubiña
(Rosa Luxenburgo Fundazioako Formakuntza Politikorako Eskolaren zuzendaria)

"El reconocimiento de la diversidad no puede ser apología de la fragmentación"
–Aniztasunaren onarpenak ezin du izan zatiketaren apologia–
"Las derrotas moleculares, multitud de pequeñas batallas perdidas, provocan la derrota anímica del movimiento popular, más allá de lo electoral".
–Porrot molekularrek, galdutako borroka txiki askok, auzi elektoraletik harago, Herri Mugimenduaren porrot animikoa dakarte–

Nicolás Caropresi
(UTEP Unión de Trabajadores y Trabajadoras de la Economía Popular)
"Perdimos la capacidad de resolver problemas concretos, aunque cada vez resolvemos problemas de muchas más personas"
–Geroz eta jende gehiagoren arazoak konpontzen ditugun arren, arazo zehatzak konpontzeko gaitasuna galdu dugu–

Eñaut Retegi Lekuona (NOR Euskal Herria Antiespezista)

Norbanakoek egiten dute batura, osotasun bat ematen diote guztiari. Talderik gabe ez legoke batzarrik, eta ezingo genuke esan Mugimendua garenik. Elkartzen garenean gara Mugimendu, elkartzen garenean izan gaitezke iraultza.

Aldaketa ekintzek gauzatzen dutela ikusi dugu Argentinan. Elkartzeak aldaketa dakar batzen diren pertsonen bizitzetara. Askotan, ez da izaten ideologia konturik oinarrian, ez dago Peron, ez dago Marx. Elkarrekin bidea egiteak eta erasoei batera erantzuteak sistema honetan aurrera egiteko tresnak ematen dizkie. Oso ongi gogoratzen dut Movimiento de Trabajadores Excluidos (MTE) Mugimenduaren baitako oihalgintza-saileko kide batek esan ziguna: "Kapitalista txikiz osaturiko kooperatiba sozial bat gara". Onarpen erabatekoaz biluztu zen. Iraultza egiteko tresnak erabiliko ditugu gure burua zaintzeko baina auto-lanketarik egin gabe. Eta, ildo horretatik, ezinbestean

datorkit burura gizon feministen adibidea: pribilegioei buruz hausnartu gabe ezin da sistema aldatu.

Batzuek esango dute ideologiarik gabe ez dagoela iraultzarik, beste batzuek pentsatzen dute ekintzarik gabe dena teorian galtzen dela. Argentinako kooperatiba ezberdinetan ikusi dugu batzuek gorputza jartzen dutela eta beste batzuek teoria. Batuketa horretatik sortu dira milaka familien egunerokoa sostengatzen duten ehunka kooperatiba sozial. Ekonomia sozialaren teorialariek ez dute fokua jarri langileen formakuntzan. Gutxienekoarekin lanean hasteko gai izan dira eta abiapuntu hau oso interesgarria iruditzen zait. Kasu horietan ezin dugu ekuaziotik kendu gorputza jartzen duten langileen muturreko egoera. Behar batetik abiatu dira, biziraupenetik. Lehenik lehenengoa, esango dute batzuek, eta gero gerokoak, adibidez, iraultza. Badakigu horrek iraupen laburreko garaipenak ekartzen dituela, jarraipenik gabekoak, eta hain justu jarraipena ematea izaten da kasu askotan urratsik zailena. Asko dira borrokan eroritakoak, baina ez dira gutxi erosotasunean galdutakoak. Gutxieneko erosotasun bat daukanak baduelako zerbait galtzeko.

Euskal Herrian askotan ahazten zaigu gure abiapuntua ez dela biziraupena, edo ez behintzat Argentinan ezagutu ditugun errealitateen neurri berean. Guk, Euskal Herriko Herri Mugimenduetako militanteon komunitateak, gure burbuila honetan bizi garenok, badugu egunero non lo egin eta zer jan, beraz, gure egoera hobetzeaz ari garenean beste behar batzuk asetzeaz ari gara, edo kolektiboa du helburu. Abiapuntua askotan ez naiz ni, gu baizik. Herria, hizkuntza eta euskal nortasuna arriskuan daude, guda horiek esan gabe doaz. Gizartea aldatu nahi dugu, jakin badakigulako zenbat injustizia eta zapalkuntza dauden indarrean Euskal Herri zurian. Menderakuntza asko nozitzen ditugu, baina beste asko teorikoki ikasi egin ditugu. Horiek ikusteko, betaurrekoen metaforara jotzen dugu maiz. Gure pribilegioek eragiten dituzten zapalkuntzen nondik norakoak beste norbaitek azaldu behar dizkigu. Gainera, desberdinkeria horiek gizartean txertatuta daude ia beti, sistemikoak dira jendarte kapitalista cis heteropatriarkalean.

Mugimendu antiespezistaren subjektu politikoa gizakiz besteko animaliak izanik, oso agerikoa da gorputza nork jartzen duen eta

teoria nondik datorren. Gizakiok urteak daramatzagu teoria lantzen eta animalien askapenerako urratsen nondik norakoak diseinatzen. Ez da erraza, ez gara gu zapalduak, zapaltzaileak baizik, eta horrek abstrakzio ariketa ikaragarria eskatzen du, ez dugu lan erraza. Korapilo unibertsal bezala izendatu dezakegu, gure prozesu honetan, utopiak imajinatzeko gaitasun falta. Ortzi-muga errealik gabeko gerran ari gara. Badakigu zer ez dugun nahi, baina kosta egiten zaigu nahi dugun hori lurrera ekartzea.

Animalien Askapenerako mugimenduko kideekin haserre zeudela zioten Argentinan

laguntzaile eta bidelagun izan ditugun batzuek. Animalien zapalkuntzaren diskurtsoa besterik ez dutela ikusten eta hori inposatu nahi dutela leporatzen diete. Ez direla gai gainontzeko Herri Mugimenduekin oinarri-oinarrizko adostasunetara heltzeko. Horrek zapalkuntzen kategorizazioa dakarkit burura. Alegia, denok onartzen ditugu Herri Mugimenduak baldin eta ezkertiarrak badira; eta gainera feministak eta ekologistak badira, askoz hobe. Mugimendu antiespezistak gatazka historikoa du bere aliatuekin. Denok noranzko berean egiten dugu arraun baina gure ahotsa erdigunean jartzen dugunean inposatzaileak garela esaten digute. Beganismo eskuindarra ez da antiespezismoa, eta espezismoa defendatzen duten Herri Mugimenduek ez gaituzte serio hartzen, beraz, gure diskurtsoa erdigunera ekarri behar dugu uneoro. Erraza da Herri Mugimenduko kideok bat gatozen puntuei buruz hitz egitea, baina gatazkak erdigunean jartzeak zauriak sortzen ditu eta elkarrengandik urruntzen gaitu. Zapalkuntzen mapa zabaldu ahala (lodifobia, kapazitismoa, punitibismoa...), gure arteko arrakalak kudeatzeko tresna berriak beharko ditugu, gutxieneko oinarri komunaren ametsa ezabatzen joango delako. Ez gara denok aske izango zapalkuntzaren bat bermatzen duen sisteman bizi garen bitartean.

Kolektiboan egitearen garrantzia norbanakotik hasten dela ongi dakigu baina, Herri Mugimenduen espezializazio garai hauetan, kolektiboen sareak izan beharko dute gure batuketa gune eta helburu. Korapiloen identifikazio-ariketan lortu dugun gutxieneko oinarri komun hori maximo komun bilaka dezagun. Elkarrekin izango gara; bestela, ez da iraultzarik izango, aldaketa mugatuak baizik.

Mirari Gonzalez (Joxemi Zumalabe Fundazioa)

Argentinako bizipenari lotuta emandako urrats guztiak hipotesi, galdera eta kontraesan ugariz beteta egon dira, baita ika-mikaz ere! Baina nahasmen horren gainetik, ideia nagusi bat geratu zaigu argi: Herri Mugimenduek komunitatea ehuntzen eta sustengatzen dute, bizitzak eraldatzen dituzte eta, hortaz, ezinbestekoa da mugimenduen giharra eta bihotza indartzen jarraitzea. Eta, horretarako, oso gogoan izan behar dugu hausnarketa politikoa eta Herri Mugimenduak ez direla gauza abstraktua. Haatik, gure eguneroko bizitzan, hainbeste maite dudan maila autobiografiko horretan gauzatzen ditugun praktika, afektu zein erabakietatik eraikitzen den zerbait da.

Argentinara egin genuen bidaiak zenbait tentsiogune identifikatzeko balio izan zigun.

Makro mailari dagokionez, landa eremuaren eta hiriaren arteko gatazka nabarmenduko dut. Honetan, zaila egiten zait Euskal Herriaren eta Argentinaren arteko analisi konparatibo bat egitea. Hala ere, Cordoban egin genuen tailerrak gurera ekar daitezkeen zenbait irakaspen eman zizkigun. Lehenak espazioaren eta identitatearen arteko harremanarekin du lotura. Izan ere, ikusi dugunez, landa eremuaren eta hiriaren arteko gatazka ez da soilik afera espazial edo sinboliko bat, gatazka identitarioa ere bada eta, ondo dakigunez, identitateak ondorio praktiko eta ikusgarriak ditu.

Cordobako kideen diskurtsoetan botere-harreman horiek antzeman genituen eta Herri Mugimenduaz aritzeko bestelako hizkuntza bat eta hori ulertzeko bestelako iruditeria bat ezagutu genituen. Tailerrean bereziki agerikoa izan zen: hitz egiteko beste forma eta erritmo batzuk darabiltzate, eta erritualez beteriko (g)unea izan zen. Hala, ausartuko naiz baieztatzera Cordoban beste subjektu politiko baten lekuko izan ginela. Horrekin lotuta baina gurera etorrita, gogoeta bat: batzuek baieztatzen dutenaren kontra, landa eremuaren eta hiriaren arteko dikotomia horrek talka garrantzitsua izaten jarraitzen du eta, horrenbestez, gure prozesuetan ikuspegi hori txertatu behar dugu. Eta erronka ez da soilik okupatzen dugun espazioaz kontziente izatea, baizik eta sortzen diren mugak eta botere-harremanak ulertzea. Baina, nola eraiki ditzakegu Euskal Herrian benetan anitzak diren

Herri Mugimenduak? Nola txerta ditzakegu errealitate sozialaren ikuspegi integrala emango diguten begirada horiek guztiak?

Meso mailan, esperientzia honek argi utzi dit Argentinak baduela beste errelato bat: erresistentziaren errelatoa. Gorputz zein kolektibo ezberdinen kontrako ofentsibaren aurreran, altxatu eta borrokari eusten dion herri baten historia. Bizi dugun garaian, badirudi errazagoa dela distopiatan pentsatzea utopiekin amestea baino, eta horrek gure ekintza politikoaren ahalmena mugatu egiten du. Begi-bistakoa da: geroz eta militante gutxiago dabiltza Herri Mugimenduetan, etorkizun bizigarriagoetan pentsatzea geroz eta zailagoa dirudi, eta porrotaren errelatoa indartzen ari da. Egoera honen aurreran, bi ideia berreskuratu nahi ditut.

Alde batetik, gure autoestimu iraultzailea, Herri Mugimenduen motorra, indartu dezakeen errelato bat eraikitzearen edo berreskuratzearen beharrean jarri nahi dut azpimarra. Horretan Mugimendu (Trans)Feminista eredugarria da. Martxoaren 8a prestatzeko eta antolatzeko osatu ziren komite ezberdinen jardunak agerian utzi zuen mainstream hedabideek emandako mezuaren atzean gizarte eraldaketaren alde borrokatzen duen komunitate bat dagoela. Refugio Libertadeko kide batzuek aipatzen zuten bezalaxe, gure memoria garaipenez beteta dago, eta horiek gogora ekartzea ez da soilik errekonozimendu ariketa bat. Aitzitik, bide eta borroka forma berrietan pentsatzeko aukerak zabal ditzake.

Eta, bestetik, solaskide argentinar batek behin eta berriz errepikatzen zuen mistikaren kontzeptua ekarri nahi dut, hain justu, errelatoa elikatzeko lagungarria delakoan. Argentinan oso nabarmena izan zen nola lantzen duten mistika identitate militantearen bueltan. Horren adibide garbiena, akaso, Peronismoa izan daiteke, edota Refugio Libertadeko tailerraren amaieran abestu zuten mapucheen abestia. Baina, egia esateko, mistikaren ideia hori ez dago gure ekosistematik oso urrun. Azken Korrikaren mezuak "euskara gara" zioen, "izateaz ari garelako, egiteaz, izatea egotea ere badelako, nonbait mugimenduan, borrokan". Memoriak, mitoak eta identitateak dira, hein handi batean, komunitatea eraiki eta astintzen dutenak. Eta, hori elikatzen jarraitzeko, mistika erraminta boteretsua da.

Mikro mailan, delegazioarentzako mezu zuzena: brigada honek soberan gainditu zituen proiektu honek fase honetarako aurreikusten zituen helburu guztiak. Zuen jakin-minak eta zuen galderek esperientzia elikatu dute eta, hala, gure proiekturako ezinbestekoa den Hegoaldearen begirada ekarri dugu Euskal Herrira. Zorionak!

Batzuetan pertsona isila naiz eta nire burutazioek mugatu egiten naute, are gehiago ibilbide eta formakuntza militante handia duten pertsonen aurrean. Horrek ez du esan nahi zuekin eroso egon ez nintzenik. Talde bikaina izan zineten eta sekulakoa izan zen esateko zenuten guztia entzutea, baita hain momentu goxoak partekatzea ere. Nire beldurrak, mugak eta ikasteko daukadan guztia azaltzea gustatzen zait, nire jarrerak eta emozioak ulertu ditzazuen, beste barik.

Azpimarratu nahi dut zeinen garrantzitsua den tankera honetako elkartrukeak sustatzen segitzea; izugarri aberasgarriak direlako, gure artean irakaspenak partekatuz prozesuak elikatzen ditugulako eta, Argentinatik argi ekarri genuen moduan, ofentsibaren aurreran gehiago delako batzen gaituena ezberdintzen gaituena baino.

Eta, bukatze aldera...

Nire eskerrik beroenak, lehenik eta behin, Itziarri. Fisikoki egon ez arren, gure brigadakide izan zelako. Prozesu honetan ez ginen bederatzi kide izan, hamar izan ginen. Aurrekoan aipatu nizun bezala, Herri Mugimendua(k) bizi duen une honetan, bulkada hutsa zara. Oztopo guztien gainetik eta ofentsiba ororen aurrean borrokarako duzun grina hori miresgarria da, eta behar-beharrezkoa. Herri Mugimenduari eta, oro har, jendarteari, Itziar zoro eta sortzaile gehiago opa dizkiot.

Eskerrik asko nire roomate Kattinari. Herri Mugimenduak behar duen algara zara. Gure une informalak freskotasunez, irribarrez eta rollo onez bete dituzu. Jarraitu energia hori

Euskal Herri osoan barrena zabaltzen!

Mila esker Eñauti, zaintza ekarri diozulako taldeari eta horren garrantzia berretsi duzulako (nola militantzian hala bizitzan) esperientzia osoan. Horrez gain, maila pertsonalean, eskerrak eman nahi dizkizut antiespezismoaren borroka gurera ekartzeagatik. Eskerrik asko, bene-benetan, zure baloreen alde gorputza jartzegatik.

Badakit bidaia hau ez zela erraza izan zuretzat, baina espero dut, zinez, giro atsegina topatuko zenuela.

Eskerrik asko Maitaneri, Eñautekin batera konfidente, zaintzaile eta indarra izateagatik.

Militantzian ere momentu gogorrak bizitzen ditugu tarteka, bai taldean eta baita maila indibidualean ere, eta horiek onartzea ariketa zaila izaten da batzuetan, baina ezinbestekoa aurrera egin ahal izateko. Zure ezinegonak gurekin partekatzeko erabakia hartu izana eskertzen dizut. Nire besoak eta, ziur nago, Joxemi Zumalabe Fundazioarenak eta Bizilur elkartearenak ere zabalik daude behar duzunerako.

Eskerrik asko nire kide den Unairi, nahasmen guztiaren erdian argia, oreka eta, funtsean, proiektu honen iparrorratz izateagatik. Orekan ere une dibertigarriak eta informalak egon daitezkeela irakatsi diguzu.

Eskerrik asko Aritzeri gurera kultura ekartzeagatik. Akordeen atzean bihotza, pasioa eta irribarrea jartzeagatik. Folklorea ere politikoa izan daitekeelako, eta izan behar duelako.

Eskerrik asko Gabriri, zure jakin-minak taldearekin eta nirekin partekatzeagatik.

Argi utzi diguzu zaurgarritasuna eta ezjakintasuna ez direla oztopoak, baizik eta hazten jarraitzeko gaitasuna ematen diguten bi elementu. Mundua eta errealitatea ulertzeko duzun moduak, justuki, bidaian irakurtzen zenbiltzan egilearen kontzeptu bat ekarri dit burua: Judith Butler-en "zaurgarritasun partekatuaren printzipioa". Zaurgarritasuna ahulezia indibidual gisara hauteman ordez, guztiok elkarri gure hauskortasun emozional, fisiko eta mentala erakutsiz elkar sustengatzearen aldeko ideia.

Eskerrik asko Iratiri bidaia honetan parte hartzera ausartzeagatik. Brigadako gazteenak izan ginen eta, ziur nago, hainbat beldur partekatu genituen. Zentzu horretan, espero dut zuretzat ere niretzat bezain aberasgarria izango zela esperientzia honekin sortu eta ikasitako guztia. Gogoratu: txikitasunetik ere eraikitzen dira utopiak eta ametsak.

Eskerrik asko, azkenik, gure begirale ttipia izan den Dabidi. Ez daukat hitzik esperientzia hau bizitzeko aukera eman izana eskertzeko. Sentibera zara eta badakizu entzuten, Dabid. Horiek dira, hain zuzen,

zaintzan oinarritutako jendartea eraikitzeko funtsezko ezaugarrietako bi. Emakume bezala, eskerrak eman nahi dizkizut, Unairekin batera, (des)eraikitze prozesu honetan espazio seguruak bermatzeagatik.

Gabri Lopez (EHGAM Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua / Bilboko Konpartsak)

Oso interesgarria izan da bidaia honetan parte hartzea, bizitako esperientzia gure kolektiboetara ekartzeko aukera eman digulako eta baita maila pertsonalean ere oso aberasgarria izan delako.

Iritsiera gogorra izan zen, baina. Kide bat aireportuan geratu zen Argentinan sartzea galarazita, eta horrek ezinegona eragin zidan. Tarte batez itxaropenari eutsi nion, baina atzera bueltarik ez zuela jakiteak asko haserretu ninduen, bidegabea eta arbitrarioa izan zelako. Bat-batean eta bidaia hasi besterik egin ez zenean, delegazioko kide bat galdu genuen; oso zaila izan zen. Kidearen azalean jarri nintzen eta inpotentzia handia sentitu nuen. Asko kostatu zitzaidan aurreneko egunetik eta nekea gainean genuela hori guztia prozesatzea. Dena den, lehen kolpe hori gaindituta, talde bezala oso ondo funtzionatu genuen eta giro ederra sortu genuen. Nork bere ekarpena egin zuen eta horrek elikatu zuen esperientzia osoa. Gainera, askotariko ikuspuntu eta iritzi interesgarriak agertu ziren, nola bileretan edo topaketa formaletan hala une informalagoetan ere.

Oso aproposa izan zen Argentina aukeratzea. Hango errealitate politiko gogorrak ez du errazten Herri Mugimenduaren lana, baina zailtasun horiek bertatik bertara ikustea eta ulertzea oso aberasgarria izan zen. Nahiz eta batzuetan kosta egiten zaien sinestea erregimen ultraliberala, negazionista eta errepresiboa daukatela, borrokatzeko grinari eusten diote kasu askotan, oztopoak oztopo. Eta, hain justu, nola erantzuten duten ezagutzea (shocka, haserrea, beldurra, estresa...) inportantea da guk ere horietatik ikasteko. Alderaketak balio izan digu, baita ere, gure egoera ekonomikoa zeinen pribilegiatua den ulertzeko. Hango prekarietatea latza da, ez dira heltzen, eta lan bat baino gehiagotan jardun behar dute zailtasun ekonomikoei aurre egiteko. Horrek guztiak militatzeko denbora eta energia higatzen du. Bestalde, begirada historikoa asko zaindu zen bidaia osoan, eta

bereziki eskertzen dut hori. Historia ondo ulertu behar delako oraina hobeto kudeatzeko. Euskal Herriaren historiaz aritzeko aukera izan genuen baita ere, Argentinan hobeto uler dezaten nolakoa den gure egoera gaur: gure banaketa administratiboa, lurralde historikoen arteko distantziak eta, bereziki, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko distantziak.

Berezia izan zen, adibidez, Mugimendu Feministarekin egin genuen kontaktua eta asanbladan egoteko aukera. Sorpresa atsegina izan zen ikustea pertsona transgeneroak oso inplikatuta daudela borrokan eta berezko ahotsa daukatela. Zorionez, gai izan dira TERF posizio baztertzaileak (Trans-Exclusionary Radical Feminist) alboratzeko.

Politikagintzari dagokionez, ezin da Argentina ulertu Peronismoa ondo ulertu barik. Guretzat harrigarria izan zen ikustea (eta zaila ulertzea) mugimendu politiko berean posizio hain ezberdinek nola bat egiten duten: eskuin neoliberala, ezker eraldatzailea eta erdian beste batzuk. Azken batean, pertsonaia historiko baten bizitzatik abiatuta, nork bere interpretazioa egiten du. Dena den, agian, egitura eta oinarri sozial hori erabiltzea probetxugarria izan liteke proiektu ezkertiar eta iraultzaile sakona eraikitzeko. Nire ustez, ezkerrak ideia eta proiektu argiak izan behar ditu, baina egiturak eta korronteak tokiko moldeetara egokitu behar dira aurrerapausoak emateko eta kapitalismoa benetan eraldatzeko.

Troskismoa koherenteagoa izango da ziurrenik, baina ez ditu boto asko lortu, aurpegi karismatikoagoa izan arren (Myriam Bregman azken hauteskundeetan). Eta nire sorpresarako, ez dago oso errotuta zenbait borroka sozialetan. Peronismoak, aldiz, lortu zuen Néstor Kirchner eta Cristina Fernández boterera heltzea (2003-2015); euren akats eta hutsune guztiekin baina erreforma sozialak eta memoria historikoaren mesedetan urratsak egin zituzten, eta aliantza internazionalistak eraiki zituzten beste proiektu ezkertiar batzuekin (Venezuela, Bolivia, Brasil...). Seguru aski horregatik, Peronismoak potentziala dauka alternatiba ezkertiarra antolatzeko herrialdeko beste korronte batzuekin elkarlanean, oso oinarri sozial potentea daukalako. Laburbilduz, beraz, Peronismoa tresna izan daiteke, baina komeni da zenbait aspektu berrikustea: militarismoa, autoritatearen gorespena eta abar.

Eskuina oso abila da shocka erabiltzen. Kaosa aprobetxatzen du arerio eta errealitate faltsuak sortzeko bere mesedetan, eta erreforma gogorrak aplikatzeko herritarren eskubideen kontra. Mileik berak Peronismoaren azken aldi etsigarria (2019-2023) baliatu zuen: herriaren haserrea kanalizatu zuen bere proiektu faxistara. Faxismoak aurpegi asko ditu, baina guztiak ikaragarriak. Hala ere, bitxia iruditu zait Argentinan Mileiren eta azken diktaduraren faxismoa ez direla batere nazionalistak. Euren estrategia da baliabideak merke jartzea inperioaren esku, Amerikako Estatu Batuen esku, hain zuzen. Argi dago Gobernua enpresekin dagoela, baina lehentasuna AEBen interesak eta euren korporazioak dira.

Landa eremuko komunitateak ere ezagutu genituen eta oso positiboa izan zen; beste begirada bat eman zigun, Buenos Airesko zentralismotik urrunduta. Horrela, fokua beste kontu batzuetan jarri genuen: agroekologian, elikadura burujabetzan, kolonialismoan...

Euskal Herria eta Argentina bi errealitate dira, elkarren artean ezberdinak. Eta, hain justu horregatik, elkarri begiratzeak irakaspen asko ekar diezazkiguke. Euskal Herriko Herri Mugimenduak sarri uzten ditu kanpoan gizarteko sektore pobretuenak, eta baztertuenak, maiz etorkinak. Argentinan, aldiz, gaitasun handia dute horiek ere Herri Mugimendura batzeko, eta bere lekua dute kolektiboetan.

Bada ageriko beste desberdintasun bat ere: Argentinan Herri Mugimendua alderdi politikoekin lotuta dago. Euskal Herrian, aldiz, independentzia handiago daukagu, sinpatiez aparte. Oso garrantzitsua ikusten dut distantzia hori mantentzea, zilegitasun osoz kritikak egin ditzagun ezkerrak boterean txarto egiten duenean. Era berean, Argentinan askotan aipatu ziguten zatiketa gainditzeko beharra. Herri Mugimenduak gai izan behar du askotariko borroketan batasuna lortzeko, betiere batzuen eta besteen ibilbidea errespetatuta. Ezkerraren banaketak espazioa eta boterea ematen dizkio eskuinari.

Ustekabean harrapatu dituzte argentinarrak Mileiren garaipenek eta erreforma gogorrek. Faxismoaren aurrean shock egoeran gera gaitezke. Baina, orokorrean, Herri Mugimenduak prest egon behar du edozein lekutan halako erasoei aurre egiteko. Ez gaude inon

salbu, Euskal Herrian ere ez. Erantzun antolatua prestatu behar da. Internazionalismoak asko lagundu dezake, tresna izan daitekeelako aliantzak sortzeko eta informazioa konpartitzeko.

Unai Gonzalez (Joxemi Zumalabe Fundazioa)

Indar erreakzionarioen mundu mailako ofentsibaren baitan, Argentina egoera nahiko gordina bizitzen ari da. Izan ere, 2023an, Alberto Fernandezen agintaldiaren ostean, Milei gailendu zen lehia elektoralean, eta 2025eko hauteskundeetan berretsi zuen presidentetza.

Mileiren garaipen bikoitzak Argentinako testuingurua gainditzen du eta maila globalean nagusitzen ari den joera erreakzionarioaren parte da. Besteak beste, hurrengoak dira Argentinako gaur egungo errealitateak mundu mailako joera orokortu horrekin partekatzen dituen ezaugarri komunak:

Lehenik eta behin, oso agerikoa da maila globaleko burgesiak finantzatzen dituela.

Bestetik, politikaren espektakularizazioa eta gorroto diskurtsoak hedatu dituzte. Mileik, zehazki, diskurtso maila jaitsi du eta lehia elektoralak zein jardun parlamentarioa erabili ditu ezkerra era irrazional batean kolpatzeko.

Ezkerraren porrotetatik etekina ateratzeko gai izan da gainera. Mileiren lehenengo garaipena ezkerraren agintaldiko zenbait hutsunek eragin zuten haserrealdiaren kanalizazio egokiaren ondorio izan zen. Eskuinak eta bereziki eskuin muturrak, historikoki, gaitasun handia izan dute halako abaguneak baliatzeko.

Ia egitura politikorik gabeko liderra da. Argentinako zenbait alderdik euren egitura Mileiren mesedetan jarri badute ere, oro har, Mileiren proiektuaren atzean ez dago oinarri sozial aktiborik. Ezkerrak proiektu sustraituak sortzeko eta lehiatzeko egitura sendoak behar ditu; eskuinari, aldiz, aski zaizkio bestelako molde batzuk.

Mileik beldurra erabiltzen du. Nagusiki, egoera ekonomikoak okerrera egingo duela mehatxatuz beldurtzen ditu argentinarrak. Horregatik, berak agintean daraman urteetan egoera ekonomikoak hobera egin ez badu ere, jendeak Mileiren alde egiten jarraitzen du alternatiba are okerragoa izango delakoan.

Dena dela, Argentinaren kasuak baditu zeinbait ezaugarri berezi Mileiren gorakada ulergaitz bilakatzen dutenak. Alde batetik, argentinar biztanleriaren izaera nazionalista kontuan hartuta, zelan egin dezakete AEBen morroi den proiektu baten alde herrialdearen ongizatea bigarren planoan utzita? Eta beste zalantza bat ere badut: orokorrean, badirudi Mileik lortu duela egin dituen murrizketa guztiek eta prekarizazio orokortuak bereganako aurkakotasun olaturik ez sortzea, ez maila elektoralean ezta mobilizazioei dagokienean ere. Zentzu horretan, badirudi baldintza materialen prekarizaziorako eta agenda legegilearen bidez borroken zatiketarako estrategiak fruituak eman dizkiola.

Euskal Herriko Herri Mugimenduen delegazioko kideok martxoan egin genuen bidaiara etorrita, nabarmendu nahi dut han ezagutu genituen proiektuek, pertsonek, aldarriek... kristoren indarra dutela, sentsazioa horrekin geratu nintzen. Proiektu erreferentzialetako arduradunekin aritu ginen batez ere eta, jakina, horrek maila altu hori justifikatzen du hein batean. Ziur aski, oinarrizko militanteek edo jende ez militanteak proiektu horiek zelan ikusten dituen ere ezagutu beharko genuke, kontrastatzeko, eta, horrela bai, errealitatearen irudi osoago bat egiteko.

Gure delegazioko kideok gehien harritu gintuen gauza Peronismo izeneko mugimendu, korronte, konfluentzia edo dena delako hori da. Kide batek askotan errepikatu zuen definizioa ekarriko dut Peronismoa zer den azaltzeko: kokapen politiko-ideologikoa zehazteko erabili daitezkeen bi ardatzak (nazionala eta ideologikoa) batzen diren testuinguruan, Peronismoak ardatz nazional osoa barnebiltzen du, argentinar nazionalismoaren baitan kokatzen den espektro osoak eratzen du Mugimendua, eskuinetik ezker muturreraino.

Zentzu horretan, Euskal Herrian kokapen politikoak antzeko parametroekin neur badaiteke ere (ardatz nazionala eta ideologikoa gurutzatuz), ez dago ideologia politikoak hain modu transbertsalean lotzen dituen mugimendu edo korronterik; abertzaletasunaren baitan, esaterako, bi korronte oso ezberdin daude: ezkertiar independentista, eta eskuindar edo 'zentrista' den autonomismoa. Lizarra-Garazi hitzarmena izan zen, akaso, eskuineko indar erreakzionarioak kanpoan utzita noski, Peronismoaren irudikoena geurean.

Horrenbestez, kanpotik behatuta eta Argentinaren historia guztiz ezagutzen ez duen euskaldun baten begiradatik, zaila da Peronismoa ulertzea. Balorazio politikoa egiten hasita, esango dut arraro samarra dela: ardatz nazionalak gurutzatzen duen arren, Peronismoak bere baitan hartzen duen nahasketa ideologiko hori ulertzea kosta egiten zait, eta batez ere euren burua iraultzailetzat duten pertsonak proiektu peronistaren baitan kokatzea egiten zait arrotza. Gakoa Mugimenduaren izaera herrikoi historikoan dagoela uste dut, eta sortu duen pertenentzia sentimenduan; baina, berriro diot, arraroa egiten zait halako atxikimendu handiari eustea giroa hain nahasia dagoen garai honetan.

Peronismotik kanpoko Herri Mugimenduak ere ezagutu genituen, batez ere tradizio autonomodunak (ez troskistak). Orokorrean proiektu eta diskurtso interesgarriak bazituzten ere, Peronismoarekin lotutako Herri Mugimenduei baino gaitasun txikiagoa antzeman nien, batez ere masa zabalak artikulatzeari dagokionean. Euskal Herrian bizi dugun egoerarekin alderatuz, ordea, positiboa iruditu zitzaidan korronte ezberdinek elkarlanerako daukaten gogoa eta praktika, ziurrenik muturreko testuinguruak eraginda.

Azkenik, iruditzen zait hango eta hemengo Herri Mugimenduen arteko ezberdintasun nagusia alderdi politikoekin daukaten lotura dela. Argentinarrek askoz gehiago bat egiten dute alderdiekin, kultura politikoa ezberdina delako, eta hori arriskutsua da, beharbada maila instituzionalari garrantzi handiegia emateaz gain Euskal Herrian ikusten hasiak garelako halako loturek izan ditzaketen mugak edo ekar ditzaketen erredurak.

Herri Mugimenduaren osaketari ere egin nahi diot aipamena. Izan ere, Argentinak daukan bertuterik handiena da beharra artikulatuz Herri Mugimendua behetik gora eraikitzen dutela eta pertsona zaurgarriak inplikatzen dituztela.

Guk, aldiz, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari buruzko gure gogoeta prozesu honi esker, besteak beste, ondorioztatu dugu pertsona zaurgarrienak ez direla Euskal Herriko Herri Mugimenduen parte. Are, gehituko nuke gurean Herri Mugimendura batzen diren pertsona gehienek kezka ideologikoengatik egiten dutela, alegia, posizionamendu politikoak pisu handiagoa daukala nork

bere kezkak edo beharrak aldarrikatzeak baino. Hori muga bat da, eta pertsona asko gure zirkuluetatik kanpo geratzen dira. Argentinan, ordea, Ekonomia Popularraren bidez egoera prekarioenetan bizi diren pertsonak antolatzen, formatzen eta militantziara erakartzen oso ondo asmatu dute. Hango proiektuetatik eta prozesuetatik, beraz, hainbat irakaspen ekarri eta gure egin beharko genituzke.

Bereziki hunkigarria izan zen La Voz de La Mujer kooperatiba grafikoko emakumeen historiak entzutea; horixe izan baitzen, niretzat behintzat, jendartea eraldatzearen adibiderik argiena, edo Mugimenduak eraldatzeko daukan indarraren adierazle gorena. Iraultza gutako bakoitzaren baitan hasten baita.

Bukatzeko, Argentinako lurralde antolaketari buruz bi hitz, eragiten dituen kezkak eta haserreak lehen pertsonan bizi izan genituelako eta Euskal Herritarroi ere badagokigulako horren inguruan hausnartzea. Lurralde antolaketa zentrista batek dakartzan ondorioez kontziente izan behar dugu, eta gure herria bestela eraikitzen saiatu.

Buenos Airesko zentrismoak eta horrek periferietan daukan eraginaren tamaina izugarria da, gurea ez da konparagarria, baina Euskal Herriko lurralde antolaketak ere baditu bere desorekak. Bilbo zentro demografiko eta ekonomiko bezala, Gipuzkoa euskalduntasunaren eta mugimendu eraldatzaileen zentro soziokultural bezala, Araba eta Nafarroa bigarren plano batean eta Iparraldea ahaztuta... Tokikotasun guztiak integratzeko gaitasuna duen errelato bat behar dugu, eta esparru ezberdinetan Bilbo Handiak eta Gipuzkoak sor ditzaketen min, kezka edo aurreiritziak kudeatzen jakin behar dugu.

Kattina Haran (Euskal Herria Zuzenean)

Joxemi Zumalabe Fundazioak eta Bizilur elkarteak abiatu zuten hausnarketa prozesuan parte hartu du Euskal Herria Zuzenean Festibala elkarteak, beste hainbat euskal eragilerekin batera. Prozesu horren baitan izan ziren hitzordu batzuetan aritu gara eta beste batzuren antolaketan ere ibili gara Euskal Herri hego eta iparraldean.

Hausnarketari bultzada bat emateko eta inspirazio iturriak atzemateko, Argentinako Herri Mugimenduekin biltzeko proposamena

ere heldu zitzaigun. Bidaia hori gutako bakoitzaren militantzia esparrurako baliagarria izan zitekeela eta bakoitzak bere Herri Mugimendutik zerbait ekar zezakeela argi genuen. EHZ-k delegazio horretan presentzia eduki izana oso eskertzekoa da, beraz. Herritik eta herriarentzat aritzen den elkartea izanki, munduko beste Herri Mugimenduen berri jasotzeko parada ezin hobea izan zen. Internazionalismoa balore bezala duen festibala gara gainera eta, hortaz, ezagutza bila baino gehiago, inspirazio bila joan ginen Argentinara.

Barrura begira, Euskal Herriko delegazioa batez ere hegoaldeko jendez osaturik zenez, iparraldeko eragile baten presentzia ezinbestekoa zela iruditzen zait. Nazio ttipi eta zatitu batean bizi gara, eta errealitate arrunt ezberdinak ditugu Euskal Herriko txoko guztietan. Argentinara joango zen taldearen osaketak hori islatu behar zuen.

Hala ere, ikuspegi hori aitzinetik lantzea hobe zela uste dut: berant ezagutu genuen elkar (joan aitzin hamar bat egun egin genuen lehen bilkura), eta zein eragileren izenean heldu ginen baizik ez genuen erran; Euskal Herriko errealitate soziopolitiko eta ekonomikoa (bere osotasunean) ez genuen aipatu. Argentinan, alta, errealitate hori ezagutzeko nahia erakutsi zuten, eta, horren aurrean, guri diskurtso amankomun bat ukaitea falta izan zitzaigun.

Baina horren alde positiboa izan da bidaian zehar diskurtso hori pixkanaka-pixkanaka eraiki genuela gure arteko elkarrizketa eta eztabaida informalei esker. Bidaiaren amaieran bai, Euskal Herriko delegazioa ginen!

Argentina aukeratu izanari dagokionez, lehenik esango dut ez nuela hango egoera soziopolitiko eta ekonomikoa sobera ezagutzen. Bidaia prestatzen eguneraketa bat egin nuen, eta horrek erraztu zidan gero, Argentinan bertan, zenbait momenturen eta mugimenduren aipatzeak ulertzea: Movimiento Piquetero, las cooperativas, Economía/Educación popular, ollas populares... Hala ere, bidaian bertan nuen informazio lodiena irentsi eta argiki lotura ikusi nuen Euskal Herrian hasia zen hausnarketa prozesuarekin.

Alde politikoak leku handia du argentinarren baitan eta ezin dira hango Herri Mugimenduak hori gabe ulertu, lotuak dira. Horretan, onartzen dut ez nuela den-dena ulertu (Peronismoa adibidez),

baina orain ezagutza minimo bat dudala erranen nuke. Bide batez, azpimarratu nahi dut argentinarrek haien historiari buruz duten ezagutza harrigarria dela, eta zein errazki eta argiki mintzo diren hortaz!

Hitzordu eta tailer guztiak biziki aberasgarriak izan ziren. Buenos Airesekoak, lehena izanki, ustekabean atzeman ninduen. Jendetsua izan zen, Cordobakoa bezala. Interesgarria izan zen hainbeste eragile ezagutzea! Sindikalistekin izan genituen hitzorduak biziki interesgarriak izan ziren ere, bereziki maitatu nituen langileekin izan genituen trukaketak: Cooperativa gráfica La Voz de la Mujer, Las Rositas... Mapa de la Policía-k ere aunitz animatu ninduen. Untsa izan zen, baita ere, gu haien lekuetara mugitzea, haien lan lekuak, etxeak, komunitateak eta beste ezagutzera. Zein harrera ona ukan genuen!

Euskal Herria Zuzenean Festibala elkarteak esperientzia honi buruz egin duen hausnarketaz esan dezaket mundu mailan Herri Mugimenduen arteko lotura indartu beharra atzeman dugula: ahaleginak batu, elkarrekin momentu gehiago pasatu, hausnartu, mintzatu, trukatu, eztabaidatu...

Internazionalismoari, balore gisa, zentzu handiagoa ematen diogu honelako proiektuetan parte hartuz. Eta gazteei gogoa eta esperantza ematen ahal diegu: engaiatu eta militatu, inspiratu eta motibatu!

Agurra

Konturatu orduko, heldu gara Gogoeta-Ekintza prozesuaren azken metroetara. 2024. urtearen amaiera aldera ekin genion bide honi. Artean ez genekien nolakoa izango zen zeharkaldia, zer aurkituko ote genuen, ezta ondorioak zein izango ziren ere. Baina bagenuen martxan jartzeko arrazoi edo motibazio bat eta, batez ere, bagenituen bidaideak. Eta hori, lagunok, aski da abiatzeko, baina ezinbestekoa izango da, datorrena datorrela, aurrera jarraitzeko. Ez ditzagun, beraz, sekula galdu ekinean segitzeko kitzikadura eta talde-kontzientzia!


Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari buruzko hausnarketa kolektibo honetatik ideia argirik atera badugu, horrek borroka egiten dugun bitartean gertatzen den eta eraikitzen dugun guztiarekin du zerikusia. Eraginkorrak gara helburuak erdiesten ditugunean, noski; eta xedeak edukitzea bera ere, martxan jartzen gaituztenez gero, garaipena izan daiteke bere horretan. Baina, nagusiki, arian eta bide berriak urratzen ditugun heinean sortzen dugun hori irabazten dugu: batzea, nahastea eta uztartzea, saretzea, emozioen partekatzea, jakintza kolektiboa. Horiek guztiak iraunkorrak dira, gure buruan gehiago eta hobeto sinesten laguntzen digute gainera eta, horrenbestez, etorkizun hurbilerako jarraibidea izan behar dute.

Ideia, iritzia eta jakintzen truke-ariketa itzela izan da prozesu hau. Joxemi Zumalabe Fundazioko eta Bizilur elkarteko kideok izugarri eskertuta gaude parte hartu duzuen eragile eta norbanako guztien ekarpenekin, zuen grinak eta konpromisoak hunkitu eta berrindartu egiten gaituzte aldiro-aldiro. Eztabaida mamitsuak, zenbait ondorio bateratu eta galdera berri asko ekarri dizkigute bi urte hauek eta, horrexegatik, gogoetari eustera gonbidatu nahi zaituztegu. Har itzazue orriotan jasotakoak hurrengo bertsoak kantatzeko oin gisa.


Autokritikarako eta, sormenez, garai berriotan eraginkorrak izango diren bestelako formulak esploratzeko deia ere luzatu nahi dizuegu. Garrantzitsua da eragile eta militante bakoitzak bere dinamiken baitan berrikusketarako denbora tartea bilatzea, eta egitea, eragiten segitzeko.

Gure begirune osoa duzue. Bizitza militantziatik ulertzen eta bizitzen duzuelako. Guztiok eskubide guztiak eduki artean jendartea eraldatzen jarraitzeko konbentzimendua duzuelako. Gogoratu: ametsek abiarazten gaituzte, eta txikitik eraginda aldaketa handiak lortzeko gai gara!

Gora Herri Mugimenduak! Gora iraultza! Bileretan, kaleetan, mobilizazioetan, parrandan eta gogoetan, gune autogestionatuetan... ikusiko dugu elkar.







ASANBLADAK DINAMIZATZEKO EREDUEN WEBGUNE DIGITAL.
ESPAZIO GUNEAK ANTOLATZEKO
PRAKTIKA ONEN AZOKA
ESPAZIO BATEN AUTOGESTIOARAKO ARAUDIAK
ESPAZIO BATEN PARTE-HARTZAILEAK
ESKOLA
FEMINISMOA
GUNE / PROIEKTU BAT AUTOGESTIONATZEKO GIDA.
NOLA AUTOGESTIONATU GURE HERRIA
OFIZIOEN IKASKETAK
LIBURU DIDAKTIKO ERREBELDEAK
FINANTZIAZIOA
LOTURA TEKNOLOGIKOA
ANALOGIKOA
BESTE KULTURA/ HERRI BATZUETAKO ERREALITATEAK
FORMAKUNTZA ALDERDIKAI
Herriko errealitateen beharren azterketa + erantzuna
KULTUR ADIERAZPENAK
KULTURA POLITIKA
TALDE
TXIKIKO ESTABAIDA INFORMALAK
IRAKURLE TALDEA
SARE SOZIALETAKO MULTIMEDIA
ENPOA SARE + EDUKIA BETE
GAZTEEN LENGOAIA
HAURREI NOLA IRAKATSI ASANBLADAK EGITEN?






IZENA
HELBURUA
BESTE:
NOLA/URRATSAK
SUBJEKTUA(K)


BORROKA HAUSPOTU

Eranskina

Jarraipen Batzorde Zabalaren 1.bilerarako jarraibide metodologikoa 118

Jarraipen Batzorde Zabalaren 2.bilerarako jarraibide metodologikoa 119

Jarraipen Batzorde Zabalaren 3.bilerarako jarraibide metodologikoa 121

Gogoeta-Ekintza prozesuaren irekiera faseko tailerrak dinamizatzeko jarraibide metodologikoa (AZ Koadro Eskola-ko saiorako egokitua) 123

Gogoeta-Ekintza prozesuaren itxiera faseko tailerrak dinamizatzeko jarraibide metodologikoa (txantiloi moldagarria) 126

Jarraipen Batzorde Zabala	1. BILERA	Data: 2025-02-22 Ordua: 11:00 Lekua: Altsasu	

ORDUA	PROZESUA-EDUKIAK	BALIABIDEAK	ARDURA
11:00-11:15	**HASIERAKO AURKEZPENAK.** Kide bakoitzak bere izena esango du eta datorren eragilea deskribatuko du, horretarako 3 hitz eta lelo bat erabiliz (*aurretik abisatu hau pentsatuta ekartzeko!*). Zumalabeko kideek gure izena eta Zumalabekideak garela baino ez dugu esango.		15´
11:15-11:30	**ZUMALABEREN ETA PROIEKTUAREN AURKEZPENA.** Zumalabe, esku artean dugun proiektua eta bertan Jarraipen Batzorde Zabalak jokatuko duen papera azalduko dugu.	PPTa Proiektorea	15´
11:30-12:30	**PROIEKTUAREN INGURUKO ZALANTZA ETA EKARPENAK:** - Hurbildutako pertsonei fitxa bana banatuko zaie, proiektuaren inguruko zalantzak, ekarpenak eta gakoak identifikatzeko. Kideek **15 minutu**ko epea izango dute **fitxa banaka** betetzeko. - Gerora, kideak **4-5 pertsonetako lan taldeetan** jarriko dira eta emandako erantzunak partekatuko dituzte, eta adostasun agerikoenak bilduko dituzte plenarioan konpartitzeko. Horretarako, **20 minutu** izango dituzte. - Azkenik, **plenarioa**n lan taldeetako ideia nagusiak partekatuko dira, eta egindako zalantza eta ekarpenei erantzuten saiatuko gara Zumalabeko kideak. Errepikatutako ideiak ez dira berriro botako, eta ariketaren bukaeran fitxak jasoko dira, sistematizazioa errazteko. **25 minutu.**	Fitxak Boligrafoak	1h
12:30-12:45	**ATSEDENA**		15´
12:30-13:05	**EKARPENETARAKO TARTEA: ELKARRIZKETA PROPOSAMENAK.** Elkarrizketak egitea denez proiektuan dugun hurrengo erronka, horretarako izen proposamenak jasotzeko ariketa bat egingo dugu. - Lehenik eta behin, eztabaiden edukia eta helburuak zeintzuk diren eta bilatzen dugun profila zein den **azaldu**ko dugu, **10 minutu**tan. Bilatzen ditugun profilak ezaugarrituko dituen infografia bat egongo da ikusgai. Orain arte guk proposatu ditugun izenak ez ditugu aurkeztuko! - Gerora, **banaka izenak pentsatzeko eta post-itetan idazteko 10 minutu**ko tartea utziko diegu hurbildutako kideei. - Jarraian, **5 minutu**tan **post-itak dagokion tokian itsatsi**ko dituzte kideek.	Papeloteak Post-itak Boligrafoak	35´
	- Azkenik, **10 minutu**tan **itxiera** egingo dugu, azken erabakia Gogoeta Taldean hartuko dugula esanez eta horretarako erabiliko ditugun kriterioak azpimarratuz.		
13:05-13:15	**ETORKIZUNERAKO OHARRAK.** Telegram taldea, hurrengo JBZko bilera maiatzean...		10´
13:15-13:30	**BALORAZIOA ETA ITXIERA:** lehen bileraren balorazioa egiteko fitxak banatuko dizkiegu kideei, galdera lagungarri batzuekin, euren iritzia jakiteko asmoz. GALDERA LAGUNGARRIAK: 1) Zer espero zenuen bilerarako gonbitea jaso zenuenean? Gaurko saioak zure espektatibak bete ditu? ETA 2) Zer iruditu zaizkizu bileraren edukiak eta metodologia? Zerbait aldatuko zenuke? Kideek **15 minutu**ko tartea izango dute **fitxa banaka betetzeko** eta fitxak jasoko ditugu. Gerora, itxiera formala egingo da.	Fitxak	15´

Jarraipen Batzorde Zabala – 2. bilera	2. SAIOA: OINARRIZKO DOKUMENTUARI EKARPENAK	Data: 2025-05-31 Ordua: 10:30 Lekua: Teila Fabrika - Donosti	
ORDUA	PROZESUA-EDUKIAK	BALIABIDEAK	ARDURA
10:30 10:45	**SARRERAKO DINAMIKA. Kide berriak egongo dira baina, aurreko dinamika bera ez errepikatzeko, izen + eragile bira azkarra egingo dugu; ostean, gustu + eragileen nolakotasunaren BINGOAREN JOLASA**	Bingo kartoiak	**15´**
10:45 10:50	**SAIOAREN KOKAPENA.** JBZren funtzioa, prozesuaren jarraipena egiteaz gain, oinarrizko txostenari ekarpenak egitea da. Gaurko helburuak kokatu eta dinamikak aurkeztuko ditugu.	-	**5´**
10:50 11:05	**GOGOETA PROZESUAN EMANDAKO URRATSEN JARRAIPENA. Laburki azalduko ditugu egindako aurrerapenak (eztabaida monografikoa, tailerrak, elkarrizketak, erreportajea...), galderentzako tartea utziz**	-	**15´**
11:05 12:00	**TESTUAREN EZTABAIDA: LAN TALDEA.** • Testuaren aurkezpen laburra (irakurrita ekartzea eskatuko dugu) **10´** • "Mahai beroak": 3 mahai jarriko ditugu eta, bakoitzean 20 minutuz, testuaren atal bat izango dugu eztabaidagai, hurrengo galderei erantzuteko: 1. Zer kenduko zenuke testutik? 2. Zer sumatzen duzu faltan testuan? 3. Zer (er)aldatuko zenuke eta nola? Aldaketarako proposamenak papelote handietan idatziko ditugu, osteko plenarioan eztabaidatzeko ***MAHAIAK: **1) Testuaren 1ngo eta 2. puntuak:** Zer d(ir)a Herri Mugimendua(k)? **+** Zer da Herri Mugimendu(ar)en eraginkortasun politikoa? Eta zelan neurtu dezakegu? **15´** **2)** Testuaren 3. eta 4. puntuak: Testuinguru politikoaren azterketa **+** Zerk baldintzatu dezake Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa? **15´**	Testuaren 3 atalak inprimatuta (mahai bakoitzeko 3) + papeloteak eta rotuak	**55´**

	3) Testuaren 5. eta 6. puntuak: HMen ekiteak baldintzatu dituzten edo ditzaketen balizko faktoreak + Zelan eta zergatik aldatu da Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa aurreko fase politikotik honetara? **15´**		
12:00 **12:15**	**ATSEDENA**		**15´**
12:15 **13:05**	**TESTUAREN EZTABAIDA: PLENARIOA.** Aldaketa proposamenen zerrendak horman itsatsi eta puntuz puntu laburki azalduko ditugu; jarraian, desadostasunetatik adostasunetara heltzeko ariketa egingo dugu: • Zeinekin gaude ados eta zeinen kontra? Topatu dezakegu tarteko baieztapena? Kontsentsurik ez balego, gometzekin SEMAFOROAREN ARIKETA ariketa egingo genuke: • Esaldien gainean gorri, berdea edo laranja jarriko dugu, laranjen gainean lan egiteko.	Gometzak, zelo, aurreko papeloteak, rotuak	**50´**
13:05 **13:20**	**EKARPENAK TAILERREN PLANTEAMENDUARI.** • Prozesuko hurrengo urratsa da tailerrak antolatzea, eraginkortasun politikoa mugatzen duten korapiloak identifikatzeko helburua izango dutenak. • Tailer horien metodologiaren inguruko ideia zaparrada. Zelan egin dezakegu tailerretan lortu nahi duguna ongi ulertzeko eta ahalik eta korapilo gehien identifikatzeko? Metodologia, azalpenetan azpimarratu beharrekoak... e.a.		**15´**
13:20 **13:30**	**AMAIERAKO OHARRAK:** Bilkuraren balorazio-jolasa + hurrengo hitzordua zehaztu (azaroa-abendua)	fitxak	**10´**
13:30	**ITXIERA**		

Jarraipen Batzorde Zabala – 3. bilera	3. SAIOA: lehenengo tailer rondaren ondorioak aurkeztu eta bigarren tailer rondaren inguruko ekarpenak jaso	Data: 2025-12-06 Ordua: 9:30 Lekua: Durangoko Eskola	
ORDUA	PROZESUA-EDUKIAK	BALIABIDEAK	ARDURA ⏳
9:30 9:40	**SAIOAREN KOKAPENA.** Gaurko helburuak kokatu (korapiloak zehaztu eta tailerrak erabaki) eta dinamikak aurkeztuko ditugu.		10´
9:40 9:55	**SARRERAKO DINAMIKA.** Hari bola elkarri pasatu (“Ez nator bat!” jolasa, hitzak: haria, HM, korapiloa, Euskal Herria)	Hari bola (Itzi)	15´
9:55 10:10	**GOGOETA PROZESUAN EMANDAKO URRATSEN JARRAIPENA** (Power Pointa prestatu) – Tailerrak – Elkarrizketak – Erreportajea	Proiektorea, argazki aurkezpena (Itzi)	15´
10:10 11:30	**KORAPILOEN LEHENESTE ARIKETA** 1) Zerrenda irakurri eta bakarka landu (10´) 2) Zalantzak plenarioan argitu (10´) 3) Bakarka hausnartzeko tartea utzi; 2 korapilo aukeratu eta 2 postitetan idatzi gidoitxoak, lehenesten ditugun korapiloak argudiatzeko (10´)	Postitak, Boliak, indabak, papelotea borobilekin (Itzi)	80´

	4) Plenarioan postitetan idatzitakoa azaldu eta itsasi (20´) 5) Indaba bozkaketa (20´) 6) Hautatutako zerrendaz hausnartu (10´)		
11:30 12:10	**ITXIERA FASEKO TAILERRETARAKO IDEIAK** 1) Itxiera faseko tailerren helburuak argitu eta azaldu aurreko tailerretan gertatutakoa (festiak VS AZ) (5´) 2) Tailerretarako ideiak bota (gometza zurietan idatzi eta EHko mapan itsatsi (20´) 3) Tailerren nolakotasuna zehaztu: zenbat tailer, zenbat korapilo bakoitzean... (15´)	EH mapa + Gometza zuriak	40´
12:10 12:25	**BALORAZIOA** Bilkuraren balorazio-jolasa: diana uztaia eta objektuekin, hurrengo galderei erantzunez: 1) Zelan egon naiz ni gaurko bilkuran? 2) Zelan ikusi dut taldea? 3) Zer iruditu zaizkit landutako edukiak? 4) Zer iruditu zait saio honen metodologia?	Uztaia Legoak	15´
12:25 12:30	**AMAIERAKO OHARRAK:** + hurrengo hitzordua(k) zehaztu (maiatzeko JBZ, hurrengo tailerrak) + 13:00 EHE manifa		5´
12:30	**ITXIERA**		

ARDURA BANAKETA

ITZI: hari bola, postitat, boliak, papelotea, gometza zuriak, indabak, proiektorea dagoela ziurtatu, argazki aurkezpena prestatu, papelotea borobilekin, EH mapa, uztaiak

ANER: legoak, aktalari lanak

UNAI: Saiorako dokumentuak inprimatu [korapilo zerrenda x 10 + handi 1, ibilbideak x 3 Unai], korapiloen zerrenda txukundu

Gogoeta-Ekintza prozesuaren irekiera faseko tailerrak dinamizatzeko jarraibide metodologikoa (AZ Koadro Eskola-ko saiorako egokitua)

Joxemi Zumalabe Fundazioa	Herri Mugimenduak, eraginkorrak ote? Gogoeta Ekintza prozesuko irekiera faseko tailerrak HNen eraginkortasun politikoa baldintzatzen duten korapiloak identifikatzen	Data: 2025-11-22 Ordua: 10:00 – 12:30 Lekua: El Hadji, Errotxapea	
ORDUA	PROZESUA. EDUKIAK	BALIABIDEAK	ARDURA
10:00 **10:15**	**AURKEZPEN DINAMIKA: espaziotik tbili** Espazio ireki batean, bertaratutako pertsonak espaziotik ibiliko dira, norabide finkorik gabe. Dinamizatzaileek emandako irizpideen arabera, multzokatzen joango dira, ezaugarri berdinak dituzten pertsonen artean taldeak osatuz(*). – Adina – Auzoa – Generoa – Jatorria – Ikasketa maila – Klase ekonomikoa (2-3 proposatu?) *hausnarketarako tartea (5 min)	Dinamika aurkeztu + hausnarketa	**15'**
10:15 **10:25**	**PROZESUAREN ETA GAURKO SAIOAREN KOKAPENA** . Joxemi Zumalaberen, esku artean dugun prozesuaren eta gaurko saioaren kokapen arina egingo da. Horretarako, bidearen analogia egingo dugu, hainbat urratsen bidez prozesuaren faseak identifikatuz eta azalduz. . AZ/KOADRO ESKOLAREN AURKEZPENA	Proiektuaren azalpen infografiak	**10'**

	HMen ERAGINKORTASUN POLITIKOA MUGATZEN DUTEN KORAPILOEN IDENTIFIKAZIOA		
10:25 ***10:45***	· Kide guztiei post-itak banatuko zaizkie, eta 10 minutuko tartea utziko da Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa mugatzen duten korapiloen inguruan pentsatu eta horiek zerrendatzeko. Makrofaktoreetaz gain, kontu txiki eta neurgarrietan ere arreta jartzeko eskatuko zaie. · Tarte horren ostean, 10 minututan plenarioan konpartituko dira ateratako korapiloak. Asko izango garenez, ronda itxian egingo dugu; bakoitzak korapilo bakarra botako du eta hurrengoek bakar bana ere; esanda daudenak ez dira errepikatuko. Guk papelotean era eskematikoan jasoko ditugu eta ronda amaitzean post-itak papelotearen alde batean itsasiko dira.	Post-itak Boligrafoak Papelotea rotuak	**20'**
	GEHIEN KEZKATZEN GAITUZTEN KORAPILOEN LEHENESTE ARIKETA		
10:45 ***11:00***	· Gometxen bidez, gehien kezkatzen gaituzten korapiloak identifikatuko ditugu. Horretarako, kide bakoitzari 5 gometx emango zaizkio, nahi bezala banatzeko gehien kezkatzen duten korapiloen artean. · Konpongarriak diren hutsune horietan arreta jartzeko eskatuko da. · Gometxen banaketaren arabera, korapilo kopuru bat aukeratuko da, hurrengo ariketaren bidez horiek lantzeko (hau zelan egin momentuan ikusi beharko dugu, tailerrera datorren jende kopuruaren eta bozken banaketaren arabera)	Gometxak	**15'**
	KORAPILOAK GARATZEKO ARIKETA		
11:00 ***11:45***	· 5 minututan, lantaldeak osatuko dira (aulkien atzekaldean itsatsita dauden Nafarroako herrien izenen arabera banatuko gara), gometxen bidez lehenetsiak izan diren korapiloei buruz hitz egiteko. Lantalde bakoitzak korapilo 1 hautatuko du, interes gehien sortzen dien gaiaren arabera. · 25 minututan, lantaldeetan aukeratutako korapiloaren inguruan arituko dira, bere arrazoiak, ezaugarritzea, konponbideak eta tresna praktikoak hizketagai izanik. Eztabaida, printzipioz, librea izango da, baina galdera-fitxak banatuko ditugu, lagungarri izateko. Lantalde bakoitzeko aktalari eta bozeramale bana zehaztuko da. · 15 minututan, lantaldeetan hitz egindakoa plenarioan partekatuko da. Saiatuko gara ideiak laburbiltzen eta ez errepikatzen.	Eztabaida bideratzeko fitxak eta boligrafoak	**45**

11:45 12:00	**SAIOAREN BALORAZIOA** Dianaren ariketaren bitartez, saioaren balorazioa egingo da. Horretarako, hurrengo galdera lagungarriak erantzuten saiatuko gara: – Interesgarria/beharrezkoa iruditzen zaizu HMen eraginkortasun politikoaren gaia? – Zer iruditzen zaizu esku artean dugun prozesua? HMarentzat edota zure eragilearentzat baliagarria izan daiteke? – Zer iruditu zaizu gaurko saioa? – Nola ikusi duzu zure burua gaurko saioan? – Bigarren faseko tailerretan parte hartzeko gogoa izango zenuke? (azaldu hurrengo tailerrak korapiloak askatzeari begirakoak izango direla batik bat)	15´
12:00 12:05	**PROZESUAREN HURRENGO URRATSEN BIRGOGORAPENA**	5´
	Amaiera	

Gogoeta-Ekintza prozesuaren itxiera faseko tailerrak dinamizatzeko jarraibide metodologikoa (txantiloi moldagarria)

Herri Mugimendua(k): eraginkorrak ote?	Gogoeta Ekintza prozesuko itxiera faseko tailerrak HMen eraginkortasun politikoa baldintzatzen duten korapiloak askatzen	Data: Ordua: Lekua:	
ORDUA	PROZESUA-EDUKIAK	BALIABIDEAK	ARDURA
	AURKEZPEN DINAMIKA: Hainbat ideia idatzi ditugu, agian aldiro egokitzeko korapiloaren gaiari eta eragile/espazio/jende kopuru eta izaerari. Kontutan hartuz batzuetan jende nahikotxo egongo dela, Faktoria edo Astra gaztetxean kasu. + Herri Mugimenduaren esaldi luzea, aulki bakoitzean hitz bat (korapiloak?); aulkiak kentzen joan, gero eta jende gehiago eseri beharko da aulki berean (edo uztaian sartu), hitz negatiboak kentzen joan amaieran HM hitz positiboa(k) soilik geratu arte + Botere-makila + Taldekatzea irizpide jakinen arabera + Zuritasun jardunaldietarako: Luxiánaren ariketa edo kalea gurutzatu + Ilara osatu adinaren arabera		10´
17:10 ***17:15***	**ONGIETORRIA ETA AURKEZPENA: ZER DA JZF?**		5´
17:15 17:25	**PROZESUAREN ETA GAURKO SAIOAREN KOKAPENA** Aurkezpen bisualarekin lagundu prozesuaren azalpena.	PPT	10´
17:25 17:40	**DAGOKIGUN KORAPILOAREN AZALPENA** 1) Azalpentxo laburra eta fitxak banatu banaka irakurtzeko 2) Plenarioan zalantzak argitu edo bat-bateko ekarpentxoak bota	Korapiloaren azalpen fitxak	15´

	KORAPILOA LANTALDEKA ASKATZEN 0) Taldeak egiteko ariketa: irudiak itsatsi aulki atzean aurretiaz (JZren B-ak)		
17:45 **18:35**	1) Tresnekin hasi aurretik, tarte bat utzi korapiloari buruz hausnartu eta partekatzeko (10 min), galdera lagungarrien fitxarekin: galdera orokorrak berdinak korapilo guztietan + zehatzak korapilo bakoitzeko *Galdera orokorrak: Ados al gaude honako hau HMarentzat egiazko korapilo bat denarekin? Zertan eragiten digu korapilo honek (gure eragileari + EHko HMari)? 3) Ideia ekaitza: papelote eta koloreak banatu ateratzen dena marrazten edo idazten joateko, eskema bisualak osatuz (eman bide irudimenari...): margoak, errotuladoreak, gometzak... (15 minutu). 4) Ideiak zehatzera ekarri. Irudietan erabilgarrienak, praktikoenak, errealistenak... borobildu eta azalpen testutxoak gehitu (postit edo bokatekin...). (20 minutu).	Taldeak egiteko pegatinatxoak Folioak Margoak, errotuladoreak... Gometzak Kartulinak	50´
18:35 **19:05**	**PLENARIOA** 1) Taldeka eskemak azaldu 2) Tresnak kartulina ezberdinetan zerrendatu	Kartulinak	30´
19:05 **19:20**	**ATSEDENALDIA**		15´
19:20 **19:35**	**TRESNAK HAUTATU** Hurrengoak bezalako galdera(k) korapiloetan fisikoki kokatuz (kartulinen ondoan) 1) Zein tresna dugu gogoko/nahiago/gustoko...? 2) Zein tresna iruditzen zaigu egingarria?		15´
19:30 20:00	**LANTALDEKA DEFINITU** Lantaldeka tresnak diseinatzen hasi (lantalde berdinak mantenduz denbora aurrezteko) – Kartulinak banatu, 5 puntadun izarraren taula betetzeko (erpin bakoitzean galdera		

	1): Zein da tresnaren helburua? Zer da tresna? Nork egin behar du? Nola egiten da/urratsak...? Bestelakoak: denboralizazioa, zabaltzea... Gogoratu tresnak errealistak izan behar direla!
20:00 20:20	**PLENARIOA** Partekatu lantaldeetan ateratakoa. Kartulinak paretan itsatsiz, talde bakoitza berea azaltzeko altxatuz, “aurkezpen txukuna”, salduko baligute bezala
20:20 20:50	**BORROKA ETA SORKUNTZA IDEI EKAITZA** – Muraltxo bat egin ideiekin: jarri gai orokorrak, hitz pizgarriak (manifak, ekimenak, bilerak, kanpainak, sareak...) eta irudikatzen, idazten... joan – Aurreko tailerretako murala eraman, ariketa jarrai bat izateko eta ez tailer bakoitzean hasi eta amaitzen den ariketa bat
20:50 21:00	**PROZESUAREN HURRENGO URRATSEN BIRGOGORAPENA** · Hurrengo tailerrak · Ondorien zabalpena · ITA
	Amaiera



Joxemi Zumalabe Fundazioa

Bizi lur

Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea
Asociación para la Cooperación y el Desarrollo de los Pueblos